

ttipi-ttapa



Gaizka Sarasolarekin
'Zerrakurretan'
liburuaz solasean / 8



Marion Elizalde
Zubietatik Galesera
Batxilergoa
ikastera / 28



Eider Bidegain
aurtengo Arizkun
Rock jaialdiaz
mintzatu da / 42

SINADURAK

 MIEL M. ELOSEGI IRURTIA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 GABI GOIA IPARRAGIRRE / 4	 ESTEBE APEZETXE MURUA / 4



AROTZAK herri ekimena

**«EZ GAITUZTE ISILDUKO
ETA EZ GAITUZTE GELDITUKO»**

«Jazarpen judiziala eta poliziala» salatu eta «borrokarekin segituko» dutela adierazi du Aroztegiako proiektuaren kontra sortu den Aroztegi herri ekimenak. «Herria mintzatu dela eta herriaren nahia betetzea gobernuari dagokiola» gaineratu du. / 44

EKINKLIK ARGAZKIAK

Transplanteari esker salbu

Bihotzeko transplanteak salbatu du Ana Hernandez narbartearren seme jaioberriaren bizitza. / 10

BERA LESAKA

Agenda 2021

EKAINA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

03 ORTZEGUNA

> BERTSOLARITZA
BAZTAN-BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETA

SARI BANAKETA
19:00 Kultur Etxean
Antolatzaileak Bortzirietako Bertso Eskola eta Berako Kultur Batzordea

BERA

05 LARUNBATA

> KIROLAK
V. IBARDINGO
IGOERA

Mendiko junior mailako Nafarroako txapelketa
13:30 Lehenengo txanda
(12:30ean errepidearen mozketak)
Antolatzaileak Ziharka Sport

BERA

06ra ARTE

> EKITALDIK
BETI-GAZTEREN
ASTEIA

(Mahai Joko Txapelketa,
Lerro dantza,
Argazki Rallya...)

LESAKA

06 IGANDEA

> KIROLAK
NAFARROAKO
EMAKUMEZKOEN
PILOTA TXAPELKETA

Goizean Eztegara pilotalekuan

BERA

07 ASTELEHENA

> MUSIKA
MUSIKA
ESKOLAKO
KONTZERTUA

18:00 Kultur Etxean
Antolatzaileak Isidoro Pagoaga Udala Musika Eskola

BERA

11 ORTZIRALEA

> MUSIKA
TXORBELA
OTXOTE TALDEA

20:00 Harriondoa Kultur Etxean

LESAKA

12 LARUNBATA

> MUSIKA
IÑAKI DIEGUEZ
AKUSTIK TRIO

19:30 Harriondoa Kultur Etxean

LESAKA

13 IGANDEA

> BERTSOLARITZA
BERTSO
EGUNA

12:30 Plazan 13:00 Onin ertzean
14:00 Bazkaria Arranon
(10€ eman izena WhatsApp- ez 618 963 011)

> MUSIKA
ORGANO KONTZERTUA

18:00 Lesakako San Martin Parrokian
Antolatzaileak Lesakako Organoaren Lagunen Elkarte

LESAKA

14-16

> MUSIKA
MUSIKA
ESKOLAKO

IKASTURTE AMAIERAKO KONTZERTUAK

18:00 Harriondoa Kultur Etxean

LESAKA

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK

INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak

ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATO
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

ROLL-UP

ROLL-UP
Garraio poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK

ELEKTROSTATIKOAK

GARDENAK

MIKROBENTOSAK

MIKROPERFORATUAK

POLIMERIKOAK

GAUZA GEHIAGO

OLANAK

PEGATINAK

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

2 ttipi-ttapa | 783 zk. | 2021-06-03



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Sasipean

Mendi puntatik begira bistakoa zitzaidan duela 15-20 urte oso bestelako itxura zuela gure inguruak. Lehen paisaia askoz ere irekiagoa zen. Iraztordiak sastrakadi bihurtu dira, eta ia ezin da bertatik pasa. Belar-soroak ere azkar galtzen ari dira, nekazaritza eta abeltzaintza jota ditugun seinale. Urte gutxian landazabala sastrakadi eta oihan bihurtuko zaigu, basoko espezieen mesedetan eta leku irekietako espezieen kaltetan. Agur azken mendeetako paisaiari. Agur gure herria ehunka urtez aurrera ateratzea ahalbidetu duen jakintza eta kultura aberatsari. Agur landa eremuari lotutako balio handiko bioaniztasunari ere. Egundoko galera! Oraindik badugu lurretik janaria sortzen dakien bertako jendea, eta eskualdeko herriak bizirik mantentzeko erronkan oinarrizkoa da nekazaritzaren jarduera. Abiadura handiko trenak eraikitzen dituen eta une oro puntako teknologia erabiltzen duen gizarte modernoak ez al du gure herria belaunaldi belaunaldi mantendu duen kulturaren galerari buelta emateko gaitasun edo irudimenik?

«HERRIAK BIZIRIK MANTENTZEKO OINARRIZKOA DA NEKAZARITZA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ama begira ezazu, leihotik plazara...

Batek euria ari duela badio eta bertzeak ezetz, kazetariaren lana ez da bie ahotsa ematea, leihoa ireki eta zer eguraldi dagoen erratea baizik... sare sozialetako esaldi orojakiletako bat. Kazetari beterano batek errana da, gure herriko garairik ilunenetan Galindo koronela elkarrizketatzea zela erredakzio guztietako ametsa... Euri-jasan ez zuten leihoa irekitzerik lortu.

NABARMENTZEKOAK



OIHAN
TELLETXEA SEIN
IGANTZI



JAVIER
IGOA ALZUGARAI
LESAKA

Orain arte Lesakako Beti Gazte futbol taldean aritu ondotik, Oihan Telletxea Sein Igantziko futbolari gaztetxoak Realean, Donostiako talde txuri-urdinean, debutatzeko aukera izan du.

Zumaiako margo lehiaketa irabazi berri du Lesakako margolariak. Ez da, ordea, lehenbizikoa. 1980an irabazi zuen bere lehenbiziko margo lehiaketa eta geroztik 17 lehenbiziko sari lortu ditu.

ATZERA BEGIRA



2011-05-26 · TIPI-TTAPA · 543 zk.

Baztan Ikastolaren 40. urteurreneko besta

Bistakoa da ez dela azken urte honetan ateratako argazkia. Baina pandemiak dena hankaz goiti utzi ez balu, Baztan Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunetan ateratako argazkia izan zitekeen. Duela hamar urte, Baztan Ikastolaren 40. urteurreneko ekitaldien barne, ikasle eta irakasle ohiek bazkaria egin zuten Elizondon, eta ordukoa da argazkia. 240 lagun elkartu ziren. Bazkariak gain, argazki zaharren erakusketa, fanfarre poteoa, bertso musikatua, akordeoia eta noski, giro eta umore ona izan zituzten. Bertze modu batean ospatzen ari dira ikasturte honetan 50 urte bete dituela. Asteburuan, adibidez, hilaren 5ean eta 6an, urteurrenaren harira prestatu duten dokumentala ikusgai izanen dute Irurritako Gizarte Bilgunean.



erran. eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Ikusi mendizaleak, baso eta zelaiak...

Nafarroako Gobernuak turismoa bultzatzeko asmoz *Mendi-ibiliak Nafarroan* izeneko liburuxka ikusten ari naiz eta hauxe leitu dut bertan: «Aukerak mugagabeak dira hemen. Ekarriz zurekin batera familia, bikotekidea, lagunak, edo nahi duzuna. Eta mugak jar ditzatela oinek». Liburuxka honekin batera, Wikiloc-a proposatzen du gure natura-gosea asetzeko.

Ez dakit ba... honela ikusita hagitz erraza dirudi, baina nire inguruan ez da horrela, egunerokoak erakusten digu mendizaleen eta baserritarren edo abeltzainen arteko elkarbizitza ez dela beti baketsua eta errespetuzkoa.

Alde batetik, mendizaleak uste du berak edonon barna ibiltzeko eskubidea duela. Mendia denona dela eta naturaz gozatzea denon esku dagoela. Ibilbidea aukeratu, GPSa piztu eta aukeratutako trackak agintzen dion bideari segi, beti aitzinera. Zer gertatzen da? Ibilaldi hori ez doala beti bide publikoetatik, batzuetan jabego pribatuetatik pasatzen dela, atakak edo balangoak zeharkatu behar direla, zerrakurarekin topo egiten dela, baserri atarrietatik igaro behar dela, belai edo soro landuen gainetik pasa behar dela helmugara ailegatzeko.

«MENDIZALEEN ETA BASERRITARREN ELKARBIZITZA EZ DA BETI BAKETSUA»

Bere ataria zaintzeko zakurrak paratuko ditu (batzuetan aratzea adinekoak) eta kamara ezkutuak ere erabiliko ditu. Ez dugu atzendu behar gure baserrietan lapurrak zenbat aldiz sartu ohi diren.

Ba, bi aldeen interesak txoke egiten dutenean gatazkak sortzen dira. Arrazoa ez da ehuneko ehunean batena edo bertzearena. Dena ez da libre, elkarrekiko errespetuz jokatzea ezinbertzekoa dugu baserritarren eta mendizaleen arteko elkarbizitza bermatzeko. Konponbideak pentsatu beharko ditugu naturan ekintzak bateratu eta orekatzeko. Landa eremuko turismoa eta nekazaritza eta abeltzaintza bateragarri egin beharko ditugu gure herri ttiki hauen biziraupenerako.

Gure eskualdea herri, txoko eta mendi zoragarri batea dago eta pandemia garai honek erakutsi digu sare sozialei esker jendea zoko guztietara datorrela, honek dakartzan ondorio guziekin. Beraz, familietatik hasita, eskoletatik, udaletatik, goazen konponbideak aztertzea eta herritarrak heztera, etorkizunean elkarren artean ahalik eta hobekien molda gaitzen.

Bertze aldetik, baserritarrak bere eremuak babestu nahi ditu. Bere aziendak, hainbertze kostata egin duen zerrakura barrenean eduki nahi ditu eta horretarako zenbait bide itxi behar baditu, ahalik eta hobekien egiten ditu.



ESTEBE APEZETXE MURUA

Erabakia

Azkenaldian Baztango bazterrak ederki harrotzen ari dira Aroztegiaren aferarekin. Bertako lanak gelditzeko hamaika egunez egindako kanpaldiak eta segur aski Baztanen inoiz izan den manifestaldirik jendetsuenak proiektuaren kontrako ahots aunitz dagoela agerian utzi dute, lehenagotik hala ez bazegoen... Herri mugimenduari betiko formularekin erantzun diote eta jadanik hamar lagun auzibidean paratu dituzte hainbat delitu leporatuz. Alta, ez du iduri hori denik egitasmoaren baliagarritasunaz eta onurez konbentzitzeko estrategiarik onena. Gaiak gainera, hemengo mugak zeharkatu eta Euskal Herri osoan oihartzun handia izan du. Nafarroan interes orokorreko proiektuak bideratzeko onartutako Udalez Gaindiko Plan Sektoriala (UGPS) enpresa pribatuen zerbitzura paratzea aitzinkari zinez arriskutsua da. Gaur guri tokatu baitzaigu, baina baliteke bihar Lizarran, Izaban, Kasedan edo Arantzan gauza bera egitea...

Alde daudenen argudioak nagusiki bi dira: sosa eta lana. Ez da horrelakoak aditzen ditugun lehendabiziko aldia. Berriz ere gure inguruan bueltaka dabilen Erdizko harrobiarekin gauza bera gertatu zen. Dirudienez dena da zilegi diru hotsen aterkiaren azpian. Oparotasuna ekarriko omen dute bailara-ra, lana, turismo eredu berriak, bertako gaitz guzien sendabidea... Kontra gaudenak ordea, kobazuloetan bizi nahi dugun *cromagnonak* omen gara, turismoaren kontra gaudenak, landetxeen kontra, Baztanen lan egiteko aukera izateari uko egiten omen diogu... Hau guzia ez da nik asmatua, azken asteetan sare sozialetan irakurritakoa da.

«EGOERA DESBLOKEATZEKO SOLUZIO BAKARRA HERRIARI HITZA EMATEA DA»

Egoera desblokeatzeko soluzio bakarra gisa honetako pisua duten erabakietan herriari hitza ematea da. Erdizko harrobiaren kasuan, Batzar Nagusiak herri kontsulta bat gauzatze-prozedura abian jarri berri du. Gauza bertsua egin zuen *Aroztegia eta gero zer?* plataformak 2016an eta orduko galdeketa parte-hartzaileen gehiengo zabala proiektuaren aurka agertu zen. Aldekoek, berriz, ekimen hari aipua kentzeko hautua egin zuten. Ez dakit zergatik beldurtzen dituen gure etxean egin nahi duguna denon artean erabakitzeak. Nik, behintzat, aski begi onez ikusiko nuke horrelako iniziatiba bat. Baietak irabaziz gero, apaltasunez emaitza onartuz; baina ezezkoa nagusituko litzatekeen konbentzimentu osoarekin...

11 GALDERA LABUR

UXUE BALLARENA IRURITAKO GAZTEA

«Musukoa eramatean jendeak gaizki begiratzen ninduen»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Ameslaria eta bidaiaria den iruritar alaia.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Irakurtzea, bidaiatzea eta eskulanak egitea gehienbat.

Zer ari zara ikasten?

Arte graduko 3. urtea ikasten ari naiz Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako Arte Ederretako fakultatean.

Aurten Erasmus programarekin Letoniara joan zara ikastera. Zergatik harat?

Bai, Letoniako Arte Akademian nago. Egia erran, plaza hori onartzen ez banuen, Erasmusera joateko aukerarik galtzeko posibilitate aunitz nituen, eta pausoa ematea erabaki nuen.

Zer izan zen Rigara ailegatzean gehien harritu zintuena?

Musukoa eramaterakoan jendeak gaizki begiratzen ninduela. Bizitza normala egiten zuten han (kurtso hasieran, gaur egun ez).

Desberdintasun kultural handia nabaritu duzu?

Artista bezala, kulturaren sustapenak aunitz harritu nau. Hainbertze museotara sartu ahal izan naiz gutti edo ja ordaindu gabe. Ingeles maila ere arras ona da orokorrean eta erraza da komunikatzea.

Eta klaseak ematerakoan?

Unibertsitateko irakasleak ez dira jende arrunta, nire pisukide baten irakaslea Letoniako ministro ohia da eta nire pinturako irakaslea ere ezauna da hemen. Gainera, ikasle kopurua ttikiagoa daukate klase bakoitzeko eta askatasun



handia ematen dute sortzerako orduan.

Temperaturak hotzagoak izanen dira han, ezta?

Dudarik gabe. Neguan, egun hotzenetan -25°Ctan egongara. Orain beroxeago, baina Baztanen antzera.

Zein da koronabirusaren egoera han?

Aipatu bezala, irailean eta urrian musukoa eramaten bazenuen, gaizki begiratzen zizuten. Orain, berriz, leku itxietan derrigorezkoa da, kanpoan ez. Osta-

laritza zazpi hilabetez itxita egon da, maiatzean ireki dute. Orain txertaketa masiboa egiten hasi dira eta nahi duen edonork eskatzen ahal du. Nik ordua hartu dut dagoeneko, baina jendeak beldurra dio eta ez du txertatu nahi.

Zeren falta sumatu duzu gehien?
Eguraldi ona, lagunak eta familia gehienbat.

Noiz bueltatuko zara?

Ekain bukaeran itzuliko naiz eta egia erran kristoren gogoak ditut Baztanera joateko.

Bilduma berria

70. urteurrena
urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Leitzako mendi ordenantza eta PAC hektarea banaketa herri lurretan

JOSE JAVIER SESTORAIN, LURDES SORRON

Leitzako Udalak 2020an herri lurretako larreen ziurtagiriak emateko eduki zituen arazoak zirela eta, 2021eko otsailean mendi ordenantza berri bat aurkeztu zuen. Hasierako proposamenak itxaropena piztu zigun baserritik bizi garenoi. PACeko dirulaguntzak kobratu ahal izateko herri lurren hektarea banaketan abeltzaintza ogibide nagusi dugunoi (edo ATPei) lehentasuna emanez, aitortza bat egiten zitzaigulako.

Udalak, hainbat ekarpen jasota gero, azkenean hartu duen erabakiaren ondoren, ordea, gure poza etsipena bilakatu da. Izan ere, ikusirik eskatutako hektarea kopurua dagoen larre-azalera osoa baino handiagoa dela, abiapuntu moduan ziurtagiria eskatu duten gutzietan irizpide bera aplikatzea erabaki baitu, aintzat hartu gabe abeltzainon artean dagoen desoreka soziala. Hau da, jubilatzen edo lan bikoitza eduki eta gehiengoa osatzen duen multzoaren neurria egindako proposamena erabaki da.

Aspaldikoa da enpleguaniztun eta baserritik bizi garenon arteko talka. Lehenengoek, gehiengoa izanik, markatu izan dutelako maiz larre-tokien erabilera nolakoa izanen den. Horrela, egungo araudiaren arabera, baserritik bizi garenok gutxi aprobetxatu ditza-kegu. Batetik, gure maneiak eskatzen digulako urteko sasoi gehiengan azienta etxetik gertu edukitzea (jezteko ardiak esaterako) eta bestetik, larratze-ko sasoiaren ahariak eta zezenak inolako mugarik gabe libre ibiltzeak zaildu egiten digulako herri lurretara bidaltzea.

Bestalde, kezka garria iruditzen zaigu 1.500 eurotik gorako jornalak edo erretiro-saria kobratzen duten hainbat abeltzain izatea PACerako ha gehien jasotzen ari direnak. Honekin lortzen den bakarra enplegu-aniztasuna susta-

tzea delako. Non gelditzen da hainbat gizarte eragiletatik aldarrikatzen den lanaren banaketa?

Auzolanari buruz, egin den planteamendua gehiegizkoa da. Honetatik bizi garenak egunean 10-12 ordu sartuz gabilta aurrera ateratzeko, jai eta aste, sarri. Egin den auzolan-egun proposamenak lan gehiago bizkarreratu digu. Non da gure deskantsurako eskubidea?

Mendiaren kudeaketak denek beharra du. Baina lehentasunak beste bat izan behar du. Egun, gurea bezalako toki zail hauetan, baserritik bizitzea sustatu nahi bada ezinbestekoa da larreen kudeaketan diskriminazio positiboa egitea, bai maneiari dago-kionean, bai PACa kobratzeko hektarea banaketan, baita auzolanaren gaia antolatzerakoan ere.

Momentuko irtenbidea bilatze-tik etorkizuna modu estrategikoan lantzen pasa behar dela uste dugu, helburuak ahalik eta jende gehienak baserritik bizitzeko aukera bermatuta edukitzea izan beharko lukeelarik.

Maiatza

BEGOÑA ZABALETA

Kalendako bosgarrena
zaittugu maiatza
primabera betea osoa
udalehen plenitutea
udako larrain eta ataria
zaittugu maiatza

Amabirjin eta lore kuku kanta eta salbe
nekazari gurutz egun eta seinale
plaza erdian maiatza jarri dute
pago luze eta tente
leiho zabal honetatik
ikusten dot berpiztutako lurre.

Leitzelarre gure baso eta larre
lur emankor gozo eta eze
arbasoen bizileku paregabe
trikuharri ikatz plaza eta mehatze
zure magalean egur
haritz eta pago landare

BOTA BERTSOA

JOXE MARI
FAGOAGA
ITURENGO
BERTSOLARIA



Lehena eta oraina

Doinua: Aita izena kanta beharrak

*Etxean aita ta osaba zaharrak
Halamoduz erakutsi
Haien ondoan bertso zaharrak
Entzunez ninduten hazi
Bertsoak zenbat silaba zitun
Jakin gabe kantuz hasi
Doinu bat hartu berari segi
Hitz eta errimez jantzi
Bertso eskolik ez zen garaian
Ahal zen moduan ikasi.*

*Geroztik hona bertso eskolek
Aunitz egin dute gora
Ni ez naiz egon baino seguru
Hobekuntza izango da
Buruan ongi prestatu eta
Dakiten dena kanpora
Bertsolari on aunitz badaude
Bertsolaritzan mejora
Nik aspaldian ez dut kantatzen
Baina entzun bai gustora.*

*Maiatzean azindak zuri begira daude
harako mire non galdu ote da mihe
behi gorritz eta aberez estali da Mendibille
zintzarri uztai eta kulunke
zure ur soinu eta txorien kanten doinue
ez daittela ixildu sekulen.*

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

(*-en) barne egon

Ez da zuzena **-en barne egon* esapidea; *-en barnean egon* eta kideko esapideak erabiltzea da gomendia. Hona hemen adibide batzuk:

- *Kafea ere prezioaren barne dago > Kafea ere prezioaren barnean dago.
- *Ariketak ere unitatearen barne sartu dira > Ariketak ere unitatearen barnean sartu dira.

Bertzerik da *izan* aditzarekin erabiltzen denean 'barne':

- Prezioan, kafea barne da.
- Salneurria 5.000 pezeta dira, zergak barne (direla).
- Ekainaren zortzitik hamabira, egun biok barne (direla).

Bitxikeriak

Osatu *Aldapeko* kanta! Nafarroako ahozko ondaretik hartutako kontuak eta kanta biltzen dituen *Xaldun Kortin*, Jolastu gurekin! egitasmotik hartua da, zehazki Etxalarren bildutakoa.

Aldapeko sagarraren
adarraren _____,
puntaren puntan,
txoria zegoen _____:
txiruliruli, txiruliruli!
Nork dantzatuko ote du
_____ hori?

Bagerala, ez gerala _____
eta _____,
nonahitikan biltzen dira
egitera besta,
mila sorgin, dantzari
_____.
Txiruliruli, _____!
Nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Zein da zuzena?

*'Iritziz aldatu dut' edo 'Iritziz aldatu naiz'?

Euskaltzaindiak berriki oroitarazi duenez, «iritziz aldatzekotan, ongi aldatzea komeni da».

Aldatuk bi aditz-erregimen onartzen ditu: *du* eta *da*.

-(*du*) Nik neuk aunitz aldatu dut langela. Liburuak tokiz aldatu ditu. Iritzia erabat aldatu du.

-(*da*) Ni neu aunitz aldatu naiz. Iritziz aldatu naiz (*Iritziz aldatu dut). Laster aldatuko gara etxez (iritziz, mailaz, jertsez...).

Iritziaren kasuan, 'iritziz aldatu naiz' eta 'iritzia aldatu dut' baliokideak dira. Baina ***iritziz aldatu dut'** ez da zuzena.

Zenbaitetan nabarmena da aldea:

-Ohatzez aldatu naiz = ohatze batetik bertzera pasatu naiz.

-Ohatzea aldatu dut = ohatzeko maindireak aldatu ditut edota orain bertze ohatze bat daukat.

-Ohatzea lekuz aldatu dut = orain bertze leku batean daukat ohatzea.

«Protestarako indarra dagoen bitartean antzerkia egingen dugu»

GAIZKA SARASOLA IARZABAL LESAKAKO ANTZERKIGILEA, MUSIKARIA ETA AKTOREA

Sarasolaren bi antzerki obra bilduz 'Zerrakuretan' liburua argitaratu dute Susa argitaletxeak eta Euskal Herriko Antzerkizaleen elkarteak Ganbila bildumaren barrenean

G. PIKABEA | LESAKA

Antzerki «herrikoitzat» du bere lana Gaizka Sarasolak (Lesaka, 1974), bertzeak bertze, «herriko eta inguruko lagun artean egingina» delako eta herrian eta inguruan «ikusi, aditu eta bizitakoarekin» osatzen duelako mamia. «Kezkek» ematen diote antzerkia idazteko bide, eta hala gozatzen du, antzerkia idatziz, muntatuz eta antzeztuz. 20 urtetik goiti ditu horretan, eta bidean bi antzerki liburu argitaratu ditu: 2016an *Erleak, satorrak eta beleak*, eta berriki *Zerrakuretan*, 2018an estreinatu zuten *Txoriak eta Zauriak* eta aurten taularatu duten *Iluntzen* antzerkiak bilduz.

Antzerkigintzan ez zara hasi berria. Nolako izan zen hasiera?

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak gazteak euskararen munduan mugitzeko gorputz adierazpenari buruzko ikastaro bat antolatu zuen eta horrela hasi zen dena. Lagun batzuk zerbait gehiago egiteko gogoz gelditu ginen eta gaztelerako testuak euskarara itzulita antzerkiak egiten hasi ginen. Horrela sortu genituen *Trizikloa* eta Zugarramurdiko sorginen inguruko antzezlana. Gero gure testuak sortzen hasi ginen.

Mairu Antzerki Tailerrarekin ibili zara. Taldeak zer martxa izan du?

Talde amateurra gara, eta bulkadaka funtzionatzen dugu, proiektu bat sortzen bada, harekin aitzinera eginez. Gazteagoak ginenean, eta denbora gehiago genuenean, indar

gehiago egiten genuen. Gero, lana, familia... uztartzea zaila izaten da eta urte batzuez nahiko utzia izan genuen. Hala ere, Keinu Leihoak jardunaldiak hasieratik eutsi diegu. Azken urteotan berriz ere hasiak gara.

Zer moduzko lana da *Zerrakuretar*?

Taularako egindako bi lanen ondorioa bertzerik ez da. Normalean, emaitzarekin gustura gelditzen naizenean ematen ditut testuak bukatutzat eta bi antzezlana horiek taula gainean izan duten emaitzarekin ere kontent gelditu gara. Hortik aparte, Manex Fuchsek eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak lagun batek hitzaurre politikak egin dituzte eta azala ere polita gelditu da. Liburua nola gelditu den gustatu zait.

Nondik datorkio izenburua?

Bi antzezlana izanda, zaila izaten da titulu bat bilatzea. Kasu honetan, azalak eman zidan izenburua aukeratzeko pista bat. Azalean zerrakura bat ageri da eta gainera antzezlana batean aipatzen den toki batean ateratako argazkia da. Horrez gain, bi antzezlanean pertsonaiak nolabaiteko mugen barrenean daude, itxitura batean baleude bezala. *Txoriak eta Zauriak* lanean, gordean ba-

«ANTZERKIAK ZER GAREN ERAKUSTEKO BALIO DEZAKE»

besa bilatzen dute, eta *Iluntzenen* beraien mugetatik aparte itxaropena bilatzen dute.

Manex Fuchsek hitzaurrean dio ez duzula antzerki erraza idazten...

Niri erraza egiten zait, baina onartu behar dut antzerkiaren haria segitzeko ikusleak jarra aktiboak izan behar duela. Uste dut zentzu horretan erraten duela Fuchsek. Testuan informazio eta eduki aunitz ageri dira, eta ikusleak, ulertu nahi badu, burua erne eduki eta interesa paratu behar du.

Antzerki herrikoa da zurea?

Bai. Antzerkia egiten dugunak herriko eta eskualdeko lagun batzuk gara eta lantzen ditugun gaiak gure komunitateari edo inguruari lotutakoak dira. Antzerkiak sortzeko inguruan ikusi, aditu edo bizitzen dugunetik elikatzen gara eta alde horretatik herrikoa da.

Hitzaurrean antzerki herrikoa sortu nahi duenak lanak izaten dituela leitu dugu. Zaila da?

Antzerkia idaztea ez zait zaila egiten. Erne egon, barneratu eta ganbaran pilatutakoa antolatu eta antzezlana baten bidez kanporatzeko bidea bilatzea da kontua. Hobekiago edo okerrago egingen dut, baina aunitz disfrutatzen dut.

«AGERTOKIETAN EZ DAGO SORTZEN DIREN LAN GUZTIENTZAT TOKIRIK»

***Txoriak eta zauriak* antzezlana 2018an aurkeztu zenuten. Zein bide egin zuen?**

Ez nahi bezain luzea. 2018an eta 2019an sei-zazpi saio egin izanen genituen. Talde amateur izanda, zaila da eskualdetik kanpo oihartzuna izatea eta pentsatzen dut *Iluntzen* lanarekin berdin gertatuko zaigula. Ekainean Gipuzkoan emanaldi bat izanen dugu eta hortik aitzinera mugitzen saiatuko gara, baina konplikatu da. Zirkuitu ttikia du euskarazko antzerkiak, ez da behar adina inbertitzen eta aunitz dira, estreinatu arren, emanaldi aunitzik gabe gelditzen diren lanak. Guk ere gehiago nahi genituzke, baina ez da inolako trauma guretzat, ez baitugu ogibide eta gustatzen zaigulako egiten baitugu. Lana sortu eta emanaldia egitearekin nahiko asebateak gelditzen gara.

Aurten estreinatu duzue *Iluntzen*. Zer moduz atera zen?

Bai Lesakan egin genuen estreinaldia baita Berako saioa ere ongi atera ziren. Emanaldiak ez dira sekula berdin-berdinak izaten eta beti izaten da zer findu edo zer hobetu, baina orokorrean hagitz kontent gelditu ginen eta jendearen gustukoak izan zela irudituz gaitzaigun, lan txukuna egin eta baloratu zutela sentitu genuen.

Industriaren gainbehera gaitik hustutako herri bati buruzkoa da *Iluntzen*. Herri horrek badu izenik?

Bai, Lesaka izan daiteke edo Euskal Herriko bertze edozein herri. Europa berari ere pasatzen ari zaio, zaharkitua gelditzen ari da. Poliki-poliki husten eta itzaltzen ari diren herri aunitz daude. Industrializazioarekin herriak handitzen ikusi ditugu, ostatuak eta komertzioak sortzen eta etxeak egiten. Lan egiten zen garaiak ziren, baina ongi bizi ziren. Orain, ordea, sistema honekin, hori dena agortu da eta hemen bizitutako bertze lekuetara eraman nahi dute. *Iluntzen* antzezlanean bezala, gure herria erakargarri bihurtu nahian ari gara, turismoarekin jendea kanpotik

erakarri nahian, eta gauza erakargarri horietan dugu itxaropena, baina ez dakit hori den etorkizuna edo sistema honi buelta eman eta bertze modu batera bizitzeko garaia den.

Zergatik gai hori?

Ikusten duguna da, eta ikusten dugunetik bizi gara. Desindustrializazioa, lana galtzea, gazteak kanpora joatea, fabrika gero eta hutsago egotea, itxaropena turismoan bilatzea... Hori dena ikusten ari gara eta antzerkiak jendeari zer garen erakusteko edo hausnartzeko balio dezake. Nik ez dut soluziorik, arazoa planteatu bakarrik egin dut. Hortik aitzinera soluzioa duen jende argiagoa baldin bada, hobe.

Zenbat du errealitatetik eta zenbat fikziotik?

Ez dakit fikzioa zein neurritan ez den errealitatea. Kristobal pertsonaia, adibidez, Iturengo Kristobalen kantatik hartua da. San Kristobal bidaiarien patroia zen, ibaia gurutzatzen laguntzen zuena, eta kantak dio Kristobal urtu zutela joareak egiteko. Azken batean, Kristobal maingua uzten baduzu ez duzu bidaia egiten eta ez duzu jendea guregana etortzen uzten. Nahiz eta itzaltzen ari garen, muga paratzen segitzen dugu eta ibaian ez, baina itsasoan jendea itotzen ari da. Bere garaian joareak egiteko Kristobal urtu zuten bezala, guk ez diogu jendeari itsasoa gurutzatzen laguntzen. Dena nahi izate horrek gu baino behar handiagoa dutenei laguntzea eragozten digu. Shepherd jauna da bertze pertsonaia bat, industrializazio garaian, Inglaterratik etorri ziren ingeniariak irudikatu nahian sortua. Dena fikzioa da, baina errealitatetik edo kondairatik abiatuta egina.

Nahita edo ez, antzerkian gai ilunak aukeratzeko dituzula uste duzu?

Ez ditut nahita aukeratzeko, eta idazterakoan ez naiz ilun egoten; gogoan, kontent edo argi ez banengo, ez nuke eginen. Baina kezkak edo haserre sortzen dute idazteko beharra eta orain arte gai ilunak tokatu dira. An-



Antzerkiaren sormen prozesuan gozatzen duela dio Sarasolak, bereziki «idazterakoan eta muntatzerakoan». TTIPI-TTAPA

tzerkia sorrerarik protesta egiteko tresna bat izan da, konforme ez gaudena kritikatzeko. Antzerkia egiteko motiboak ez dira desagertzen eta protestarako indarra dagoen bitartean antzerkia egingen dugu.

Musikaria izanda, zenbateko presentzia du musikak zure lanetan?

Musika dezente erabiltzen dut. Antzerkia idazterakoan dena ahalik eta hobekien irudikatzen eta zehazten saiatzen naiz, eta soinuek garrantzia baldin badute hori ere testuan idazten dut, baita isiluneak ere. Antzerki bakoitzerako musika bat bilatzea gustatzen zait, eta pertsonaia bakoitzaren mugimenduak, begiradak edo hitzak nola izan daitezkeen irudikatzeo musika erabiltzen dut.

Aktorea ere bazara... Idaztea edo antzeztea duzu nahiago?

Bereziki sortzen gozatzen dut, idazten eta muntatzen. Emanaldietan ere ongi pasatzen dut eta guttien gustatzen zaidana emanaldiak zabaltzen saiatzea da, jendeari galdeka aritzea. **Mugarik izaten duzu idazterakoan?** Gaitasunaren mugatik aparte, normalean nahiko libre sentitzen naiz, baina batzuetan norbait mintzen ahal dela pentsatu izan dut, eta holakoetan autozentsura agertzen da. *Txoriak eta Zauriak*en sentsazio hori hagitz presente izan nuen. **Antzerki gehiago idatziko dituzu?** Ideiak badituz, eta antzerkia idazten segitu nahi dut. Espero dut taldean ere antzeztzen segitzea. Oraingoz, *Iluntzen*

zabaldut nahi dugu eta horren ondotik, indarberrituta, ea bertze zerbaitekin hasten garen. **Nola ikusten duzu euskarazko antzerkigintza?**

Sormen aldetik hagitz osasuntsu dago, lan aunitz egiten dira, baina agertokietan ez dago denentzako espaziorik, eta bizia hortik atera nahi duenarentzat traumatikoa izan daiteke. Horrekin batera, azken boladan lagun bateko lan gehiegi daudela uste dut. Errentagarri izateko nahiak antzeztan aunitz aktore bakarrekin edo birekin egitera mugatzen ditu, eta horrek gai pertsonalak bakarrik lantzea garamatza. Komunitateari lotutako gai kolektiboen, sozialen eta politikoen falta sumatzen dut.



Ezkerretik hasita Eloy, Ana, Aimar eta Jesus Madrildik bueltan lehenbiziko aldiz Legasara, Anaren gurasoen etxera, etorri zirenean.

Transplante bati esker berriz jaio balitz bezala

Urte mugitua izan dute Ana Hernandez narbartearren etxean, seme jaioberriari miokarditis dilatatua zuela detektatu eta hil ala bizi eduki dutelako. Bihotzeko transplante batek salbatu dio bizitza. Tarte honetan bizitakoa kontatu dio Hernandezek TTIPI-TTAPARI

G. PIKABEA | NARBARTE/LEGASARA

Joan den apirilaren 19an urtea bete zuen Eloy Sanchez Hernandezek, eta urtebetetze-eguna gogotsu ospatu zuten familian. Bertze edozein umeren besta izan zitekeen, baina Eloyren etxean bazuten ospakizunetarako bertze arrazoi bat, izan daitekeen handiena: Eloy beraiekin dutela.

«Hilabete gogorak» pasatu dituzte Sanchez-Hernandez familian, bihotzeko arazoak tarteko, etxeko ttikia hilzoriaran ikusi baitute, eta ospitaleratzek, ZIUan egonaldiak, bihotz-gelditzeak, iktusak, konbultsioak, ebakuntzak, makinaren huts egiteak... Denetarik ezagutu dute. Zorionez, ordea, bihotza transplantatu ziotenetik hori iragana bihurtu da.

Transplantari esker, «Eloy berriz jaio dela» sentitzen du

Ana Hernandez Zozaia amak (Narbarre, 1987). Narbartearra da sortzez, legasarra bihotzez, baina Berriozar du bizileku. Hantxe bizi da Jesus senararekin eta Aimar (13 urte) eta Eloy semeekin (urte bat). Hunkituta, begiak malkoz beteak dituela, mintzo da sufritu dutenaz, baina kontatu nahi du, eta, bide batez, «egoerarik makurrenean ere itxaropen mezua» zabaldu nahi izan du.

Koronabirusaren beldur

Pandemia betean jaio zen Eloy, amaren arabera, «haurdunaldi on» baten ondotik. «Apirilaren 6an jaiotzekoa zen, baina azkenean 18an probokatu behar izan zidaten eta biharamunean jaio zen. Dena ongi ateratu zen». Bi egunen buruan bidali zuten etxera, «pediatrik erditzean aldakan luxazio ttiki bat izan

zuela detektatu zion eta hankartean kuxin bat paratu zion, baina deus berezirik ez».

Hernandez etxean konturatu zen zerbait ez zihoala bide onetik: «Eloy agudo arnasten zuen, bularra hartzerakoan ito behar zuela ematen zuen, zurixka zegoen eta aunitz izerditzen zuen». Horixe bera aipatu zion pediatriari haurraren lehenbiziko hilabeteko mediku-azterketan: «baina pediatrik ez zela deus ere pasatzen erran zidan, auskultatu zuela eta ez zuela deus arrarorik ikusi».

Kontu bera erreplikatu zen bigarren hilabeteko azterketan, ekain erdialdera: «Eloy izerditan blai egoten zen, tantaka, baina eskuak beti hotzakizaten zituen eta arrunt zuri segitzen zuen. Gero eta agudoago arnasten zuela ikusten nuen. Ordurako bularra edateari utzia

zion ito egiten zelako eta bi-beroa ematen hasia nintzen». Baina pediatrik «lasai egoteko» erantzun zion: «haurrek helduek baino agudoago arnasten dutela, izerdia beroaren eta kuxinaren ondorio izanen zela, eta zuri egotearena pandemia betean kanpora ateratzen ez nuelako eta D bitamina falta zuelako izanen zela erran zidan. Pediatrik hori erranda, ez nintzen kontra egiten hasiko...».

Halaxe segitu zuten, uztailearen 3an, «lehenbiziko ostikoa» hartu zuten arte. Oroimenean ongi iltzatua du egun hori, baina ondokoak ere. «Egun hartan, haurrak jateari utzi zion eta ez tulka hasi zen. Kanpoan ibilia nintzen eta koronabirusa ote zuen pentsatu nuen. Sukarra hartu eta 37,5 gradu zituela ikusi nuen». Hernandezek kontatu duenez, «egoera arrunt batean, sanferminen atarian eta sukar puntu horrekin, ez litzaidake okurrituko haurra ospitalera eramatea. Baina Covid-19a izan zitekeela eta, 112ra deitu nuen eta larrialdietara eramateko erran ziguten». Halaxe egin zuten.

Kardiopatiaren diagnostikoa

Koronabirusik ez, hori baino makurragoa izan zen diagnostikoa: «PCR proban negatibo eman zuten, baina haurrak ongi arnasten ez zuela ikusita, plakak eta analisiak egin behar zizkietela eta kardiologo bati deitu behar ziotela aipatu zidaten». «Hitzik gabe» gelditu omen zen: «Horixe zen jaio zenetik behin eta berriz erreplikatzeko ari nintzena».

Kardiologoak eman zion berriak lur-jota utzi zuten: «miokarditis dilatatua zuela erran zidan, haurra larri zegoela». Larritasuna ezjakintasunarekin nahastu zitzaion: «Ez nuen deus entenditzen! Ez nekien zer zen. Hil zitekeen galdetun nion, eta bere erantzuna haxe izan zen: 'Ezin dizut erran, baina hagitz larri dago. Birrikak odolez beteak ditu eta Madriler deitu behar dugu, Iruñean bera artatzeko bitarteko justuak

ditugulako eta han ohatze bat libre gelditu orduko harat eraman behar dugu. Bitartean, lehenbailehen ZIUra eraman behar da eta oxigenoa eta biriketako likidoa kentzeko medikazioa paratu'. Shock izugarria izan zen», dio hunkituta. Hala jakin zuen Eloyk bihotzaren ezkerreko bentrikulua ohi baino handiagoa zuela eta ez zuela odola ongi xurgatzen. Horren ondorioz, odola biriketaraino sartzen zitzaion.

Lanean zegoen senarrari deitu zion Hernandezek eta segituan joan zen ospitalera: «ez genuen sinesten». Ondoko egunetan ere kolpeak bat bertzearen ondotik etorri ziren, eta lehenbizikoa, ospitaleratu eta biharamunean: «gauez ZIUan ezin genuenez egon, etxera joanakin. Han geundela, Eloy zer moduz zegoen jakiteko gogoz ospitalera deitu genuen. Larrialdi batean zeudela eta ezin zigutela erantzun erranez deia moztu zuten. Ordu erdiren buruan deitu ziguten». Larrialdi kasu hura Eloyrena zen. Etxetik ospitalerako bidean, «Hilko da? Hilko da? Ez nintzen bertze deus errateko gai, baina zorionez ongi ateratu zen. Eloyk hamar minutuko bihotz-gelditzea izan zuen, baina erreanimatzea lortu zuten», kontatu du malako artean amak.

Hasierako ordu eta egun haiek «negarrez» pasatu izana oroitzen du: «Jesussek medikuei aditzen zien baina ni ez nintzen gai hori dena barneratzeko, negar bertzerik ez nuen egin». Aimarrek ireki zizkion begiak: «Eloyk behar ninduela erran zidan, ezin nuela horrela segi eta gogoregin behar nuela». Orduantxe hasi zen egoera «bertze manera batean hartzen».

Iruñetik Madrilerako bidea

Hiru egunen buruan ailegatu zen Madrilerako joateko eguna, uztailaren 6an. «Seme zaharrena nire eta Jesusen gurasoekin utzi genuen eta Jesussek eta biok Madrilerako joateko goizeko lehenbiziko trenan hartu



Eloy Gregorio Maraño ospitalean, telebistari begira.

genuen». Hasiera batean, Eloy Madrilerako helikopteroz eramatekoa omen zuten baina «gu bidean ginela, Iruñetik helikopteroz noiz aterako zuten jakiteko deitu genuenean, ambulanzian eramanen zutela jakinarazi ziguten, bere egoera hagitz delikatu zelako eta bihotza geldituz gero, helikopteroan ezin izanen zutelako erreanimatu. Ordu bateko bidaia izan behar zuena, azkenean sei ordukoa izan zen, aterakontuak zer nolako orduak izan ziren guretzat. Eta tarte horretan gu Madrilen, Gregorio Maraño ospitalean, ezagutzen ez dugun toki batean eta izuaren etxea deitzen diodan toki horretan, semea Iruñetik ateratzeko esperoan».

«COVID-A ZUELA USTE GENUEN ETA BIHOTZKO ARAZO LARRIA ZUEN»

Semea ambulanzian Madrilerako ospitalera ailegatu zeneko momentua ere ez du atzendua: «Ambulanzia gorri hura Madrilerako karraketan ikustea, sirenarekin, eta barrenean semea zegoela pentsatzea... Oraindik ere, bereziki Madrilen, ambulanziaz ikusita barrena mugitzen zait».

Deus gabe Madrilen

Larrialdi momentu hartan, esku hutsik jo zuten Madrilerako, Hernandezek dienez, «deus gabe. Ez zitzaigun bertze deus inporta». Baina epe luzeko kontua izanen zela ikusita, Salestarren atea jo zuten: «Jesussek Iruñeko Salesianos ikasketxean ikasi zuen eta hango zuzendariak lehendik ere bio

«EGOERARIK MAKURRENEAN ERE ITXAROPENA EZ DA GALDU BEHAR»

aunitz lagundua zigun. Madrilerako Salestarretara joana zela jakin genuen eta beso zabalak hartu gintuen. Gela bat utzi zigun eta bihotzez eskertzen diogu».

Gela hartan pasatutako orduak eta orduak, «luzeak eta zailak» izan omen ziren. «ZIUan bietako bat egoten ahal ginen eta gainerako orduak hagitz gogorak izan ziren». Ez da guttiagorako: «Ondoko egunetan eta asteetan behar ziren probak guztiak egin zizkieten, tratamendu eta medikazioa aunitz paratu zizkieten, Eloy egonkor mantendu eta berearekin zer egiten ahal zuten ikusteko». Bereak eta bi pasatu behar izan zituen. «Iruñeko bihotz-geldiketaren ondorioz, zentro-basalean orban batzuk atzeman zizkieten, eta Madrilen egon zen lehenbiziko asteetan iktus ttiki batzuk eta konbultsio aunitz izan zituen». Ebakuntza bat ere egin zioten, «baina ez zen ongi atera eta Eloyren bihotza uste baino makurrago zegoela ikusi zuten». Gehiago ere bai. «Gaixoak hainbertze likido zuen, baloi bat bailitza hazi baitzen», dio amak hunkituta, eta «kateterrean giltzurruna ukitu ziotenez, martxan paratzeko eta hazitasun hori jaisteko makina bat jarri zioten. Aldi berean, birrikak huts egiten ziotenez eta bihotza hari batetik zintzilik hagitz ahul zuenez, Ecmo makina ere paratu behar izan zioten, bihotzaren eta biriken funtzioa egiteko». Hura ikustea ere «hagitz gogorra» egin zitzaion Hernandezi: «deputik kanulak ateratzen zitzaizkion, banderillak bailiran». Eta hori guztia arriskua bazuela jakitun: «ez da komeni haur bat makina horrekin egotea, huts egin dezake eta tronboak eragin ditzake eta horrek maila neuro-nalean eragin».

Hiru aldiz bihotza geldirik

Ecmo makinarekin egun batzuk egin zituen eta «astebetera, kendu edo ez, eta transplantatzeko itxaron-zerrendan →

sartu edo ez erabakitzen ari zirenean, makinak akats elektriko bat izan zuen». Eguna ez du atzenda: «abuztuaren 1a zen, nire urtebetetze-egunaren bezpera, eta opari ederra hartu nuen. Ordurako pisu bat hartu genuen Madrilen, eta ospitaletik ateratzear hara abiatuak ginen, bertze batzuei medikuak Eloyrekin ari zirela aditu genienean. Segidan igo ginen goiti, eta medikuak, erizainak, laguntzaileak... denak Eloy erreanimatzen aurkitu genituen, Ecmoak huts egin zuelako. Bertze Ecmo makina bat ekarri zuten baina hark ere huts egin zuen eta hirugarren bat konektatu zioten». Bertze susto handi bat: «sei minutuko bihotz-gelditzea izan zuen, eta medikuek ezin zuten ulertu nola, baina bizirik atera zen».

Handik egun batzuetara erabaki zuten bihotzeko transplantatea egiteko itxaron-zerrendan sartzea: «Berez, neurologikoki bizi-itxaropenik ez badute, ez dituzte transplantatzen. Eloy ez zuten neurologikoki aztertu, baina aukera ematea erabaki zuten eta itxaron-zerrendan sartu zuten. Bizitza guztian eskertuko diegu».

Kontent hartu zuten berria, baina sufrimendua ez zen hartan akitu. Zerrendan sartu eta biharamunean, «bizirik mantentzeko, bihotz artifiziala paratu behar ziotenean, hirugarren aldiz, Eloy hiru minutuko bihotz-gelditzea izan zuen». Orduantxe galdu zuen itxaropena Hernandezek, «'honnaino ailegatu gara,' pentsatu nuen. Ez nuen espero handik aterako zenik». Baina atera zen, «hirugarrenean ere atera zen».

Transplantea

Bazekien Eloyrendako bihotza «hiru, sei edo hamabi hilabeteren buruan, edo biharamunean» etor zitekeela, baina berehala ailegatu zen: «Hirugarrenez bihotza gelditu zitzaionetik egun batzuk pasatuak ziren eta telefono zenbaki luze madarikatu hartatik deia ikusi genuenean berriz zer gerta-



Ana Eloyrekin, lehenbiziko aldiz desintubatu zutenean.



Eloy urriaren 16an, Madrilgo ospitalean alta hartu eta etxera abiatu ziren egunean.

tu ote zen pentsatzen hasi ginen». Telefonoaren bertze aldekoak emandako berria, ordea, ona izan zen: «bagenuen organo-emailea! Ezin genuen sinetsi!». Hortik aitzinera argia ikusten hasi ziren. Transplantearen ebakuntza «hagitz ongi» atera omen zen: «bederatzi orduko ebakuntza izan zen, baina bihotza paratu eta segituan ponpatzen hasi zen».

Organo-emailearen senitatekoak ere gogoan izan ditu Hernandezek: «Ez dugu sekula jakinen nondik etorri zen bihotza, baina familiak dolu betean, bertzeengan pentsatu zuten. Hori izugarria da. Gure semearen bizitza salbatu zuten». Aitortu digunez, «ez dakit zer den itxaron zerrendan egoitea, baina bai zer den hain denbora laburrean sufritzea. Transplantatu aitzinetik semea egunero agurtzen nuen, banekielako akaso ez nuela berriz ikusteko aukerarik izanen». Baina aitzinera egin zuen. Abuztuaren 27ra arte mantendu zuten Madrilgo ospitaleko ZIU-an, eta zainketa berezitik aterata urriaren 16ra arte ospitalean egon zen. Urriaren 16an bueltatu ginen etxera, emozioz gainezka», adierazi du.

Tontakeriak alde batera

Geroztik «bizitza erabat aldatu» zaio Hernandezi: «bizitza gehiago baloratzen ikasi dut: Zorixarrez, tontakeria aunitz ditugu eta ez gara kontziente zer den egiatan inporta duena». Berak, ordea, eguneroko ekin-tza xumeei garrantzia ematen ikasi du: «Hiru hilabete eta erdiz Madrilen egon ondotik, Eloy besoetan etorri eta Aima-rren poztasun aurpegia ikustea izugarria izan zen» edo «seme zaharrena gazteenari pure ematen ikusteak hunkitzen nau. Batzuentzat huskeria izan daiteke, baina niretako bi semeak ikustea zoragarria da».

Egoera zailetan jendeak, «betan zer gertatzen den jakin gabe», ematen dituen aholkuek ere mintzatu da: «'Ulertzen zaitut, gaixoa...'. Horrela aritzen

gara, baina aunitzetan hobe da isilik gelditzea. Maitasuna eman daiteke eta eskertzekoa da, baina norberari gertatu arte inork ez daki zer den hori».

Aimar izan zitekeen

Aimarrez ere harro dago, agerikoa da hori amaren solasetan. «Aimarren paper garrantzitsua» nabarmendu du: «Benetako txapelduna izan da. Bere dolua izan du, baina hagitz indartsua izan da eta aunitz lagundu digu. Etengabe berarekin harremanetan izan gara eta ospitalean bere audioak Eloyri paratzen genizkionean ikusi egin behar zen tikiak nola erreazionatzen zuen. Orain ere denbora aunitz pasatzen dute elkarrekin, eta anaia zaharrena ikustean arrunt kontent jartzen da».

Bertzetik, «Aimar ere egoera beretik pasa zitekeela» onartu du: «Jesus eta bion geneek bihotzeko arazo hauek sor ditzakete eta azterketa genetikoak egiten ari gara. Ez dugu emaitzarik, baina duela 13 urte Aimarri gauza bera gertatzen ahal zitzaiola erran dигute».

«Berriz jaio da»

Denaren gainetik, hala ere, «zorte handikoa» sentitzen da Bertizaranakoa, eta «egunero Eloyren irria ikusi ahal izateko» bidelagun izan dituen guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie, bereziki osasun arloko profesional guztiei. «Gure salbatzaileak izan dira». Bere ustez, argi dago «medikuengan konfiantza izan behar dela, euren lanean sartu gabe. Gure kasuan, elkarren arteko laguntza izan zen: ahal zuten guztia egin zuten Eloy salbatzeko eta guk semearekin behar zuten guztia egiten utzi genien, jakinda semea hil zitekeela».

Pequeña Guerrera kardiopatia duten haurren familien Nafarroako elkarte eta Hiru Hamabi garuneko kaltea jasan duten adin ttikikoen familien elkarte ere gogoan izan ditu, «eskerrik asko»; baita «senarra eta Aimar ere: «gertatu zaigunak gehiago elkartu gaitu».



Aimar –ezkerrean– eta Eloy –eskuinean– anaiak jostetan. Elkarrekin «denbora aunitz» pasatzen dutela dio amak.

Hortik aparte, dena hutsetik hasita, egunerokoa segitzen dute eta Hernandezek bere zaintzarako baimen berezia hartua du. «Eloyk botika aunitz» hartzen dituela azaldu du amak, «lehen 11 eta orain bederatzia, eta batzuk bizitza guztian hartu beharko ditu». Haurtzaindegira ezin du joan, kutsatzeko arriskuagatik: «bihotza errefusatzan ez duela ikusteko denbora jakin bat pasatu behar da, eta horregatik edozein seinale dela ere, sukarra, goitika edo beherakoa, Madrilera deitu behar dugu». Horrekin batera, «neurologikoki beti segimendua» egingen diotela aipatu du, «hainbertze denboraz makinekin egon delako. Ikusiko dugu lau urteren buruan zer

gertatzen den, baina orain badirudi ez dela deus pasatu».

Errehabilitazioa ere joaten da eta «ederki etorri zaio. Ospitalean hainbertze denbora egoteak psikomotrizitatean eragiten du eta Eloyk dena berriz egin behar izan du, berriz jaio balitz bezala izan da. Ez zekien zurruputzen eta jaten berriz ikasi behar izan du. Errehabilitazioari esker zutik jartzen da, hobeki jaten du... Bertze haurrak baino beranduago, baina hagitz ongi dago».

«Miraritzat» du gertatu zena, eta «seme-alaben mina baino handiagorik deus ez dela» eta «egiata arrunt gaizki pasatu» dutela argi utzi du. «Oroitzean negarrez hasten naizela» ere azaldu du, «oraindik emozio

aunitz ditut...». Baina halako egoeratan «itxaropena izatearen» garrantzia ohartarazi du: «Madrilen denarik ikusi egiten, joan direnak eta gelditu direnak eta zorionez, Eloy gurekin dugu. Duela urtebete norbaitek itxaropena ez galtzeko erran izan balit, pikutara bidali izanen nuen, baina ez da etsi behar». Lasaitasunaz ere aritu da: «gure onetik atera gaitzke, baina lasai egoten saiatu behar dugu». Eta bukatzeko «baikortasuna» nabarmendu du: «baikortasunak indar handia ematen du. Niri umoreak minari gogor egiten lagundu dit. Bere ondoan negarrez egon beharrean, brometan, irriz, liburuak leitzen, istorioak kontatzen... egoten nintzen, nahiz eta bera sedatua egon». Areago, «bakoitzak do-lua bere modura garatzen du eta nik garbi nuen semea momentu batetik bertzerara hil zitekeela. Horri alde ona atera eta momentuz hor nuela pentsatu nahi izan nuen».

**«EGUNERO SEMEA
AGURTZEN NUEN
GEHIAGO IKUSIKO
EZ NUEN BELDUR»**

**«TONTAKERIAK UTZI
ETA BIZITZA
GEHIAGO BALORATZEN
IKASI DUT»**



Landaburuko Borda landetxearen proiektua Jordi Hidalgo arkitektoak egin du.

Landaburuko Bordak arkitektura saria irabaz dezake

Kauleko landetxearen proiektua Espainiako Biurteko Arkitektura eta Hirigintza Sariako finalista da

TTIPI-TTAPA

Espainiako Biurteko Arkitektura eta Hirigintza Sarirako (BEAU 2021) finalista da Jordi Hidalgo Tané arkitekto katalanak egindako Berako Landaburu borda landetxearen proiektua. Denera 581 proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara, horietatik ehun aukeratu zituzten eta 70 sartu dira finalean. Horien artean 20 proiektu adierazgarrienak sarituko dituzte.

Landaburu Borda Kaule auzoan dago, baserri eta belai artean. Garai bateko borda zaharra hustu egin zuten,

zaharberritu eta bertan egokitu zituzten logelak. Horretaz gain, mendian «durperatutako» egongela eta sukalde eremu zabal bat proposatu zuen Jordi Hidalgo arkitektoak, paisaia ikusten den leize bat bezalako. Bordako logelak eta egongela-sukalde eremua kristalezko pasabide batekin elkarturik daude.

Azken emaitza bikaina izan da eta horren erakusgarri, pandemia garaian turismoa sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindako *Nafarroa efektua* kanpainako iragarkian Landaburu Borda erabili zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Transexualitateari buruzko solasaldia

Naizen elkarteak transexualitateari buruzko solasaldia eman zuen maiatzaren 22an kultur etxean. Elkarteko kide baten solasen ondotik, herriko bi familiak egoera hau nola bizitzen ari diren azaldu zuten. Zinez interesgarria izan zen solasaldia eta 40 lagun elkartu ziren.



UTZIYAKO ARGAZKIA

Toki Onako ikasleek lankidetzaz ziurtagiria

Toki Onako 51 ikasle Bizikidetzaz Batzordeari laguntzen aritu dira boluntario gisa. Sartu berri diren ikasleak ikastetxera egokitzeko prozesuan lagundu edo gatazka ttiketian bitartekaritza lanak egin dituzte. Hauetako 18k institutuko ikasketak bukatu dituztenez, lankidetzaz ziurtagiriak jaso dituzte.



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Babes ofizialeko zortzi etxebizitza alokairuan Beran

Navarra Social Housing programaren barrenean, agudo alokairuan jarriko dituzten babes ofizialeko zortzi etxebizitza eraikiko dituzte Berako Kaxernagaina-Suspel Ttikin. 12 hilabetez egingen dituzte obrak eta bukatutakoan, Nasuvinsak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-errolan izena emana dutenei esleituko dizkiete, obra bukatu ondotik.

Etxebizitza pasiboak eta eraginkorrak izanen dira, Ia Kontsumo Hutseko Eraikinen Europako araudiari erantzunez. *Passivhaus* kalifikazioa izanen dute, hau da, energia eragin-kortasun handikoak izanen dira.

Berrikuntza gisa, egurrezko egitura duten Nafarroako al-tuerako lehenbiziko etxebizitzak izanen dira, *Navarra Social Housing* programan Nasuvinsak eredu aitzindari horren aldeko apustua egin baitu.

Navarra Social Housing

Navarra Social Housing egitasmoa alokairu soziala bultzatzeko gobernuak egin duen apustua da, eta helburu argia du: alokairuan hartu nahi dituzten etxebizitzaren eskaera gero eta handiagoa da, bereziki gazteen artean, eta horri erantzuteko sortu du. Gisa honetara, etxebizitza oinarritzko eskubidea dela aitortu eta herritarrei etxebizitza duin eta kalitatekoa eskuratzen lagundu nahi zaie. Joaquin Lizasoain Urkola eta Mikel Sagarminaga Ayastuy arkitektoak arduratuko dira obrak.

Garajeak eta trastelekuak

Eraikinak sotoa, beheko solairua, bertze bi solairu eta estalkia izanen ditu, eta horrekin batera, zortzi trasteleku eta garajeko hamar plaza, horietako zortzi sotoan eta bi beheko solairuan.

Agudo hasiko dira eraikitzen!

Interesatuak Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-errolan izena eman behar dute



Sotoak argitaztapen eta aireztapen sistema naturala izanen ditu, bai sarrerako maldan baita barrenean ere. Portalearen azpian instalazioen lokalak kokatuko dituzte eta aparkaleku bakoitzaren barrenean trastelekuak.

Etxebizitzaren tipologia

Etxebizitzak 84 eta 102 metro koadro bitartekoak dira:

*Bortz etxebizitzek hiru logela eta bi bainugela izanen dituzte.

*Hiru etxebizitzek bi logela eta bi bainugela izanen dituzte.

Guztiek kanpora ematen duten balkoiak edo terrazak izanen dituzte eta egongelatik eta sukaldetik izanen dute sarbidea.

Berokuntza zentrala

Eraikinak aerotermia bidezko berokuntza sistema izanen du. Horrez gain, etxebizitza bakoitzak kontrolatutako aireztapen sistema mekanikoa izanen du, isuri bikoitzekoa, hotz/bero bateriarekin.

Ingurumena zaintzeko Nafarroako Gobernuaren nazioarteko hitzarmenekin bat eginez, erregai fosilak energia garbiekin ordezkatu dituzte, CO2ren isuria murrizteko eta aldaketa klimatikoa geldiarazteko.

Soinuaren kontra babestua

Eraikinak isolamendu akustikoa izanen du.

Portalea eta partekatutako eremuak

Karrikatik sarbidea arkupeetatik izanen du. Portalean eremu zabal bat izanen du eta hor igogailua eta bizikletak gordetzeko tokia izanen ditu.

SAKANA

Urizkarea 32 - 31830 Lakuntza
T. 948 57 62 93 · ezabu@sakana-mank.eus

INFORMAZIO GEHIAGO


www.vivienda.navarra.es

DONEZTEBE / SANTESTEBAN

Mercaderes 6 - 31740 Doneztebe/Santesteban
T. 948 45 61 03 · baztan-bidasoai@nasuvinsa.es



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Zigardibereko Jose Mari Zelaieta, maiatzaren 20ko solasaldian.

«Herrian izandako prozesuak erredaktatuta ipuin gogorak eta lazgarriak ageri dira batzutan»

JOSE MARI ZELAIETA ERRANDONEA

BERAKO ZIGARDIBEREKOA

Berako Kultur Batzordeak udalarekin batera antolatuta, *Bera*, *Zigardiberetik ikusia*: 300 urte solasaldia eman zuen Jose Mari Zelaieta Errandoneak maiatzaren 20an kultur etxean. Nafarroako Artxiboan Zigardibereka, hau da, bere sortetxeari buruz berriak bilatuz etxeko eta herriko hainbat kontu aurkitu zituen, eta horietaz aritu zen.

Pandemia garaian Zigardibereko historia idatzi du, nahiz eta aitortzen duen ez dela historiagilea, informazio biltzailea baizik. «Erretiroa hartu ondotik zerbait egin behar duzu eta beti nuen burutan genealogia edo etxeko kontuak, eta ohartua nintzen gure etxean abizenak aldatzen

zirela, beraz, ez zela gizasemea gelditzen etxean normalean eta horrek gehiago akuilatzen zaitu gehixeago ikusteko nor demontre bizitu ote zen eta noraino ailegatuko ote nintzatekeen...», aipatu digu, eta onartu du «axaleko historia» dela, «ez nago prestatua gehiago sakontzeko».

Gauza bitxiak ere topatu ditu Jose Mari Zelaietak. «Herrian gertatzen diren gauzatxoak eta dokumentazioa ere biltzen

«ZIGARDIBEREAN ABIZENAK AUNITZ ALDATU DIRA URTEZ URTE»

nuen eta horren ingurukoak ere kontatu ditut, nire sortetxearena bakarrik azaltzea aspergarria izanzen litzateke. Herriarentzat interesgarriak izan daitezkeen kontuak, ekonomia aldetik, muga aldeko gorabeherak... Herriko istorio horietan prozesuak ere izan dira eta prozesu horiek azkenean ipuinak dira, batzuetan ipuin gogorak eta lazgarriak... baina horiek erredaktatuz gero, ipuinak ageri dira».

Afera bitxiak

XVII. mendeko agirietan sorginkeriaz gauza handirik topatu ez badu ere, bertze istorio txo bat topatu du Zelaietak: «Baserrri bateko senar-emazteak eritu ziren, Sara aldeko petrikiloren batengana joan eta hark erran zien bazutela baserrri inguruko pertsonaren bat kalte egiten ziena eta hura salatu behar zutela. Eta hauek sinetsi eta inguruko neska gazte bat salatu zuten. Ez zioten bizitzen utzi, gauze izutu eta horrelakoak eginez. Neska horren amak herriko apezarengana jo zuen eta apezak, buru piska batekin, erran zien senar-emazteei horrelakorik ez egiteko eta

obligazioa zutela barkamena idatziz eskatzeko, notarioarengana joanda. Apezak igandeko mezan irakurri zuen barkamen-eskea... Horrelako kasu gutti batzuk topatu ditut sorginkeriarengan inguruan».

Euskaraz agiriren bat

Euskara ere interesatu zaio, euskaraz idatzitako dokumentu bakar batzuk bildu ditu. «Egia da dokumentu gehienak gaztelaniaz direla, notarioek gaztelaniaz egin behar zituzten, baina aurkitu ditut zitzuten dokumentuen oinarrietan euskarazko zati batzuk, gehienbat Sara aldetik norbaitek idazten bazuen edo notarioak Sarako norbaiti idatzi behar bazion... Herrian euskaraz idatzitako eskutitzen bat ere topatu dut. Horrek sekulako poza ematen zidan. Horietaik batzuk Mikel Tabernari eta Ekaitz Santazilari pasatu nizekien, euskara aldetik eta filologia aldetik azter dezaten», aipatu digu Zelaietak.

XVII. mende hasiera garai nahasia izan zen Beran, «Frantzia eta Espainiaren arteko gerra izan zen eta gu hor ginen tartean sartuak. Herriko erretoa izendatzeko arazoa ere izan zen, Altzateko jaunak bat izendatu zuen, baina herriak ez zuen onartzen eta herri barrenean sekulako istilu pertsonalak izan ziren eta horrek zenbait prozesu interesgarri ekarri zituen».

«TARTEAN TARTEAN AGERI DIRA EUSKARAZ IDATZITAKOAK»

PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allynare metodoa

gaueko konfort-kuxina

Astehenetik ortziralera:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

Organo kontzertua izanen dute elizan ekainaren 13an

Lesakako Roques Organoaren Lagunak Elkarteak antolatu du Hendaiaiko Jean-Marie Philippe Guilmarde-aren emanaldia

AITOR AROTZENA

Lesakako Roques Organoaren Lagunak Elkarteak (AAORL), udalaren laguntzarekin, Jean-Marie Philippe Guilmarde Hendaiaiko organo-jotzailearen kontzertua antolatu du ekainaren 13an, igandean, 18:00etan, San Martin elizan. Elkarteak 2021erako aurreikusita duen bigarren kontzertua da hau, izan ere martxoan organo eta biolontxelo kontzertu bat antolatu zuen.

AAORL elkarteak Lesakako kultura, gizarte eta prestakuntza arloan organoa elementu

aktiboa izan dadin egiten dituen jardueren barrenean dago.

AAORL elkarteak sustatutako organoa zaharberitzeko proiektua gizarte-interesekoizatzen zen 2020an eta 2021ean. Nafarroako Kultur mezenasgoari buruzko Foru Legearen arabera, onura fiskal handiak daude horrelako proiektuetan laguntzen duten enpresa eta partikularrentzat, eta berriz ere animatu dituzte norbana-koak eta enpresak Mecnaren bidez dohaintza egin dezaten 2021eko abenduaren 31 baino lehen.

Musika eskolan izena emateko epea ekainaren 7tik 18ra irekiko dute

AITOR AROTZENA

Bortz urtetik goitiko ikasle berriek ekainaren 7tik 18ra izanen dute musika eskolan izena emateko aukera. Horretaz gain, 13 urte baino zaharragoek, solfeorik gabe musika tresnaren bat jotzeko aukera ere badute. Azkenik, oinarritzko mu-

sika ikasketak dituzten 13 urtetik goitiko ikasleek, *Gazte eta Helduen Musika Taldeak* ikasgaian izena ematen ahalko dute. Irailaren 1etik 10era, izena emateko bertze epe bat irekiko dute. Izen-ematea herriko etxeko bulegoan eta www.lesaka.eus webgunean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Carlos Aurensanz idazlearekin

Carlos Aurensanz idazlea liburutegian izan zen maiatzaren 14an, *La puerta pintada* bere azken liburua aurkezten, sinatzen eta irakurleekin solasean. Berak ere herria ezagutu nahi izan zuen eta Egoitz Telletxearen laguntzarekin bisita gidatua egin zuten idazleak eta irakurzaileak.

Beti Gazteren Asteko ekitaldiak eta gehiago

Beti Gazteren Astearen barrenean, xake, mus eta pintxazo txapelketetako finalurrekoak eta finalak ekainaren 5ean, larunbatean 11:30ean hasita jokatuko dituzte. Lerro dantza eta argazki rallya ere izanen dituzte asteburuan. Ekainaren 20an, *Mendian hil hirian hil* dokumentala eskainiko dute Harriondoan 19:30ean. Iñaki Peña zuzendaria eta Felipe Uriarte protagonista izanen dira gonbidatu bereziak. Sarrerak salgai daude dagoeneko (hiru euro bazkideek, bortz euro gainerakoek).

Musika eta bertso doinuak hedatzen ari dira

Ekainaren 13an elizan Jean-Marie Philippe Guilmarde eskainiko duen organo kontzertuaz gain, asteburu horretan berean bertze bi emanaldi izanen dira Harriondo Kultur Etxean. Hilaren 11n, ortziralean, 20:00etan, Txor-bela Otxote Taldea ariko da kantari eta hilaren 12an, larunbatean, 19:30ean, Iñaki Dieguez Akustik Trio. Bertze aldetik, ekainaren 20an, igandean, 19:00etan, Hurih taldeak kontzertua eskainiko du Bereau hotelean. Ekainaren 13an Bertso Eguna ere izanen da.

GARBITEGIA

Partikularrentzako zerbitzuak

Enpresentzako zerbitzuak

Edredoiak, nordikoak, mantak...garbitzen ditugu

Ttipi txartela aurkeztuta %5eko deskontua 30etik aurrera partikularrentzat

ttipi txartela

Ostalaritza
Maireak, edredoiak, mantelak, serbiletak...

Lantegiak
Lanerako arropa, uniformeak, batak...

📍 Otsango industrialdea 13, Lesaka
☎ 948 63 80 41
🕒 Orduetgia: 7:00etatik 14:00etara

Hemen erabili

kattagorria

LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

XXVIII. Gasna eta artisau feria antolatu du Altxatak

Modu xumeagoan bada ere, ekaineko lehenengo asteburuan ospakizuna izanen da

IRUNE ELIZAGOIEN

Altxataren 30. urteurreneko urte honetan ez da gasna lehiaketarik izanen, baina izanen da zer ikusia eta zertaz gozatu Etxalarren ekainaren lehen asteburuan. Ekainaren 5ean, larunbatean, 21:30ean *Bideak* dokumentalaren proiektzioa izanen da frontoian. Aritz Ganboa protagonista eta Xabi

Unanua dokumentaleko zuzendaria izanen dira bertan, Joseba Olagarai gidatuko duen ekitaldian. Igandearekin, berriz, goizez, Etxalarko artisau ez osatutako azoka izanen da frontoian. Baserriko tresna zaharren erakusketa ere zabalik egonen da Iriondoan eta trikitilariak karrikak alaituko dituzte.

Informatika tailerra doan emanen dute herritarrentzat ekainaren 9, 10 eta 11n

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 9, 10 eta 11n, heldu den asteazken, ortzegun eta ortziralean 16:30etatik 18:30etara informatika tailerra eskainiko dute doan herritarrentzat Kultur Etxean. Izen ematea

zabalik dago kulturetxea@etxalar.eus edo 948635386 telefonoan.

Bertze aldetik, musikoterapia tailerra ere hasia dute Laraburuan sei lagunek, astean behin ordu batez, bi hilabetez.



JOSEBA OLAGARAI

'Biba zuek!' saioan herriko berri

Maiatzaren 13an ETB1eko *Biba Zuek!* saioan lanean ari den Joseba Olagarai herritarrak zuzeneko konexioak egin zituen herritik. Maiatzaren 24an, berriz, Xanti Elizagoien eta Itsaso Elizagoien saioko platora joan ziren kontrabandoaren inguruan egin zen saio bereziko solaskide moduan.



Herriko hemezortzi pilotari ari dira txapelketan. IRUNE ELIZAGOIEN

Bederatzi bikote hasiak dira pilotan X. Aitor Danboriena Memorialean

IRUNE ELIZAGOIEN

Bertze urte batez, Aitor Danboriena Memoriale antolatu dute herriko gazteek. Erran behar, aurten hamargarren edizioa izanen dela eta herriko pilotari gazteentzat soilik antolatutako txapelketa dela. 18 pilotarik eman dute izena, eta bederatzi bikoteek maiatz erdian hasita, abuztuaren 14ra arte partidua jokatuko dituzte asteburuetan.

Haurren XXXIV. bestetako txapelketa ere jokatu da. Ekainaren 9an hasi eta abuztu erdira arte jokatu dira partidak asteazkenetan. De-

netara 22 pilotarik parte hartuko dute, eta lau taldeetan banatu dira, binaka zein binaka. Txapelketa honetaz gain, Markel Irazoki, Julene Danboriena eta Erik Igoa herritarrek Bortzirietako binakako txapelketan parte hartzen ari dira.

17-19 urteko pilotari gazteak ere ari dira erakustaldiak ematen. Soilik Etxalarko Bentan dauden turistentzako eskainitako erakustaldiak dira, bertako frontoian eskaintzen direnak, turistek duten pilotarenganako jakin-mina eta interesa asetzeko.



IRUNE ELIZAGOIEN

Janari-denda berria herrian

Trady's supermerkatu kateko janari-denda zabaldu dute Dendainean. Oraindik ordutegia zehaztu gabe dute, eguerdietako atsedean orduak eta itxitzeko eguna zein izanen diren, baina goizeko zortzietan dute irekitzeko ordua eta arratsaldeko zortzietan itxitzekoa.

Zumaiako margo lehiaketa irabazi du Javier Igoak

Lesakako margolariak 1980an Hondarribian saritu zutenetik 17 lehen sari, 15 bigarren eta 16 hirugarren eskuratu ditu

AITOR AROTZENA

Zumaiako Udalak antolatutako kaleko pintura lehiaketan lehen saria irabazi zuen maiztaren 23an Javier Igoa Alzugarai margolari lesakarrak. 800 euro eskuratu zituen lanaren truke. Bigarren saria (500 euro) Bergarako Ricardo Azkargota Zelaia lortu zuen eta hirugarrena Gasteizko Eduardo Alsua Garciak (300 euro).

Valentin Manterola, Paco Hernandez, Julian Egiuren, Bego Blanco eta Olatz Goiburu margolariak eta, Zumaiako udalaren ordezkari, Marina

Bidasoro zinegotziak osatu zuten epaimahaia.

Margolari inpresionista autodidakta

«Pintura eskolarik gabe egingako margolari inpresionista autodidakta» moduan aurkeztu du bere burua Javier Igoak eta «aire libreko margoketa azkarrean espezializatua» dagoela aipatu digu. Izan ere, 1980ko irailaren 7an Hondarribian Gaspar Montes Iturrioz margolari irundarraren omenez antolatutako lehiaketan ohorezko saria lortu zuenetik,



Javier Igoa Zumaiako lehiaketan irabazle suertako zen margolanarekin.

17 lehenbiziko sari, 15 bigarren eta 16 hirugarren eskuratu ditu, bere «margo eta freskoarekin, pintzel handiarekin, erreparosik gabe eta oihalera momentuko atmosfera eramanez, baita soinuak eta usainak ere». Horietaz gain, Ciudad de Calahorra estatu mailako sariketan eta Irungo Amaia Kultur Zentroko Adour Bidasoa Nazioarteko Sariketan ere aukeratu dituzte bere lanak, bertze zenbait sariren artean.

Igoaren erranetan, «artearen helburuak gai baten ezkutuko alde azaltzea izan behar luke, gordeta dagoen misterioa azaleratzea eta horretarako oinarritzak bakarrik margotu behar da, esentzia. Margotzeko gaia, musikako partitura bezala, erreferentzia-puntu bat bertzerik ez da, gero bakoitzak bere interpretazioa egiten du»

Euskal Telebistako *Arimaren margolariak* programan ere parte hartu zuen Igoak.



PRESTAKUNTZA-ZIKLOEN ESKAINTZA ZABALA

LH ERDI MAILA

- Administrazio-Kudeaketa
- Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mendekotasun-Egoeran Dauden Pertsonen Arreta

LH GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Web aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzea
- Garraio eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Dietetika
- Haur Hezkuntza
- Gizarteratzea

Plaiaundi z/g
20301 IRUN
943 899 214
info@plaiaundi.eus

IZENA EMAN!

www.plaiaundi.hezkuntza.net



IGANTZI

Udaberriko Bestek ez dute hutsik eginen aurtengoan

Ekaineko asteburu guztietan ekitaldi interesgarriak antolatu ditu herriko euskara batzordeak

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Pandemia dela eta, iaz Udaberriko Bestek kale egin zuten, baina aurreko berriz indartsu heldu dira, programazio polita antolatu baitu herriko euskara batzordeak. Aitzineko urteekin alderatuz, aurreko Udaberriko Bestek ekain osoan izanen dira, asteburu ekitaldi bat eskainiz.

Hasteko, **ekainaren 6an**, igandearrekin, Pauline eta Juliette musikarien kantaldia izanen da Baratzondon, 20:00etan. Iparraldeko bikote honek euskal kanten nahiz bertelako musikarien bertsoak egiten ditu, baita haiek sortutako kantuak eskaini ere.

Ekainaren 11n, ortziralearekin, Amets Arzallusek *Miñan* liburua aurkeztuko du. Liburu hau Ibrahim Balde ginearrak eta Arzallusek berak idatzi zuten 2019an, eta Ibrahimaren migrazio bidaiaren kronika da. Aurkezpena osatzeko, bertan izanen da Joxean Ortega, Irungo Harrera Sarearen lanaren berri emateko. Aurkezpena Baratzondon izanen da, 18:30ean.

Ekainaren 20an, igandearrekin, azoka izanen da frontoian, 11:00etatik 19:00ak arte. Lehen ere gisa honetako azokak antolatu izan ditu euskara batzordeak, auzoetako eta etxeetako seinalizazioa egiteko, telefono gida argitaratzeko, etab. Aurtengoan azoka guraso elkarteak antolatu du, eskolako jantokirako dirua biltzeko asmoarekin. Guraso elkarteak egunotan hasiko da puskak biltzen. Egunduan osatzeko, 12:00etan herriko dantzariak ibiliko dira karriketan barrena, eta 19:00etan musika eta dantza herrikoiak izanen dira plazan.

Azken ekitaldia **ekainaren 27an**, igandearrekin, izanen da. *Bideak* dokumentala ikusgai izanen da 18:30ean Baratzondon. Dokumentalaren protagonista, Aritz Ganboa Arruazuko artzain ezaguna, eta Xabier Unanue zuzendaria bertan izanen dira. Dokumentalak Ganboak 2019ko urrian bete zuen erroka kontatzen du: gazta bat motxilan hartu eta Arruazutik Izabaraino eram zuen, lasterka.

Herriko bestak ez dira ohi bezala ospatuko

Pandemia egoerak hobera egin baldin badu ere, eta oraindik arduraz jokatu behar denez, Igantziko Udalak herriko bestak ohiko formatuan ez ospatzea erabaki du. Hala ere, buruilean, asteburuetan hainbat ekitaldi antolatzeke aukera aurreikusi du Herriko Etxeak. San Migel eguna asetzatetzeko izanen denez egunean berean ospatuko da. Ekitaldi hauek antolatzeke nahi duen guztiarentzat irekia egonen den batzorde bat osatzeko deia luzatuko du Udalak.

Zortzi hilabeteren ondotik Biltoki berriz ere martxan

Zortzi hilabetez atek itxiak eduki ondotik, maiatzaren 21ean Biltoki elkarteak atek ireki zituen. Mahaia erabili ondotik desinfektatu beharko dira; denbora guzian mahaia jarrita egon beharko da; sukaldetan talde bakoitzeko pertsona bakarra sartuko da; gehieneko edukiera 24 lagunekoa izanen da (mahai haundietan 6 lagun gehienez eta mahai txikietan 4); nahitaezkoa izanen da otordua ordenagailuan eta paperean apuntatzea eta ontzi garbigailua erabiltzea.

Oihan Telletxea Sein Realarekin futbolean

Oihan Telletxea Sein herriko gaztetxoak futbolean salto ederra eman du.

Orain arte Lesakako Bete Gazte taldean aritu ondotik, maiatzaren 28-30ean egin zuen debuta Realarekin. Espainia mailan jokatzeko den XXX Torneo Nacional LaLiga Promises torneoan jokatu zuen Donostiako taldearekin. Aupa Oihan!



UTZITAKO ARGAZKIA

caser residencial
www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

• FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala • Nutrizioa
- Podologia • Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntza
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

**Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak**

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

«Birusak ez dit inolaz ere Erasmusaz gozatzea galarazi»

MAIANA SEIN ARBURUA IGANTZIKO GAZTEA

Ekain bukaerara arte Ganteko egonaldiaz gozatuko du Maiana Sein Arburuak. Udako oporraldiaren ondotik, graduko azken urtea Donostian egingen du

TTIPI-TTAPA

Haur Hezkuntza graduko hirugarren maila ikasten ari da Maiana Sein Arburua (Igantzi, 2000). Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campusean egin ditu lehenbiziko bi urteak eta hirugarren urteko lehenbiziko lauhilekoa: «erosotasunagatik bertze ikasle batzuekin pisu bat alokatu nuen». Hirugarren mailako bigarren lauhilekoa, berriz, Erasmus bekari esker, Ganten (Belgika) egiten ari da.

Egunez egun gozatuz

Urtarrilaren 30ean, ikasketei segida Artevelde Unibertsitatean emateko asmoz, Gantera jo zuen Maiana Seinek. Helmuga aukeratzeko arrazoi zehatzik gabe, «lekuaren kokapenak eta hirriaren edertasunak» bideratu zuen bertara. Eta, egia erran, ez da hartutako erabakiaz damutu.

Azken hilabeteetan, bertako eguneroko «kaotikoaz» gozaten ari da. «Aurreikuspenik egin gabe», egunez egun, bizi du hango egonaldia: «goizak nahiko lasaiak izaten dira eta arratsaldetan hemengo lagunekin elkartzan naiz, edozein plan egiteko. Ez dugu unibertsitateko ordutegi zehatz bat, beraz planak egiteko aukera aunitz ditugu eta alde batetik bertzera ahalik eta gehien mugitzen saiatzen gara». Alde horretatik, «errutina bat segitzea» zail izan zaio: «hemen dena ezezaguna da guretzat



Haur Hezkuntza gradua ikasten ari da Maiana Sein.

eta unibertsitatean hain dira malguak... Ia egunero izan dugu zerbait berria egiteko aukera».

Ikasketen alorrean, aldaketa handia sumatu du Seinek. Orain artean ez bezala, ingelesez egin behar izan ditu han: «uste baino errazago egiten ari naiz eta egokitzea ez zait hagitz zaila egin». Hizkuntza ez ezik, metodologian ere aldaketa sumatu du: «Hemen hagitz garatua dute online aritzeko metodoa, azterketei ez diete han bezainbertzeko garrantzia ematen, talde lanak bultzatzen dituzte, klaseak ez dira hagitz teorikoak...».

Pandemiagatik klase gehienak online izaten dituzte eta

«hiru aldiz bakarrik» joan da orain artean aurrez aurreko eskoletara. Hala ere, etxean ez da denbora luze egon eta inguruko herrietara «ahal den guztietan» joan da. Koronabirusa tarteko, bidaia gehienak Belgika barrenean egin ditu. Dena den, hemendik aitzinera urrutitago du begirada: «orain neurriak murriztu dituztela aprobetxatuz inguruko herrialdeak ezagutu nahi ditugu eta Interrail bat egiteko asmoa ere badugu».

Esperientzia «aberasgarria eta gomendagarria»

Egonaldia motz egiten ari zaio igantziar gazteari eta etxera bueltatzeko aukerak izan

arren, ez du beharrik izan: «bortz hilabetez bakarrik nago hemen eta ahal den gehien aprobetxatu nahi dut denbora, beraz, beharrezkoa ez bada ez naiz bueltatuko».

Ekainaren 15ean ikasturtea akituko duen arren, ekainaren 30a du bueltatzeko epe muga eta «ahal den beranduen» izatea nahiko luke, hango esperientzia «hagitz aberasgarria» izaten ari delako. Zerrenda luzea osatu lezake bidaia honek eman dion guztiarekin: «hainbat pentsamendu eta kultura ezagutu ditut, neure kabuz bizitzen ikasi dut...». Baina, ekarpen handiena «jendea ezagutzeak» egin diola nabarmendu du: «gainontzekoez eta neure buruaz aunitz ikasteko aukera eman dit horrek». Horrez gain, bertako bizimoduan murgiltzea eta «Gante gure bizileku egin dugula sentitzea» ere «hagitz polita» izan dela azpimarratu du.

Hala ere, «momentu batzuetan» herrimina izan duenik ez du ukatu: «lagunekin edo familiarekin otordu eder bat egiteko gogoia izan dut...». Edozein modutan, «hemen nahi edo behar horri erraz ematen zaio buelta!». Hitz guttitan egonaldia «espero baino hobea» izaten ari da eta «egoera ezohikoa izan arren, Erasmusaz gozatzen ari naizela erranen nuke. Pandemiarekin gauza aunitz egiteko aukera galdu dugu, baina bertze aunitz egin ahal izan ditugu eta gustura gainera» dio kontent.

Bere momentuan izandako zalantzak alde batera utzita, argi du Erasmusera joatea erabakirik onena izan dela. Hortaz, bere egoeran daudenei eta zalantzak dituztenei mezu argia luzatu die: «Hobe da egin eta gero damutzea, ez egin eta gogoz gelditzea baino. Nik ere bere egunean zalantzak izan nituen, baina ez naiz inolaz ere damutu. Aukera duen edonori gomendatuko nioke».

Gazteentzako filosofia tailerra antolatu dute

Iritziak, sentimenduak eta ideiak partekatzeko hiru saio prestatu dituzte gizarte zerbitzuek 15-17 urtekoentzat

NEREA ALZURI

Egunerokoan kezak eta zalantzak izaten dira noiznahi. Norberak bereak kontatuz eta bertzeenak adituz, erakutsi eta ikasi egiten da, taldean guztia aberasgarriagoa baita.

Bide horretan, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, *Gure mundua* izenburupean, hiru saio antolatu ditu 15 eta 17 urte bitarteko gaztetxoiei zuzenduta. Gisa honetara, lagunartean, bizitzaren filosofiaz, kezak, zalantzak, iritziak, ideiak eta sentimenduak partekatzeko

aukera eman nahi die gazteei. Hiru saio horiek larunbatetan izanen dituzte, ekainaren 10ean, 17an eta 24an, eta hirurak, 17:30ean, Baskulan egingen dituzte.

Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek aitzinetik izena eman beharko dute eta ortziraile hau, ekainaren 4a, izanen dute horretarako azken eguna. Interesatuak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera dei dezakete, 948 63 50 36 edo 634 22 36 59 telefonora.

Futbol eskolako bilera informatiboa egingen dute ortziralean

N. ALZURI

Osasuna futbol eskolaren inguruan solas egiteko, familientzako bilera informatiboa egingen dute ortziraile honetan, ekainaren 4an. Osasuna Fundazioak udalaren laguntzarekin antolatu du hitzordua, eta 16:30ean, herriko frontoian

bilduko dira. Osasunaren futbol eskola 4 eta 14 urteko haur eta gaztetxoentzat da, 2007 eta 2017 urteen artean jaiotakoentzat, eta ortziraileko bileran heldu den denboraldiko futbol eskolaren inguruko hainbat kontu izanen dituzte hizpide.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udalekuak uztailean

Uda ganean izanik, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udalekuak antolatu ditu, hizkuntzaren erabilera abiapuntu dituzten aisialdirako urteroko topalekuak. Uztailean 5ean hasiko dira eta hilabete guztian, 3 eta 12 urteko haurrak goizez ederki pasatzeko moduan izanen dira. Argazkia 2012koa da.

Julen Zelaieta eta Eneko Lazkozekin bertso bazkaria larunbatean

N. ALZURI

Bertsolariei plazak eskaintzeko helburuarekin eta, bidena-bar, bertsozaleek gozatzeko, Nafarroako Bertsozale elkar-teak, udalen laguntzarekin, Zapla! egitasmoa antolatu du aurten. Hainbat formatutan sei saio egin ondotik, zazpigarrena eta azkena, maiatzaren 15ean egitekoa zen, baina orduko osasun neurriekin terrazan egin behar zenez, eguraldiatik ekainaren 5era gibelatzea erabaki zuten. Hala, larunbat honetan, ekainaren 5ean, Aterpean bertso bazka-



Julen Zelaieta eta Eneko Lazkoz.

ria izanen da Julen Zelaieta eta Eneko Lazkoz bertsolariekin. Bertso bazkarirako txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke, 30 eurotan.

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

LARRETXEAK EGYRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Herriko 16 neska-mutikok jaunartzea egin dute

Jaunartzea bi taldetan egin zuten eta bukaeran bi taldeek Felipe Ganboaren kanta eder bat kantatu zuten

MAIDER PETRIRENA

Maitzaren 23an herriko 16 neska-mutikok beraien lehen jaunartze eguna ospatu zuten. Pasa den urtean, pandemiaren eraginez, urte bat gibelatzea erabaki zuten. Hortaz, aurten bi txandatan egin zuten.

Lehenbizi hirugarren mailan dauden ikasleak izan ziren jaunartzea egin zutenak. Goi-ko argazkian lehen lerroan, ezkerretik hasita, Ander Sarratea Carro, Alba Igoa Arretxea, Aurkene Iturralde Ezkurra eta Nahikari Gonzalez Goikoetxea eta bigarren lerroan, ezkerretik hasita, Marko Igoa Arretxea, Enaitz Agesta Petrirena, Ibai Maritxalar Ibarra eta Ainhoa Armendariz Aizkorbe ageri dira.

Bigarren txandan, aurten laugarren mailan dauden

ikasleak egin zuten. Beheko argazkian lehen lerroan, ezkerretik hasita, Hegoa Irazoki Urtxegi, Sara Gartzia Sanzberro, Juliana Boiko, Argia Agirre Arretxea, Saioa Elizondo Mariezkurrena eta Nahia Portu Zelaieta daude. Bigarren lerroan, berriz, Aimar Agesta Hernandorena eta Iker Ibarra Mariezkurrena ageri dira. Eta hirugarren lerroan Ines Obregozo Oteiza (katekista), Maitte Etxenike Mariezkurrena (katekista), On Juan Zabala Osés (apaiza) eta Ines Eizagirre Indakoetxea (katekista).

Aipatzekoa da bi taldeek, bukaeran, Felipe Ganboa Zabalok idatzitako kanta eder bat kantatu zutela Uxue Ibarra Mariezkurrenak gitarrarekin eta Aitor Ibarra Mitxelenak (Jalisko) tronpetarekin lagunduz.



Bi taldetan banatuta, 16 neska-mutikok egin dute jaunartzea aurten.



UTZITAKOIA

Izpegiko Igoeran parte hartu du Lastirik

Izpegiko Igoeraren hirugarren edizioan parte hartu du Liher Lastiri herritarrek. Lehenbiziko rallya izan da berarendako. Debutarekin kontent dago eta ttikitako ametsa betetzen lagundu dioten guztien babesa eskertu du. Argazkian debuta ikustera joan ziren sunbildarrak.

Ulibeltzak elkarteko batzarra ekainaren 5ean

Urriaz geroztik itxita egon da Ulibeltzak elkartea. Maiatzaren 22an berriz ere indarrean dauden arauak betez atek ireki zituen. Ekainaren 5ean, 18:00etan batzarra egingen dute, urteko kontuez, bazkide berriez, junta aldaketaz eta leiho aldaketez solas egiteko.

Eneit Bertiz eta Koldo Herrera Alicanten izan dira

Nafarroako Selekzioak aukeratuta, maiatzaren 23an Eldan, Alicanten, Eneit Bertiz Apezetxea eta Koldo Herrera Urroz sunbildarrek Supreprestigio karreraz gozatzeko aukera izan dute. Lerro hauen bidez bikotea zoriandu nahi izan dute. Segi horrela!



LOREA BABAZE

Esku pilotaz gozaten gaztetxoak

Nafarroako Jokoen barne, hainbat herritar esku pilotako bikotekako txapelketa jokatzeko ari dira. Nahia Bertiz Babaze eta Iraide Iriarte Petrirenak maiatzaren 29an finala jokatzeko zuten. Gainera, Ibai Maritxalar Ibarra –argazkian–, Aimar Bertiz Babaze –argazkian– eta Santi Jimenez Etxeberri ere gozatzeko ari dira.

Iker Karrera kirolaria herria izanen da ortziralean

Unai Ugartemendiak mendi korrikalariari buruz idatzi duen liburua aurkeztuko du eta ondotik erosteko aukera izanen da

MARGA ERDOZAIN

Gazte Burrunbak eta Erreka Kirol Elkarteak Doneztebeko Udalaren laguntzaz antolatuta, Iker Karrera mendi korrikalaria herrian izanen da ekainaren 4an, ortziralean. 19:30ean dute hitzordua herriko zineman.

Horrekin batera, Unai Ugartemendia egileak kirolari honen ibilbideari buruz idatzitako liburua aurkeztuko du. Bertarazten direnek, aurkezpenaren ondotik, liburua erosteko eta sinatuta jasotzeko aukera izanen dute.



Iker Karrera.

Sarrerak dohainik izanen dira baina edukiera mugatua izanen denez (70 lagun gehienez) aitzinetik gonbidapenak Ostiz liburu-dendan eskuratu beharko dira.

Herriko txistularien kalejirak izanen dituzte ekainean

Nahiz eta aurten herriko besatarik ez dugun izanen, herriko txistulariek ekaineko ortziralean gure karririk alaituko dituzte ia atzenduak ditugun melodia eta kantak lau haizetara zabalduz. Ongi etorriak izanen dira karriketako ibilbide musikatu hauek!

Mendi Abesbatzaren udaberriko kontzertua

Ekainaren 12an Mendi Abesbatzak udaberriko kontzertua emanen du. Hitzordua 20:00etan dute kiroldegian eta gonbidapenak liburutegian eskuratzen ahal dira. Egun berean eta bezperan Nafarroako Erremonte Txapelketa jotuko da pilotalekuan.

Liburutegia goizez irekiko dute ekainaren 16tik irailaren 17ra

M. ERDOZAIN

Ekainaren 16tik hasita eta irailaren 17ra arte liburutegiak udako ordutegia izanen du, hau da, goizez irekiko dute. 09:00etatik 13:00etara, astelehenetik ortziralerara, nahi duen orokateak irekiak izanen ditu.

Bide batez, aipatzekoa da, Ipuin Txokoak maiatzaren 25ean azkeneko emanaldia eskaini zuela. Gitarra, ipuinak, abestiak... den-dena gorde du Haizea Loirak urrian berriz ere itzultzeko asmoz, beraz, udazkenara arte neska-mutilak!

'Euskañolitis' ikuskizuna ekainaren 6an zineman

M. ERDOZAIN

Ekainaren 6an, igandean, Oihan Vegaren *Euskañolitis* izeneko bakarriketa ikusteko aukera izanen da, 19:00etan zinema aretoan.



Oihan Vega.

Sinopsia eta gonbidapenak

Zergatik praktikatzen dugu sexua gazteleraz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara? Vegak elkarrizketa bat proposatzen du euskara eguneroko bizitzan nola erabiltzen

dugun hausnartzeko. Aitzinetik gonbidapena eskuratu beharko da eta horretarako 641 58 99 08 telefonora deituta edo Whatsapp bidali behar izanen da.

Nafarroako Mendi Martxako kopa izanen dute ekainaren 19an

M. ERDOZAIN

Ekainaren 19an, larunbatean, Mendi Martxaz gozatzeko aukera izanen dute Doneztebe eta Sunbilla artean. Izan ere, Bidasoaldeko Maratoia prest dute. Proba hori Nafarroako koparako puntuagarria izanen da eta izena eman nahi

dutenek ekainaren 16ko 12:00 arteko epea dute. Banaka zein erreleboka apuntatu ahal izanen da eta maratoia (42km), maratoi erdia (21km) eta promozio maila (5km) izanen dituzte aukeran. Kirolariek www.herrikrosa.eus atarian eman dezakete izena.



ARTXIBOKOA

Udako kirol eskola antolatu du Errekak

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, aurten, berriz ere, udako kirol eskola martxan paratzea aurreikusiko du Erreka Kirol Elkarteak. Uztail bukaeratik abuztu erdialdera arte egiteko asmoa duten arren, xehetasunak aitzinerago emanen dituztela iragarri dute.

Osasuna Klubaren udalerrietako udako campusak

M. ERDOZAIN

Osasuna Klubaren udako campusak berreskuratu dituzte eta Nafarroako hainbat herritan antolatuko dituzte. Doneztebe herriari dagokionez, honako egunetan izanen da: ekainaren 22tik 25era, asteartetik ortziralerara. Udaleku hauek lau eta 14 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduak dira, 2007-2017 bitartean jaiotakoei alegia.

Interesa dutenek argibideak eta zehaztapenak jasotzeko edota izena emateko online egin dezakete: www.fundacionosasuna.com helbidean sartuta. Nahiago dutenek 948 29 30 40 telefonora deitu edo actividades@fundacionosasuna.com helbidera idatz dezakete.



Ederki pasatzen dute gaztetxoek.

[fundacionosasuna.com](http://www.fundacionosasuna.com) helbidean sartuta. Nahiago dutenek 948 29 30 40 telefonora deitu edo actividades@fundacionosasuna.com helbidera idatz dezakete.

Agorreta musika eskolan matrikulazioa irekita ekainaren 18ra arte

M. ERDOZAIN

Agorreta musika eskolan izena eman nahi dutenek ekainaren 18ra arteko epea izanen dute izena emateko. Udalaren webgunean sartu eta pausoak segitu edo musika eskolara bertara arratsaldean joan behar dute horretarako. Txistua, bateria, gitarra, pianoa, trikitixa eta akordeoia izanen dituzte aukeran eta musikariek taldekako saioak ere izanen dituzte. Bide batez, 12 urtetik goitikoek solfeorik gabe ikas dezaketela oroitarazi dute. Informazio gehiago nahi du-



Pianoa, trikitixa, txistua... ikas daiteke.

tenek, xehetasunak eskuratzeko esmusidoneztebe@gmail.com helbidera idatzi edo 948 45 14 12 edo 636 66 97 50 telefonora idatzi beharko dute la jakinarazi dute.

Hilaren 13an 'Ipuin dantza' ikuskizuna Santa Luzia plazan

Ekainaren 13an, igandean, *Ipuin dantza* ikuskizuna izanen dute Donezteben, Oihan Vegaren eskutik. Santa Luzia plazan 18:30ean dute hitzordua. Gonbidapena 641 58 99 08 telefonora deituta edo WhatsAppa bidaliz eskura daiteke. Familia osoarentzat egokia da.

Jaunartzea eginen dute Zubietako bost neska-mutikok

Janire eta Aimar Elizalde, Maialen Hualdek, Ane Santestebanek eta Eñaut Babazek jaunartzea eginen dute ekainaren 13an. Ea eguraldiak lagundu eta egun ederra pasatzerik duten! Horrez gain, aurreko asteburuan Bestaberrir eguneko meza izanen dute.

Naroa Elizalde Ados Pilota klubeko jokalarietako bat

Emakume pilotari profesionalen kluba, Ados Pilota, sortu dute. Hamahiru pilotari elkartu dira eta horien artean da Naroa Elizalde herritarra. Irujo, Eugi, Goñi eta Unai Arrizabalaga izanen dituzte entrenatzaile eta ostiralean hasiko dute lehenbiziko txapelketa.

Sagarrondoei buruzko solasaldia emanen du Gamiok

Sagar basatitik sortutako sagarrondoei buruzko hitzaldia emanen du ekainaren 5ean 10:30ean Juan Gamiok. Sagarrondo sano bat sortzeko prozesuaz, bariatatean aukeraketaz, txerto motez, sagastiak sortzeaz eta sagarrondoaren formazioaz eta kimaketaz ariko da.



UTZITAKOIA

Dozena bat artista Zubietan

Haurrek bezala gozatu dute helduek ere maiatzean, bi larunbatez, Iciar Mikelperizenaren gidaritzapean Zubietan egin duten margo tailerrean. Bakoitzak bere trebeziak eta klaseetan ikasitakoa baliatuz, zein baino zein emaitza ederragoak lortu dituzte.



UTZITAKOIA

Landarte programa martxan

Maiatzaren 25ean Landarte programako kideak, udal ordezkariak eta herritar batzuk eskolan bildu ziren programaren nondik norakoan berri izateko. Arduradunei herria ezagutzera eman ondotik, artea eta herria uztartuz proiektu bat lantzeko ideiak biltzen hasiak dira.

Erabilera anitzeko gela bat egokituko du elkarteak

4.000-4.500 euroko inbertsioa egingen dute eta momentuz podologia eta masaje zerbitzuetarako erabiliko dute

PABLO IRASTORTZA

Maiatzaren 17an elkarteko zuzendaritza batzordeak erabilera anitzeko gela bat egokitzea erabaki zuen. Gaur egun podologia eta masaje zerbitzuetarako erabiliko dute eta etorkizunean bertze edozein aferatarako erabilgarri egonen

da. Hamabi metro karratuko gela da horretarako egokituko dutena eta panel aurrefabrikatuak eta kristalez osatutako itxitura izanen du. Azken beharren eta ukituen arabera, lan horiek 4.000 eta 4.500 euro inguruko kostua izanen dutela adierazi dute.



ARTXIBOKOA

Bidaiak eta egonaldiak gogoan

Sumatzen da han eta hemen, aitzineko urteetan elkarteko kudeatutako besta, irteera eta joan-etorriak berreskuratzeko desioa eta beharra. Baldintzak hobetuko diren itxaropenarekin, heldu den hilabetean egingen den bileran egin daitekeenari buruz solas egingen dute.

Dirulaguntza eskaerak egiteko lanean ari dira

P. IRASTORTZA

Nahiko beltzak ziren 2021eko otsaileko erakunde eta fundazioen berriak. 777. zenbakian azaldu bezala, urteetan zehar emandako dirulaguntzak bertan behera gelditu baitira irabazi-asmorik gabeko elkarreentzat. Orain, ordea, Nafa-

roako Kutxak eta La Caixa fundazioak Innovasocial izeneko dirulaguntza egitasmoa argitaratu dute. Ezinbertzeko dirulaguntza hauen eskaera egiteko eginahalak martxan jartzeko intentzio irmoa azaldu du batzordeak egin duen bileran.



Eguraldi ederra izan zuten irteeran. P. IRASTORTZA

Aspaldian ez bezala, 43 lagun bildu ziren Auzako irteeran

P. IRASTORTZA

Elkarteko mendizaleek, urtearen hasieratik hilabeteroko txango gehienetan, mendi gehiago ezagutu dituzte.

Urteko borzgarren irteeran batzuek berriz eta bertzeek lehenbizikoz Auza mendia bisitatu zuten. Maiatzaren 18an izan zuten horretarako parada, 08:15ean. Covid-19a dela eta, 2020ko ekainaz geroztik, irteerak berrartu zituztenetik, ez ziren elkartuak 43 partaide.

JOXE JABIER PEREZ ARREGI MENDIZALEA OROITU DUTE

Lehenbiziko orduan eurien mehatxua izan zen kezakabide, nahiz eta berehala eguraldi goxoa eta eguzkitsua izan zuten. Igoera, Olathe, Nekaitz, eta Elorrietako lepoetatik egin zuten, basoaren haize gerizpea gosaltzeko aprobetxatuz.

Hildako mendi kidea gogoan

Mendi puntan minutuko isilune batekin oroigarri hunkigarria eskaini zioten duela gutxi joan zen Joxe Jabier Perez Arregi mendizale paregabeari. Ikuspegi bikainak dastatu ondotik, Harrigorri haitzean barna, berriz Elorrietako lepoa eta Banka aldeko xendatik egin zuten itzulera, ia bortz orduko ibilbide gustagarria osatuz.

Ekaineko galdera

Badago Arkupeak elkartearen ordezkaria edo delegatua duen herri bat bere izenaren konposaketan bortz bokalak (A, E, I, O eta U) dituena. Zein herri da?

Oharra: maiatzeko produktu sortaren sariduna ekaineko bigarren hamabortzaldiko TTIPI-TTAPAN emanen dute.

Uztailean igerilekua irekitzeko prestatzen ari dira

Herritarrei lehentasuna emanen diete eta arratsaldez bakarrik irekiko dute

NATALIA REKARTE

Uda honetan berriz ere igerilekua irekitzeko prestatuta lanetan ari da Donamariako Udala. Desinfektatu, sarea aldatu... eta dena prest izan nahiko luke uztailean Ierako. Momentu honetan arauak «arrant zorrotzak» diren arren, ordurako «malgutzea» espero du udalak. Izan ere, «oraingoz edukieraren %50 baimentzen dute eta hori gurea bezalako igerileku tiki batean 50 lagunendako bertzerik ez da». Horren aitzinean, «herritarrei lehentasuna» emateko asmoa dutela adierazi du alkateak.

Aldaketak aldaketa, irekiera ez da aitzineko urteetako bezalako izanen. Momentuz, arratsaldez bakarrik irekitzea pentsatu dute: «bi langile baino gehiago hartzeko baliabiderik ez du udalak eta aurten



Donamariako igerilekua.

sorosleek lan hori ez ezik, zona berdean ere arauak betetzen ari direla ziurtatu beharko dute».

Lerro hauek idazterako orduan, udala dena antolatzen eta gaia lantzen ari zen eta bi sorosleen lan deialdiak ez zituzten argitara emanak. Edozein modutan, udalaren webgunean informazio osoa zintzilikatuko zuela aitzineratu nahi izan zuen.



UTZITAKOA

60 lagun auzolanean

Sasiak moztu, bideak garbitu, Gaztelu inguruan mahaiaik paratu... Aunitz dira maiatz bukaeran auzolanean egin zituzten lanak. Donamaria eta Gazteluko 60 lagun bildu ziren eta herria itxuraldatu arren, parkea margotzea ekainerako utzi zuten. Argazkian auzolaneko batzuk udalak emandako *pintterdian*.

Mendaurrera joaten direnei ingurua zaintzeko eskaera

Azken boladan Mendaur kas-kora mendizale ugari joaten dira. Mendizale guztiek ez dute portaera bera edukitzen. Ermita barruan eta kanpoko gauza aunitz lekuz aldatu edo hondaturik agertu dira. Ingu-ruaz gozatzea ongi dago, bai-na dagoena bere lekuan utziz.

Artisau azoka izan dute maiatzean herrian

Maiatz hondarreko bi igandee-tan Iturengo herriko plazan Argitsu elkarteak antolatutako azokak izan dituzte. Baztan-Bidasoko artisauen eskutik, hainbat eta hainbat postu izan ziren: jatekoak, bitxiak... Herrian mugimendua eta giro ederra sortu zen postuen bueltan.



TTIPI-TTAPA

Zortzi ikasle eskolaratuko dira Pulunpan

Hurrengo ikasturterako aurrematrikulazioa maiatzaren 17tik 21era izan zen. Izan ere, bizi dugun egoeratik, pixka bat beranduago egin dute. Jakinarazi dutenez zortzi neska-mutilek hasiko dute Pulunpa eskola berrian 2021-2022 ikasturtea. Egoera hobetu arte jardunaldi jarraitua izanen dute.



UTZITAKOA

Lau neska-mutikok jaunartzea egin dute

Maiatzaren 23an Izaro, Maialen, Beñat eta Aimarrek lehen jaunartzea egin zuten. Pandemiaren ondorioz, bi meza izan ziren, 10:30ean herritar guztientzat eta 13:00etan jaunartzeak. Lau neska-mutilek egun bikaina pasatu zuten beraien familiekin.

«Bizitzak ematen dizkigun aukerez gozatu behar genuke»

MARION ELIZALDE HOWARD ZUBIETAKO GAZTEA

Iturengo Pulunpa eskolatik Doneztebeko Mendaur institutura jo zuen Marion Elizalde Howardek. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza akituta, Batxilerra Galesen ikasten ari da

TTIPI-TTAPA

Abizenek islatzen dute Marion Elizalde Howarden (Zubietta, 2004) izatea: «alde batetik, Zubietako familia handiak eta euskal ohiturak jarraitzen dituenak eta bestetik, Ingalaterran dudak familia txikiak, urtean bizpahirutan bisitatzen dudanak». Batetik eta bestetik edanez, eta amarekin Thailandiara, Marokora, Dani-markara, Esloveniara eta Europako beste hainbat herrialdeetara bidaiatuz, asko ikusi eta ikasi du gazteak. Bide horri segida emateko eta, liburuetan idatzita dagoenaz harago, munduan gertatzen dena eta bizitzak erakusten duena ikasteko gogoz, ikasketei segida atzerrian ematea erabaki zuen zubietar gazteak. Batxilergoko lehenbiziko maila akituta, joan den astean bueltatu zen herrira eta abuztu hondarrera arte Malerrekan izanen da. Orain arteko esperientziaz eta aurrera begirako asmoez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN.

Galesen ikasten ari zara... Noiz joan zinen eta noiz arte izanen zara han?

UWC Atlantic College izeneko eskolan IB izeneko ikasketak egiten ari naiz, Batxilergo internazionala. 2020ko irailean joan nintzen, lehenbiziko ikasturtea dut han eta bi urteko ikasketak dira, 2022ko maiatzean akituko dut.

Zer dela eta erabaki zenuen hara joatea?

Nire Ingalaterrako familia oso lotua egon da beti mundu akademikoarekin eta horrek beti ikasketei garrantzi handia ematera bideratu nau. Eskola hau oso ospetsua da. Hamazazpi eskolaz osatutako mugimenduaren fundatzailea da. Eskola hauek lau kontinentetan kokatuta daude. 90 nazionalitate baino gehiagoko pertsonak daudenez, bere helburua mun-

duko nazio eta kulturak batzea da. Politika globala bezalako ikasketak ematen ditugu eta askotan etorkizun iraunkorren aldeko proiektuak lantzen ditugu. Gaur egungo munduan dauden gatazkei buruz ere asko solastatzen dugu, konponbideak proposatuz. Mundua eraldatuko duten gazteak sortzea dute helburu.

Nolakoa da egunerokoa han?



Udako oporraldiaren ondotik, abuztuan Galesera bueltatuko da Marion Elizalde.

07:20an ernatzen gara, denok elkarrekin gosaltzen dugu eta klaseak 8:00etan hasten ditugu. Lau klase ematen ditugu, 08:00etatik 13:00etara. Ondotik, denok batera bazkaltzen dugu eta, gero, arratsaldeko programa hasten da. Arratsaldeak proiektuz beteta egoten dira. Hitzaldi asko izaten ditugu: planetaren iraunkortasunari buruz, politikari buruz, munduko gerrei buruz, kulturei buruz... Bestalde, eskolak duen campus handian kirola egiteko aukera dugu: bi igerilekuetan igeriketa egitea, eskolako hondartzara zatian surfa egitea, tenisa, saskibaloia, futbola, dantza akademian dantza... Badi-ra, baita ere, mundu osoko unibertsitateekin antolatzen diren bilerak eta, biastetik behin, emanaldi eta konferentziak egiten ditugu mundu guztiko gaiak landuz: Asiako gaiak, Afrikar kultura, Estatu Batuetako ospakizunak...

Zertan aldatu zaizkizu klaseak Euskal Herritik Erresuma Batura?

Euskal Herrian 11 ikasgai nituen. Hemen, nire ikasgaiak matematika, fisika, ekonomia eta politika globala dira, espezialitate bezala. Hala ere, gaztele- ra eta frantsesa ere ikasten ditut. Programa hau guztiz espezifikoa da eta ikasle bakoitzak aukeratu dezake zer ikasgai ikasi. Nire interesak legea, zientziak eta ekonomia direnez, ikasgai hauek aukeratzea erabaki nuen. Dena ingelesez egiten dut eta Malerrekan dena euskaraz egiten nuen. Beraz, aldaketa gogorra izan da niretako. Nahiz eta amarekin beti ingelesez aritu eta ahozkoa guztiz menperatu, ez nuen inoiz ingelera idatzia horrenbeste praktikatu.

Pandemiaren ondorioz, zer neurri hartu dituzue ikastetxean?

Bertan campus pribatu bat dugunez eta Covidarengatik bertatik ateratzea debekatuta dugunez, ez dugu musikorik erabiltzen eta ez dugu pertsonen arteko distantzia zaintzen. Etorri ginenean denei Covid testa egin ziguten, 10 egunez

isolatuta egon ginen eta orain lasai bizi gara. Irakasle asko campusean bizi dira. Guztiz isolatuta bizi gara hemen eta koronabirusik ez dagoela dirudi.

Han zeundela, bidaiatzeko asmorik bazenuen?

Koronabirusik ez balego, Ingalaterra eta Gales guztitik mugitzeko aukera izanen genuke. Ikasle askoren planak asteburuetan Londresera joatea eta bertan pisu bat alokatzea izaten dira. Baina aurten ezin izan dute horrelakorik egin. Beste aldetik, eskolak hainbat espedizio antolatzen ditu mundu osoan zehar, leku horietako arazoak konpontzen laguntzeko, boluntario gisa. Eta horrelakoak egiteko ere ez dugu aukerarik izan aurten. Pena izan da.

Ikasturtean zehar, zenbatetan izan duzu herrira bueltatzeko aukera?

Normalean, hilabete behin izaten dugu etxera itzultzeko aukera baina ikasturte honetan behin bakarrik bueltatu naiz, Eguberrietan. Hala ere, Eguberrietan etorri nintzenean, Mallerrekan egon behar izan nuen martxora arte, Covidak ez baitzidan bidaiatzeko utzi. Joan den astean uda guztirako bueltatu nintzen eta, ikasturtea iraillean hasiko dugun arren, abuztuaren 27an bueltatuko naiz, ikasle berriei ongi etorria egiteko presaketetarako. Hurrengo urtean bidaiatzeko arazorik ez izatea espero dut.

Nola bizi izan duzu egoera hori?

Nahiko etxezuloa naiz eta pena handia eman dit familia eta lagunak horren luze ez ikusteak. Kanpoan bizitzearen alde zailena familia eta lagunak hurbil ez izatea izan da. Haien falta sumatu dut, baina laguntza ere sentitu dut, gaur egungo teknologiekin erraza baita elkar bideoz deitzea eta elkar ikusteak.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Hasieran pixka bat kostatu zitzaidan bizimodu honetara ohitzea, etxeko erosotasuna faltan sumatu nuen eta eskola barnetegia denez, denbora guztian jendez inguratuta egoteak



Marion –behean, eskuinetik hasita hirugarrena– Galeseko lagun taldearekin.

nekatzen ninduen. Orain, bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan, askoz gusturago egon naiz, lagun oso onak egin ditut eta eskola honen luxu guziak ehuneko ehunean aprobetxatzen ikasi dut. Hemengo bizia oso kaotikoa da, milioika gauza ditugu egiteko egunero eta hau kudeatzen ikasten ari naiz oraindik.

Zeren falta izan duzu?

Pribatasun falta pixka bat nabaritu dut, 24 orduz jendez inguratua egoten naiz eta oso gutxitan harrapatzen dut bakarrik lasai egoteko denbora. Hemen etxehanditan antolatzen gara, etxe bakoitzean 50 ikasle gaude eta logela bakoitzean lau.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Hemen gehien gustatu zaidana mundu guztiko jendearekin izandako elkarrizketa interesgarriak izan dira. Nire gelan, adibidez, Txinako, Singapurreko eta Espainiako bi neskekin ikasten dut. Kulturalki aniztasuna dagoen arren, ongi moldatzen gara eta bizi

guztirako lagunak egin ditudala dakit. Horrez gain, eskolak mila aukera eskaintzen dizkigu ikasle bezala eta edozer egiteko proiektuen proposamenak onartzen dizkigute. Irakasteko modua ere oso egokia iruditzen zait, ez baita dena teorikoa eta ikasleen parte-hartzea oso garrantzitsua dela uste baitute irakasleek. Landutako gaiak beti oso berriak eta interesgarriak iruditzen zaizkit eta mundua beste begi batzuekin ikusten lagundu dit horrek, begi ulertzaile eta kritikoeekin.

Zer ikasi duzu esperientzia honetatik?

Aita eta amaren eguneroko laguntza ez izateak autonomia asko izaten irakatsi dit. Bestalde, mundu osoko jendearekin komunikatzen eta konpontzen ikasi dut. Haien historiak eta bizipenak aditu ditut eta, orain, munduko kultura askori buruz zerbait gehiago dakidala uste dut.

Ondotik zer ikasteko asmoa duzu?

«POLITIKA, LEGEA ETA EKONOMIA INTERESATZEN ZAIT»

«FAMILIA ETA LAGUNAK HURBIL EZ IZATEA ZAILA IZAN DA»

Politika, legea eta ekonomia interesatzen zait, baina oraindik ez dakit seguru. Matematika eta fisika asko gustatzen zaizkit eta ingeniari bat egitea ez dut baztertu. Seguruena, gradu bikoitz bat egingen dut, legea, gobernantza globala eta finantzak konbinatzen dituen. Hau Herbehereetan, Ingalaterran, Kanadan edo Espainian egin dezaket. Oraindik ez dut argi. Bestalde, koronabirusak uzten duenean, uda batean, Afrikara joan nahi nuke, bertan hilabetez boluntario lanak egitera eta, orokorrean, behar dutenei laguntzera. Hemengo eskolak kontaktuak ditu gobernu kanpoko erakunde batzuekin eta nire eskolaren laguntzarekin toki egokia aukeratu nuke. Halako esperientzia bat bizitzeko aukera izan eta zalantzan daudenei zer esanen zenieke?

Hasteko, ongi pentsatzeko. Horrelako aldaketa bortitzak barnartzeko gaitasuna izatea oso garrantzitsua da, nahiz eta inoiz ez egon guztiz prestatuta. Honetaz gain, aukera izugarria dela eta esperientzia pila bat izan eta gozatuko dutela jakinarazi nahiko nieke, nahiz eta momentu txarrak ere izan... Nik beti ausartak izatea eta bizitzak ematen dituen aukera guztiak aprobetxatzea aholkatzen dut.



J. ZABALO

Jaunartzeak izan dituzte Ezkurran

Maiatzaren 22an Beñat eta Naia Telletxea Gogorzak lehenbiziko jaunartzea egin zuten. Familiakoez eta lagunez inguratutik, egun ederra pasatu zuten anai-arrebek. Orain arte Cecilia Baldarekin jaso dute prestakuntza, emandako pausoaren zentzua ulertu eta eginbeharrak ikasteko.



UTZITAKOA

Dozena bat artista Zubietan

Haurrek bezala gozatu dute helduek ere maiatzean, bi larunbatez, Iciar Mikelperizenaren gidaritzapean Zubietan egin duten margo tailerrean. Bakoitzak bere trebeziak eta klaseetan ikasitakoa baliatuz, zein baino zein emaitza ederragoak lortu dituzte.

Itxaso Iriarte Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibako zuzendaritzan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunak (NNEKB) kide berri bat izanen du zuzendaritza taldean. Itxaso Iriarte Irazoki nabartearrak hartuko du abeltzaintzaren ordezkari kargua. Maiatzaren 14an Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunak urtero egiten duen bilkuran 890 bozka eskuratu zituen Iriartek. Aurten telematikoki egin dute batzarra Iruñeko El Toro hoteletik. Guztira 93 lagunek parte hartu zuten eta elkar-

teko bazkideek telematikoki ikusteko aukera izan zuten.

NNEKBek Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorearen zati handi bat ordezkatzan du. 2018an elkaratek sektore guztietako 130 kooperatiba inguru biltzen zituen eta 19.000 nekazari eta abeltzain bazkide baino gehiago zituen. Elkaratek Foru Komunitateko nekazaritzako kooperatiben eta bazkideen interes orokorrak ordezkatzeko eta defendatzeko du helburu eta bide horretan ariko da Iriarte.



LAURA ANDRESENA

Legasatik Irisora doan pista zolaberritua

Legasatik Irisora doan pistan, 700 metroan hormigoia bota dute herritarrek auzolanean. Maiatz hasieran egindako lan ikaragarriaren ondotik, bertze 700 bat metro geldituko dira pista guztia zolaberritua egoteko. Egunero zortzi bat lagun aritu dira lanean eta materiala Bertizaranako Udalak ordaindu du.

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HÖRMANN banatzaile ofiziala

TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiak babestu toldo batekin

Eider Martiarena eta Nahia Ziganda irabazle frontenisean

Idoia Etxeberria eta Aitziber Erasun izan ziren txapelkunorde, 22-11 galdu zuten Beintza-Labaiengo txapelketako finalean



Eider Martiarenak eta Nahia Zigandak irabazi zuten frontenis txapelketa.

A. ITURRALDE | BEINTZA-LABAIEN
Maiatzaren 15ean Beintzako plazan emakumezkoen frontenis txapelketa jokatu zuten lehenbizikoz. Guztira 12 bikotek eman zuten izena eta, indarrean dauden neurriak betez, txapelketa ederraz gozatu zuten 24 kirolariak. Horien artean Eider Martiarena eta Nahia Ziganda izan ziren irabazleak, Idoia Etxeberria eta Aitziber Erasun txapelkunordeen aurka 22-11 irabazita. Txapelketak izandako arrakasta kontuan hartuz, udazkenerako hurrengo saioa prestatzen hasi dira.

Edurne Erasun administrari laguntzaile

Oiz, Donamaria, Urroz eta Beintza-Labaiengo udalen zerbitzurako administrari laguntzaile lanpostua betetzeko egin zuten deialdian, Edurne Erasun Pikabea izan da oposizio-lehiaketa bidez aukeratu. Sei hilabeteko kontratua izanen du.

Sagardoaren txapelketatik kanpo Juanenea

Sagardoaren txapelketako finalerdietarako sailkatzeko aukeraren bat izateko nahitaez irabazi beharra zuten maiaztzaren 17an Aritz Juanenea saldiastarrak eta Aritz Zubiri goizuetarrak (Larre-gain). Irabazterik izan ez zuten, txapelketatik kanpo gelditu ziren.

**DESKONTUAK
MALERREKA
TTIPI TXARTELA**

**Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!**

<p style="text-align: center;">ttipi-ttapa</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan</p> <p style="text-align: center;">Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus</p>	<p style="text-align: center;">EZ</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p style="text-align: center;">Intzarkardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>
<p style="text-align: center;">kukuka</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p style="text-align: center;">Zazpigurutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p style="text-align: center;">Maitte moda <i>atropa da sagardoa!</i></p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan %10 DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p style="text-align: center;">Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>
<p style="text-align: center;">MALERREKA KUSTOM</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p style="text-align: center;">Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p style="text-align: center;">LOREA</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p style="text-align: center;">T. 948 45 14 73 DONEZTEBE loreaa@kimetzbelardenda.com</p>
<p style="text-align: center;">Amaya Picabea CENTRO DE ESTÉTICA E MASAJE</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA kosmetikan 50€tik goiti %10 DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p style="text-align: center;">Amezitia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p style="text-align: center;">ARRATE ETETIKA ZENTROA</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA 2. produktua erostean</p> <p style="text-align: center;">Eliza, 18 behea DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>
<p style="text-align: center;">Miguelena</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA 60€tik goitiko elektrogailu txiketetan</p> <p style="text-align: center;">Amezitia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p style="text-align: center;">KARLOS ALZUGARAY OSTEOPATA Eur. Ost.D.O.</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA bortz saioko bonoan</p> <p style="text-align: center;">Elizagibela, 4 behea DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>
<p style="text-align: center;">EL BAUL DE MARI Mari Cruz</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p style="text-align: center;">Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p style="text-align: center;">KIMETZ Belardenda</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta elikagai konplementuetan</p> <p style="text-align: center;">T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzbelardenda.com</p>
<p style="text-align: center;">Taupada Zentroa</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA estetika naturala, mesoterapia birtuala eta diamantzeko pilinga</p> <p style="text-align: center;">Santa Luzia plaza, 2 DONEZTEBE T. 667 30 88 26</p>	<p style="text-align: center;">MENDAUUR PENTSUAK</p> <p style="text-align: center;">%5 DESKONTUA zakur eta kaluen pentsuan</p> <p style="text-align: center;">Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>
<p style="text-align: center;">IRACHE lanatorioak</p> <p style="text-align: center;">%100eko DESKONTUA Bela-gelaren erabilieran *Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitartekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute.</p> <p style="text-align: center;">Amezitia, 13 DONEZTEBE T. 948 63 74 04 T. 948 19 70 70</p>	<p style="text-align: center;">CASA Etxea OSTIZ</p> <p style="text-align: center;">%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p style="text-align: center;">Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>



Pala txapelketako finalak ekainaren 19an izanen dira.

Ostiral honetan hasiko da binakako pilota txapelketa

Nafarroako eta Gipuzkoako 112 pilotarik parte hartuko dute Umore Ona kirol elkarteak antolatu duen txapelketan

TTIPI-TTAPA

Pala dela edo esku pilota dela, pilotak etenik gabe jarraitzen du herrian. Alde batetik, maiztasun geroztik bederatzitik bikotek pala txapelketan aurrera segitzen dute eta okerrik ez bada, finala ekainaren 19an jokatu dute. Bestetik, esku pilotan ari direnak ere ez daude geldi-

rik eta horren erakusle dira otsailean hasi zuten Mendialdeko binakako txapelketa eta ostiral honetan, hilaren 4an, hastekoa den V. Umore Ona binakako txapelketa.

Aurten bosgarren edizioa beteko duen binakako pilota txapelketan, Nafarroako eta Gipuzkoako klubetako 112

pilotarik parte hartuko dute, horien artean, Umore Ona, Barañain, Larraun, Betelu, Leitza (Aurrera), Bortzirriak, Lesaka (Arkupe), Irurtzun, Altsasu (Pilotajauku), Hernani, Astigarraga (Mundarro), Añorga, Oiartzun (Oiarpe) eta Andoainek (Gazteleku).

Finala ekainaren 26an

Igor Elizegi Umore Ona kirol elkarteak lehendakariak aurreratu duenez, kategoria bakoitzeko zortzi bikote ariko dira: seinak, kimuetan neska zein mutilak bereiz, haurrak, kadeteak eta nagusietan emakumezkoak eta gizonezkoak bereiz.

Kanporaketak asteburu honetan jokatuko dituzte. Ostiralean, 17:00etatik aurrera, kadeteen eta nagusien mailetako bost partida hitzartu dituzte eta larunbatean, 10:00etan hasita, maila bereko beste sei partida. Kanporaketen jardunaldia borobiltzeko igandean goizez eta arratsaldean gaztetxoek mailetako partidak jokatu dituzte.

Finalerdiak, berriz, hurrengo bi asteburuetan izanen dituzte (ekainaren 11tik 13ra eta ekainaren 18tik 20ra) eta finalak ekainaren 26an.



Trikidantz taldea.

Ekainaren 19an Trikidantz taldearen kontzertua

TTIPI-TTAPA

Trikidantz taldeak kontzertua emanen du datorren ekainaren 19an eskolako frontoian. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta iragarri dutenez, hainbat herritarrek parte hartuko dute hitzordu horretan.

Kontzertura sartzeko sarreak eskuratu beharko dira eta larunbat honetatik aurrera bost eurotan jarriko dituzte salgai, estankotan. Ekainaren 5etik 18ra izanen da erosteko aukera.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendialdeko azoka ekainaren 27an

Joan den urteko arrakasta errepikatu nahian, Mendialdeko azoka ibiltariak Goizuetan eginen du geldialdia ekainaren 27an, igandean. Orain arte Araitzen, Aldatzen eta Leitzaan egin diren azoken ondotik, aurtengo laugarren hitzordua izanen da.



ITSASO LUJANBIO

'Xapo' aldizkariaren 20. zenbakia kalean

Berriki banatu dute *Xapo* aldizkariaren 20. zenbakia, eta aldi honetan ere hainbat eduki interesgarri bildu dituzte. Horien artean, herrira bizitzera etorri diren Joana Barriola leitzarria, Mayi Zelarain azpeitiarra, Leire Sorrondegi urnietarra eta Ana Mindegia doneztebarra elkarrizketatu dituzte.

Patinaje ikastaroa izango da hiru larunbatez

Asteburu honetan izanen da lehenengoa, 11:30etik 12:30era eta hurrek eta helduek parte har dezakete

TTIPI-TTAPA

Kirolmank Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak patinaje ikastaroak antolatu ditu Areson. Hiru larunbatez izanen dira saioak eta hurrek eta helduek parte hartzeko aukera izango dute, bakoitzaren maila edozein dela ere.

Hiru saio hiru larunbatez

Aurreneko jardunaldia larunbat honetan, ekainaren 5ean, egingo dute, 11:30etik 12:30era. Izena emateko azken eguna osteguna, ekainaren 3a, izango da, 14:00 baino lehen.

Bigarren saioa ekainaren 12an, larunbatean, egingo dute, hau ere ordu berean, 11:30etik 12:30era. Egun horretan ikastarora hurbildu nahi dutenek ekainaren 10eko 14:00 baino lehen apuntatu beharko dute.

Ekainaren 19rako hitzartu dute hirugarren patinaje jardunaldia eta hau ere, ordu berean egingo dute. Kasu honetan, ekainaren 17a izanen da apuntatzeko azken eguna, 14:00 baino lehen.

Izen-ematea

Saioak aurrera ateratzeko gutxienez zortzi lagun bilduko beharko direla adierazi dute kirol mankomunitatek eta interesatuek kirolmankomunitatea@gmail.com helbidera idatzita eskatu beharko dute inskripzio-orrira.

Saio bakoitza ordaindu beharko da, hurren kasuan, 6,5 euro eta helduen kasuan, hamar euro.

Bestalde, uztailearen 10etik abuztuaren 4ra udalekuak eskaintzeko asmoa dutela ere jakinarazi dute.

Espainiako Estatistika Institutuak inkesta egingen du

TTIPI-TTAPA

Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, biztanleen ezaugarri soziodemografikoei, bizikidetzeta-moduei eta etxebizitzetarako buruzko informazioa lortzeko helburuarekin, INE Espainiako Estatistika Institutuak inkesta egingo du Areson. Herriko 25 etxebizitzetara aukeratu omen ditu eta inkesta azarora bitarteko egitea aurreikusitua du.

Hainbat aldagai aztertu nahi dituzte inkestan: etxebizitzaren azalera erabilgarria; egonaldi-kopurua; instalazioak; solairu kopurua; eraikitze urtea; iris-

garritasuna; etxean bizi den pertsona bakoitzaren sexua, jaioteguna, jaioterria, egoera zibila...; etxeak elkarrekin duten ahaidetasun harremana; ikasketa-maila, lanbide-egoera; hizkuntzen ezagutza; mendekotasuna duten pertsonen zaintza...

Inkestak bi fase izango ditu, aurrenekoa Internetez, telefonoz edo idatziz egiteko eta bigarrena agenteak etxera egingen duen aurrez aurreko bisitarekin osatuko dutena. Dena den, inkesta egiteko aukeratuek informazio zehatza jasoko dute.

Desobiratze bat egingen dute hilerrian

Nafarroako Memoriaren Institutuaren arabera, Gerra Zibilean erail zuten pertsona baten gorpuzkiak daude hilerrian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Memoriaren Institutuak otsailean iragarri zuen aurten hogeita bat desobiratze egingen dituela, «1936ko kolpe militarra eragindako biktimak aurkitzen eta identifikatzen jarraitzeko». Bada, Joxan Ruiz alkateak TTIPI-TTAPAri kontatu dionez, «berriki» hartu dute horren berri emanez idatzia.

Antza, Aranoko hilerrian lurperatu zuten Espainiako Gerra Zibilean erail zuten pertsona baten eta horren gorpuzkiak berreskuratzeko lanak egingen dituzte aurten hilerrian. Alka-

teak argitu duenez, «oraindik ez dakigu noiz etorriko diren».

2016az geroztik, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Memoriaren Institutuak hainbat hitzarmen sinatu ditu Aranzadi Zientzia Elkartearekin lan horiek egiteko. Eta urteotan 114 biktima hobitiki ateratzea lortu dute. Horietatik 26 gorpuzkiak identifikatu ahal izan dituzte.

Horrekin batera, gaiaren lotuta, tokiren bat ezagutuz gero, memoriaren institutuarekin harremanetan jartzeko deia egingo diete herritarrei.



Sarobe eta Legarreta Goizuetako pala txapelketan. Argazkian Zabala falta da.

Goizuetako pilota txapelketako partidak igandean Aranoko pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan hasiko da Goizuetako Umore Ona kirol elkarteak antolatutako bosgarren eskuz binakako pilota txapelketa, eta eguraldiak laguntzen badu, seinen, kimuen eta hurren partidak herriko frontoian jokatuko dituzte. Igandean, ekainaren 6an, goi-

zez eta arratsaldean jokatuko dituzte partidak, 10:00etan hasita sei partida, eta 16:00etan hasita beste sei partida. Bestalde, maiatzaren hasi zen Goizuetako I. pala txapelketan hiru herritar ari dira parte hartzen goizuetarrekin bikotea osatuz: Nagore Zabala, Maitane Sarobe eta Xabier Legarreta.

Mendialdeko azoka ibiltaria igande honetan

12:30ean Habelarte mendialdeko baserriarren elkarte aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 9an Araitzen hasitako bideari jarraipena emanez, igande honetan, ekainaren 6an, herrian egingen da Mendialdeko azoka ibiltariaren hirugarren edizioa.

10:30etik 14:00etara izanen da, eguraldi ona baldin bada

plazan, eta txarra baldin bada frontoian, eta tarte horretan herriko eta inguruko hainbat produktu dastatzeko eta erosteko aukera izanen da. Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen. 12:30ean, Habelarte mendialdeko baserriarren elkarte aurkeztuko dute.

Energiari buruzko aholkularitza zerbitzua ekainaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur elkarteak jakinarazi duenez, energiari buruzko aholkularitza zerbitzua emanen du ekainean. Doako zerbitzua izanen dela adierazi du eta ekainaren 15ean, asteartean, bilduko dira, udaletxean.

09:30etik 14:30era emanen dute zerbitzua. Dena den, joan nahi dutenek alde aurretik hitzordua hartu beharko dute 697 65 56 64ra deituta. «Oso interesgarria» izan daitekeela aurreratu du Cedernak, «orain fakturatzeko sistema aldatu behar delako».



LEITZAKO UDALA

Garazi Albizua hiru astez Leitza

Udaltzuzkarak abiatu duen *Geuretik sortuak* proiektua maiatzaren 20an aurkeztu zuten Oartzunen. Ekimen horretan Euskal Herriko literatura, antzerkigintza eta zinemagintzako 26 artistek hiru astez haien bizilekua ez den herri batean egingen dute egonaldia, eta Leitza Garazi Albizua idazle santurtziarra etorriko da.

Estrata oinezkoentzako bihurtu dute

«Herri seguruagoa eta irisgarriagoa» izateko, Peritzatik hasi eta Musunzarretik plaza doan den estrata kotxeentzat itxi du udalak, oinezkoentzat bihurtuz. Zamalanak 06:00etatik 11:00etara egin daitezke eta auzokoak une jakinetan sar daitezke.



ALKE

Emakume euskaltzaleak Kultur Aroan

Kultur Aroaren barne, maiatzaren 17tik jarri zuten *Hemen badi-tun 14* erakusketa Herri Aretoan, 14 emakume euskaltzaleren lanak aitortuz; tartean, Mikaela Labaien, Petra Azpiroz, Paulina Urkiola Pakita Zabaleta leitzarrenak. Erakusketa osatzeko, Ines Castiella Imaz lana azaltzera etorri zen eta ikusmina piztu zuen.



TORREA

Torrea Eszenaren hitzorduak

Kulturaz «zuzenean, euskaraz eta auzolanean» gozatzeko aukera emanez, *Torrea Eszena* ekimena abiatu dute Torrean. Horren baitan, bi hitzordu antolatu dituzte berriki: maiatzaren 20an Eneritz Furyak kantariak kontzertua eman zuen – argazkian – eta 29an Nahiak nahi taldeak.

Plazaolako geltoki zaharra eta inguruko eremua udalarentzat

Nafarroako Gobernuak geltoki zaharra lursaila, eraikin nagusia eta biltegia 99 urterako ematea onartu du

TTIPI-TTAPA

Aspaldikoa zen eskaera, azkena udalak 2019an egina eta aurretik 2006an aurkeztua, eta azkenean, Nafarroako Gobernuak onartu du Plazaolako geltoki zaharreko lursaila eta bertan dauden eraikin nagusia eta biltegia udalari ematea. Zehazki, 99 urterako eman dizkio. Gisa honetara, «bide berdearen potentziala eta geltoki zahararen ingurune pribilegiatua aprobetxatu» ahal izanen ditu.

Erabilera turistikoa

Udalak lurzatia eta eraikinak enpresa planean ezarritako helburuetara bideratu behar dituzte, edo horrekin bateragarriak diren erabilera turistikoetara. 2016ko abenduan, Plazaolako geltoki zaharreko partzela eta eraikinak garatzeko enpresa plana landu zuen Nafarroako Gobernuak, turismoa garatzeko. Horren arabera, eraikin nagusian kafetegia, tokiko produktuen saltokia eta aterpetxe bat aurreikusituzten; eta biltegi zaharrea bizikletak alokatzeko gunea, komun publikoak eta erabilera anitzeko gela bat. Plan hori Leitzako Turismo Mahaian eztabaidatu zuten, udalak sortu zuen partaidetza-foroan, hain zuzen, eta ekarpenak gobernuaren planean txertatu zituzten.

Bederatzi urte abian jartzeko

Bederatzi urteko epea izanen du udalak martxan jartzeko behar diren inbertsioak egiteko. Tarte horretan, erakinen barrualdeak, instalazioa, ekipamendua eta kanpoko lurzattia egokitu beharko ditu. 800.000



Plazaolako eraikina. LEITZAKO UDALA

euroko inbertsioa aurreikusituzte horretarako.

Ibilbide luzea

1914an inauguratu zuten Plazaolako bidaiarien trenoa; antzinako meatze-trena Iruñea eta Donostia lotzeko merkantzia eta bidaiarientzako tren bihurtu zutenean. Baina mantenua beti izan zen zaila, udalaren hitzetan «bidearen egituragatik eta meteorologia euritsuegatik». Hala, 1953ko uholdeek trenbidearen trazadura erabilerarik gabe utzi zuten.

80ko hamarkadan hasi zituzten trenaren ibilbidea berreskuratzeko lehen lanak. 1991n gobernuak Udalez Gaindiko Eraginaren Plan Sektoriala onartu zuenean, bidea onura publikokoa eta interes sozialekoa zela deklaratu zuen. 1995ean jabe pribatuen esku zeuden lursailak desjabetzeko espedientearekin hasi zen gobernuak, eta horrek Lekunberriko geltokia birgaitzea ahalbidetu zuen, Bisitarien Zentro bihurtuz. Lursaila ere Lekunberriko Udalari eman zion, orain Leitzan egin bezala.

2008an gobernuak eraikin nagusiaren kanpoaldea eta teilatua egokitu zituen eta 2018an, biltegiaren eraikin zaharra zaharberritu zuen.

Ingurutxoak hizpide izanen duen hitzaldia antolatu dute larunbaterako

TTIPI-TTAPA

Bateko eta besteko hitzorduek ez dute hutsik egingen ondoko eguna eta asteetan.

Ingurutxoari buruzko argazki erakusketa eta hitzaldia

Herrian hain maitea den ingurutxoari buruzko bi hitzordu antolatu ditu Leitzako Ingurutxoazale Taldeak. Batetik, ostiralean eta larunbatean, ekainaren 4an eta 5ean, argazki erakusketa izanen da. Bestetik, larunbatean, hitzaldia eta mahai-ingurua antolatu dituzte Herri Aretoan, 18:30ean. Mikel Lasarte, Karlos Irujo eta herriko dantzariak izanen dira hizlariak. Gonbidapenak Maimurren eta Astizen har daitezke.

Kultur Aroa

Kultur Aroa ere azken txanpa sartu da. Ekainaren 11n *Sagar-*

doa bidegile dokumentala aurkeztuko dute Herri Aretoan, 19:00etan, eta horrekin borobilduko dute aurtengo edizioa.

Dantzarien hitzordu bikoitza

Aurrerako dantzari ttikiek, berriz, egindako lana jendaurrean erakutsiko dute ekainaren 18an Herri Aretoan. Bi saio egingen dituzte, 19:00etan eta 21:00etan, eta gonbidapenak ostiral honetatik, ekainaren 4tik, aurrera Maimurren eskuratzen ahalko dira. Sarreran borondatea ere bilduko dute.

Film labur lehiaketa

Ekainaren 12an bukatuko da Atekabeltzek bederatzigarren aldiz antolatu duen film labur lehiaketa. Gehienez 10 minutuko lanak onartuko dituzte eta atekabeltz@gmail.com helbidera bidali beharko dituzte.



LHL ERRONKA

LHL erronkaren hitzorduak

LHL erronkako lantaldeak maiatzaren 15ean Herri Aretoan aurkeztu zuten egitasmoa, eta Okille Tailerra eta Xagu antzerki taldearen ikuskizunaren borobildu zuten aurkezpena. Maiatzaren 21ean, berriz, goi mailako kirolaz hitz egiteko mahai-inguru interesgarria egin zuten.

Erratzuko eskolako jantokia handituko dute udan

Lanak Santxotena S.L enpresak egingen ditu 60.715 eurotan eta hurrengo ikasturtea jangela handiagoarekin hasiko dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Erratzuko eskolako jangela handitzeko lana lehiaketa publikoaren bidez eman zuen maiatzaren 19ko Tokiko Gobernu Batzordean.

Jakinarazi dutenez, onuraduna Santxotena S.L izan da, berea izan baita eskaintza hoberena eta lana 60.715,84 euroan egingen du, BEZ kanpo. Proiektuaren idazketa eta zuzendaritza, berriz, Lino Plaza arkitektura bulegoaren gain izanen da 4.700 euroan, BEZ kanpo.



Erratzuko eskola.

Lanak aurtengo udan egin beharko dituzte eta, horrela, hurrengo ikasturtea jangela handiagorekin hasi ahal izanen dute Erratzuko eskolako ikasleek.



laz euriak egindako kalteak kopontzeko 110.607 euro inbertitu zituzten.

54.819 euro inbertitu ditu udalak Sumutsuan izan den lurmendien

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko abuztuaren Urritzateko Sumutsua alderdian hainbat lan egin zituen udalak, 2014 eta 2015 urteetako euriak bidean egindako kalteak kopontzeko, denera 110.607,85 inbertituz.

Horiek moldatu eta aurtengo urtearen hasmentan ber-

tze lurmendia izan da toki bertsuan. Horren ondorioz drainatzeak eta lur mugimenduak egin behar izan dituzte. Lanak Altzugarai egin ditu, 47.619,48 euroan; eta zuzendaritza LKSren gain izan da, 7.199,53 euro. Hortaz, guztira 54.819,01 euro inbertitu dituzte.

Etxe bat erre da maiatz bukaeran Berroetan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 22an etxebizitza bat ia osorik erre zen Berroetan. Itxura guztien arabera, sua tximinian piztu eta teilatura zabaldu zen berehala. Suak kiskali ondotik teilatua lehen solairura erori zen, eta ondotik lehen solairua ere arras

erre zen. Zauriturik ez zen izan baina familia bat deus gabe geratu denez, herritarrek elkartasunerako deia egin dute. Antolatzeko eta auzolanean lotzeko eskatzearekin batera, kontu zenbaki bat jarri dute eskura, ekarpenak egiteko: ES4021003699112115019939.



Etxe bat osorik erre da Berroetan. NAFARROAKO SUHILTZAILEAK

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Patronatuari eta Nafarroako Gobernuari ere esku hartzeko eskatu diete langileek.

Zahar etxekoen greba «erabatekoa» izaten ari da

Ekainaren 8an, 10ean, 15ean eta 17an ere greba egitea aurreikusi dute

TTIPI-TTAPA

Zahar etxeko langileek «kalitateko zerbitzua eta lan baldintza duinak» lortzeko hitzarmen kolektiboa negoziatu nahi izan zuten. Idea Innovacion enpresak, ordea, «negoziazioari uko egin» zien. Hori eta «zerbitzuen kalitatean egin diren murrizketak» salatu nahi dituzte langileek. Zortzi egunez greba egitea erabaki zuten. Maiatze-koen ondotik, hurrengoak ekainaren 8, 10, 15 eta 17a izanen dira. Orain artean grebarako deia langileek emandako erantzuna «ia erabatekoa» dela nabarmendu dute, Nafarroako

Gobernuak ezarritako gutxienezko zerbitzuen ondorioz, «greba egin ahal izan duten ia langile guztiek egin baitute». Honek, hitzarmen kolektiboa negoziatzen hasteari «argi eta garbi dei egiten dio», eta «kompromisoa» erakusteko eskatu diote enpresari. Patronatuari eta Nafarroako Gobernuari ere esku-hartzea eskatu diote enpresak «langileekiko eta egoitzarekiko dituen betebeharrak betetzeko». Euren ustez, «onartezina da enpresaren kudeaketa txarrak eta jarrera axolagabeak adinekoendako zerbitzuaren kalitatean eragitea».



Xabierrek, Maddik eta Natek osatzen dute taldea. UTZITAKOIA

Xubelet eta Xamanaten kontzertuak izanen dituzte udan

TTIPI-TTAPA

Udalak antolatuta, Xubelet eta Xamanat musikarien kontzertuak izanen dituzte uztailean eta abuztuan Baztanen. Uztailearen 16an, ostiralean 19:30ean, Lekarozko plazan; abuztuaren 1ean, igandean, 12:45ean Arizkun; abuztuaren 7an, 20:00etan Arraiozen eta abuztuaren 21ean, 20:00etan Zigako plazan dituzte hitzorduak. Bertaratzen direnek Maddiren biolinaz eta Nateren gitarrak eta Xabierren ahotsaz eta gitarrak gozatzeko aukera izanen dute (sarrerarik ez da ordaindu beharko).

Ibilaldi bohemiak

Horrez gain, udako ortziralean (uztailearen 16an izan ezik) ibilaldi artistikoak eginen dituzte Arizkun Xabier Xubeletekin. Eliz ataritik abiatuta, bi ordu eta laurdenez ibilaldi lasaia eginen dute Ursuaren inguruan.

Xabierrek bere kantak kantatuko ditu, gitarra lagun duela eta bertaratzen direnek bertako kondaira ezagutzeko aukera izanen dute. Azken hitzordu honetan parte hartu nahi dutenek zazpi euro eta erdi ordaindu beharko dituzte.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Elizondon 64 bizitegi hutsik daudela segurua da.

Bizitegia alokairuan hartzeko beharra ezagutu nahi dute

Udalaren eta gizarte zerbitzuetako webgune eta sare sozialetan bete daiteke inkesta ereiarioaren 3ra bitarte

TTIPI-TTAPA

Bizitegia alokairuan hartzeko bailaran dagoen beharra ezagutu nahi du udalak eta horretarako inkesta egiten ari da telematikoki. Erantzunak ereiarioaren 3 artio ematen ahal dira, egun hori barne. Datu horiekin alokairuko bizitegien eskaintza hobe zehaz-

ten ahalko du Nasuvinsak, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak.

Azkeneko aldian bizitegia alokairuan hartzeko eskaria aunitz handitu da, baina eskaintza eskasa da eta horrek, bizitegia izateko zailtasunak ekarri ditu: bereziki gazteen-dako, aldi baterako heldu di-

ren profesionalendako eta migratzaileendako. Helburua da bizitegi duina izateko oinarrizko eskubidea bermatzeko bidean ekintza zehatzak egitea eta, horretarako, informazio ahalik zehatzena izatea.

2017an iduriko bertze galdegegia egin zuen udalak, orduan ere Nasuvinsarekin elkarlanean, Irurritako Sagues berritzeko egon zitekeen alokairuko eskaria neurtzeko. Oraingoan berriz, galdetegiak helburu zabalagoa du eta orduko datuak eguneratu eta horietan sakontzeko balioko du.

Betiere, bizitegiaren beharrari buruz, hutsik dauden bizitegiak mugiarazteko ahaleginean ari dira administrazioak, azkeneko aldian. Horren haritik, Nasuvinsa elkarteak Nafarroako herriko zkorrenetan egindako azterketa zehatzari esker Elizondon 64 bizitegi hutsik daudela segurua da.

Zehaztasun gehiagoren faltan, Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera bailaran 1603 bizitegi hutsik daude edo bigarren bizitegiak dira. Horrela, aipagarria da bizitegi alokairuan emateko Nasuvinsak sortu zuen alokairu boltsa, zeinean Udalak hasieratik parte hartu baitzuen.

Udako Jostaldirako izen-ematea ekainaren 4tik 11ra

Hiru eta hamabi urte arteko haurrei zuzendutako Udako Jostaldirak euskaraz eskainiko dituzte Elizondon abuztuaren 2tik 27ra. Horretarako izen-ematea ekainaren 4tik 11ra egin daiteke www.dindaia.eus webgunean. Haur Hezkuntzakoak Lanbide Eskolan ariko dira eta Lehen Hezkuntzakoak Baztandarren Biltzarreko egoitzan, astelehenetik ortzirralera, 10:00etatik 13.00etara. Prezioei eta bertzelako baldintzei buruzko xehetasun gehiago behe-itiko iragarkian.

Artisauen azokak asteburuetan Elizondon

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteek antolatuta, Elizondoko plaza bertako produktuez beteko da ekainean. Hilaren 5ean, 12an, 19an eta 26an dituzte hitzorduak eta goiz osoan, 10:00etatik 14:00etara, jarriko dituzte postuak.

IZEN EMATEA Ekainaren 4tik 11ra www.dindaia.eus Epea luzaezina. Plaza mugatuak.

UDAKO
JOSTALDIA
EUSKARAZ

3-12 URTE

Elizondo
abuztuaren 2tik 27ra

<https://labur.eus/UdakoJostaldiaBaztan>

PREZIOA

Baztanen erroldatuak. Arrunta:
1 aste: 35€ | 2 aste: 70€ | 3 aste: 105€ | 4 aste: 140€

Baztanen erroldatuak. Familia ugariak eta guraso bakarrekoak:
1 aste: 35€ | 2 aste: 60€ | 3 aste: 85€ | 4 aste: 110€

Baztanen erroldaturik ez daudenak: 55€/astea

ORDAINKETA
Dirua kontu honetan sartu:
2100 5255 10 2200035704 (La Caixa)

Epea: ekainaren 18a.
Kontzeptuan: haurraren izen-abizenak
Edozein zalantza izanez gero, hurrengo telefono zenbakira deitu: **619 16 61 38**

Haur hezkuntzakoak: **Lanbide eskolan**
Lehen hezkuntzakoak:
Baztandarren Biltzarreko egoitzan
Astelehenetik ortzirralera, 10:00etatik 13:00etara

(Lehentasuna lau aste egiten dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

Antolatzaileak:

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Arropa merkeegi erostera ohitu gaituzte»

ARANTXA ZUBIETA OTXOTEKO
XULUFRAIA - BERA

Emakumeentzako arropa, bitxiak eta poltsak saltzen ditu Arantxa Zubietak Berako Xulufraia arropa-denda. Honez gain, dekoraziorako produktuak ere baditu; saskiak, kandelak, argazkietarako markoak... Tokian tokiko dendek herriari «bizia eta argitasuna» ematen diotela dio. «Ematen dugun zerbitzua beti denda handiena baino hurbilagoa da, elkar komunikatzen gara bezeroekin». Gaur egun, arroparen ekoizpen gehiena Txina, India eta horrelako herrialdetan egiten dela dio Zubietak, «nahiz eta gero guri saltzen digutena estatuko enpresena izan». Hortaz, «lan baldintza duinetan egiten diren arropak ekartzen saiatzen naiz, Kataluniatik, Portugaldik...». Hala ere, «hor prezioa igotzen da, arropa merkeegi erostera ohitu gaituzte, eta hori aldatu egin beharko genuke».

Xulufraia



«Bezeroendako eta guretako erosoagoa da tailer berria»

JON LARREGI GOÑI
BIOK BAT - ELIZONDO

Negozio familiarra da Biok Bat. 1978an Jon Larregiren aitak tailer ttiki bat ireki zuen Elizondoko erdigunean, eta bertan aritu izan dira lanean bere gurasoak. Orain Larregik hartu du segida, eta 2014tik lantegi berrian ari dira lanean; «ttikia gelditu zitzaigun». Tailer berria «erosoagoa da bai bezeroendako baita guretako ere. Aparkalekua izatea jendeak aunitz eskertzen du eta aukera gehiago ditugu jendeari makinak erakusteko». Produktuen eskaintza zabala dute Biok Baten; «alde batetik nekazaritzarako, mendiko eta lorezaintzarako makineria dugu, bai salmenta baita konponketa zerbitzua ere. Bertzalde, kotxeen konponketarako zerbitzu azkarra; gurpilak, olioak, bateriak...». Sasiak garbitzeko makina eta motozerra dira gehien saltzen dituzten tresnak, «Baztanen jendeak horrelako produktuak aunitz erabiltzen baititu».

BB BIOK BAT
TALLERES



«Argazkilariak ia ikusezina izaten jakin behar du»

PATXI IRIARTE IPARREA
ZALDUA - DONEZTEBE

«Kasualitatez» hasi zen Patxi Iriarte argazkilaritzarekin; «15 urte nituela erreportaje bat egiteko aukeraz nuen. Gustatu zitzaidan eta ikasketak utzi nituen argazkilaritzarekin hasteko». 1983an ireki zuen Elizondoko Zalduak denda Donezteben, bertan hasi zen Iriarte lanean gaztetan, «eta orain arte». Zalduan adituak dira jaunartzeetan, bataioetan, ezkontzetan... «urte aunitz dira». Horrelako ekitaldietan garrantzitsuena egoten jakitea dela dio, «ia ikusezina izan behar zara». Baina Iriarterentzat argazkilaritza askoz gehiago da; «nire pasio handiena ur-azpiko argazkilaritza da, itsasoko animaliak, naturako argazkiak». Fijin, Kuban, Hegoafrikan, Maldivetan eta bertze hainbat lekutan ibili da Iriarte argazki-kamerarekin.



«Herri bat komertzio txikirik gabe herri hila izanen litzateke»

GARBIÑE HERNANDORENA ERBITI
HERNANDORENA - LEITZA

1943an ireki zuen Garbiñe Hernandorenaren aitona denda. Garai hartan, «Leitzan ez zen ia komertziorik, hortaz, denetatik saltzen zuen». Bere gurasoak izan ziren ondotik arduradunak, eta 2004an Hernandorenak hartu zuen erreleboa. Produktu eskaintza zabala daukate burdindegian; sukaldarako tresnak, baratzerako gauzak, eraikuntzako erremintak, loreak... makineria ere alokatzen dute. Hau guztia etxera eramateko zerbitzuarekin osatzen dute, «herri txikia denez, jendeak zerbaite txera eramateko eskatzen badit, ez dut arazorik». Pandemia garaian asko erabilitako zerbitzua izan da. Kaxkabeltza elkarrean sartua dago Hernandorena, herrietako denda txikien alde; «herri bat komertzio txikirik gabe herri hila izanen litzateke».



Eskola ekosoziala uztailaren 10 eta 11n

«Krisi multisistemikoaren» aitzinean «lurraren kultura berri bat» aldarrikatuko dute

TTIPI-TTAPA

Uda honetan eskola ekosoziala izanen dute Baztanen. Bi egunez, uztailaren 10ean eta 11n, «krisi multisistemikoaz» solas egiteko hitzorduak izanen dituzte. Aitzineratu dutenez, «lurra oinen azpian ihartzen» ari zaigun honetan egungo egoera izanen dute hizpide: «iheslariak pateran, presoan bandera estropadetan; demokrazia ez da eskolan ikasi genuena; industria gehiegi dugu, langabezia ere; Glovo prekarioa; gau-enarak; Amazonen paketea herdoildutako per-

tsianen ultramarinosean; Hubberten kurba eta 2008; gainpopulazioa, masifikazioa eta goroldioak hartutako herriak; biolentzia matxistaren izeberga; eta Pirinioetako glaziarrak, eta Pirinioetako furgonetak; eta taula periodikoa ere krisian, eta zaintza eta permafrosta eta metaziriak eta...». Hori guztia abiapuntu hartuz, «lurraren kultura berri bat» aldarrikatuko dute. Las-ter informazio gehiago emanen dutela jakinaraztearekin batera, data gordetzeko deia egin dute.

Baztan Kantuz egitasmoa Gartzainen, Berroetan eta Amaiurren uda honetan

TTIPI-TTAPA

Kantuek ez dute etenik izanen udan, Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatu ohi duen Baztan Kantuz egitasmoari esker. Hiru hitzordu aurreikusi dituzte. Lehenbizikoa ekainaren 20an izanen da Gartzainen. Hortik Berro-

tara pasatuko dute lekukoa eta uztailaren 18an bilduko dira. Azkenik, Amaiurren abuztuaren 15ean egin dute geldialdia. Herritar eta ingurukoak parte hartzera gonbidatu dituzte. Ohiko orduan, 12:00etan, plazatik abiatuko dira eta karririkaz karrika ibiliko dira.



Heldu den ikasturtean programarekin segituko dute.

Ekintzaitza-gelak programa martxan da Elizondoko Lanbide Eskolan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 17az geroztik Inizia-Nafarroa Ekintzaitza-gelak Lanbide Heziketan programa abiatu zuten Elizondoko Lanbide Eskolan. Ekintzaitza laborategiak martxan jarriko ditu programak, Goi Mailako Administrazioa eta Finantza ikasketen barrenean. Hainbat tresna bideratzen ditu, sentsibilizazio jardunaldiak, tailerrak, bazkide eta kolaboratzaile sarea sortu, bertan lan egiten duten agenteak uztartuz, hala nola ikasle ekintzaile, irakasle, zuzendaritza taldea eta bazkide kolaboratzaileak agente moduan hartuta.

Programak heldu den ikasturtean segida izanen du Lehenbiziko jardunaldi horretan lau ekintzailearen bizi-penekin, programaren *Bero-*

keta eta lehenengo ekintza egin zuten, 2021-2022 ikasturtean segida izanen duena. Ekintzaitza adibide izan ziren, Brandmate Partnes enpresako Paula eta Lucas, PájaroFilms&Trips-etik Ignacio eta Dos de luz-eko argazkilaria eta baita, musika arloan, baxu jolea den Xabi ere.

Bederatzi ekintzaitza-gelak hasi eta zabaltzea helburu

Nafarroako Gobernuako Heziketa Departamentuak, Espainiako Heziketa eta Lanbide Heziketaren Ministerioarekin lankidetzan, Nafarroako sareko Lanbide Heziketako ikastetxeetan bederatzi ekintzaitza-gela jarriko ditu hasiera batean, gero zabalduz joanen dena. Horietako bat Elizondo Lanbide Eskolan izanen da.



instalazioak
IGOGAILUAK



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadak guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tarteen integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



745€

PAELLERO Barbakoa
Adreilu erregogorra eta hormigoia

Altuera 238 cm
Sakonera 74 cm
Zabalera 163 cm
Aho zabalera 78 cm
Pisua 860 Kg
Barbakoa parrillarekin



59€

Parrila kaxa

Errautsetarako kaxarekin
Sakonera 40 cm
Zabalera 60 cm



545€

Barbakoa RUSTICA DB

Altuera 221cm
Sakonera 60 cm
Zabalera 145 cm
Aho zabalera 60 cm
Pisua 600 Kg
Barbakoa parrillarekin



345 €

Pergola 4 x 3,6 m.

435€


Barbakoa FIRST REPISA

Altuera 221cm
Sakonera 60 cm
Zabalera 170 cm
Aho zabalera 60 cm
Pisua 700 Kg
Barbakoa parrillarekin



145 €

Pergola 3 x 2,5 m.



Pitzaduren aurkako kit-a, pirometroa barne

545€

Mairu labea

Altuera 95 cm / Sakonera 110 cm / Zabalera 110 cm
Pisua 680 Kg / Barnean suaren gehieneko eremua 85 cm

andrea-house.com



Infomazio eta aukera gehiago:
www.almacobaztan.com

«Argi genuen aurten Arizkun Rock antolatuko gnuela»

EIDER BIDEKAIN ZUBELDIA ARIZKUNGO GAZTEA

«Inoiz baino lan gehiago» egin ondotik, ekainaren 19rako dena prest dute Arizkun Rock jaialdiko antolatzaileek

TTIPI-TTAPA

Beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta, baina aitzinera egitea erabaki dute. Joan den urtean ez bezala, rock doinuak aditzeko aukerazanen da ekainaren 19an, larunbatean, Arizkun.

Noiztik aritzen zara Arizkun Rock antolatuko lantaldean? Zer dela eta hasi zinen?

2016an, 2017ko edizioa prestatzen. Musika munduak beti sortu izan du nigan interesa eta urte horretan aukera izan nuenez sartu nintzen. Hasieran ez nuen ideiarik ere nola antolatzen ziren horrelako gauzak, baina pixkanaka ikasiz joan naiz.

Zenbat lagun aritzen zarete eta noiz hasten zarete antolaketa lanekin?

Egia erran lan talde arras ttikia gara, hiru pertsonak antolatzen dugu, baina herriko gazteek laguntzen gaituzte egunean bertan. Jaialdia antolatzen

irail-urri aldera hasten gara, denbora behar baita dena ongi pentsatu eta lotzeko.

Nola banatzen dituzue ardurak?

Lan talde ttikia izanik, denon artean egiten dugu dena. Momentuko beharren arabera antolatzen gara. Dena denon artean egitea aberasgarria dela uste dugu, ikasteko aukera ematen digulako.

Joan den urtean ez zenuten Arizkun Rock ospatzerik izan... Nola bizi izan zenuen egoera hori?

Azken momentura arte ez genekien zer gertatuko zen eta bertan behera utzi beharra gnuela jakitean pena handia hartu genuen. Tristuraz baina indartsu hartu genuen, bertze

gauza batzuk egiteko probestu genuen denbora. Dena den, egun horretarako bideo hunkigarri bat egin genuen, denon oroitzapenetan gelditzeko.

Zer da zuretzat egun horretan politena?

Alde batetik guk antolatutako jaialdi ttiki horrekin jendea disfrutatzen ikustea arras polita da. Eta, bertze aldetik, musikari, teknikari, argazkilar... gure artean sortzen den giroa eta harremana berezia da.

Aurten, mugak muga, aitzinera egitea erabaki duzue. Hasieratik argi izan duzue?

Bai, joan den urtekoa bertan behera gelditu zenetik argi genuen aurten eginen gnuela

la. Modu berean ez izan arren, zerbait egin beharra ikusi genuen. Hasieran beldur pixka batekin egin genuen aitzinera ez genekielako egoera zein izanen zen... Handik eta hemendik informatzen egon ginen, nola antolatu, zer neurri bete beharra genuen... denaren berri izan genuenean antolatzen hasi ginen.

Zein aldaketa egin behar izan dituzue?

Lehenko edizioak beti plazan izan dira, aurten, berriz, frontoian izanen da. Indarrean dauden neurriak errespetatu beharko dira, bakoitza bere aulkian eserita egotea, eskuak garbitzea, segurtasun distantzia mantentzea, musukoa momentu guztian eramatea. Hau dena antolatzeke ordu gehiago sartu behar izan ditugu, baina gustura!

Zenbat sarrera paratu dituzue salgai?

Aurten 120 sarrera inguru jarri ditugu salgai. Aitzinera urteetan ez zegoen sarrerarik, plazan zenez edonor etortzen ahal zen, dohainik zen.

Sarrerak salgai paratu orduko akitu ziren. Erantzun hori espero zenuten?

Alde batetik bai eta bertzetik ez. Jendea gogotsu dagoela erranen nuke baina ez genuen espero ordu guttitan denak akitzea.

Jende aunitz gelditu da sarrerarik gabe?

Izan dira sarrera gabe gelditu diren pertsonak bai. Pena ematen digu sarrera gehiago ez

«AURTENGO EDIZIOAN SARTZEA MUGATUA IZANEN DA»

«EGOERA HONETAN KULTURARI TARTE EGINEN DIOGULAKO KONTENT GAUDE»

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

 CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER



Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

 **HARRI LAN S.L.**
VALLE DE CAUTEREA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Arizkun Rock jaialdia antolatzen aritzen da Eider Bidegain.

saltzeak, baina egoera honek aitzinerat egitea nahi badugu, aurten horrela izan beharko du.

Gastuak kudeatzeko lan handiagoa egin behar izan duzue? Zertan aldatu da lan hori aurreko urteetatik?

Aurten inoiz baino lan gehiago izan dugu orokorrean, sarrerak salgai jarri behar izan ditugu ez dugulako egunean bertan bertze dirusarrerarik edukiko eta gastu txiki bat behintzat ordaintzeko. Jendeak arras ongi erantzun du, bistan da, sarrerak arratsalde batez akitu ziren.

Nolako giroa espero duzue ekainaren 19an?

Gu behintzat gogotsu gaude eta badakit jendea ere gogotsu

dagoela. Nahiz eta eserita izan, giro polita sortuko dela uste dugu. Lagun eta familiakoekin pasatzeko arratsalde goxo bat izatea espero dugu.

Bertze urteetako ez bezalakoa izanen da?

Guretzat behintzat berezia izanen da. Bertze modu bateko edizioa izanen da baina kontent gaude horrelako egorearen aitzinean eskualdean kulturari bultzadaxo bat ematen diogulako.

«NEURRIAK ERRESPETATUZ GOZATZEA ESKATUKO NUKE»

Egunean bertan lanean aritzea tokatuko zaizu?

Bai, hor ibiliko naiz. Goizean antolakuntza lanetan ibiliko gara, arratsalderako dena prestatzen. Kontzertuetan ere, beharren bat suertatzen bada, hor egonen gara, baita bideo-kamerarekin iruditxo batzuk grabatzen ere.

Zer eskatuko zenieke bertaratzen direnei?

Neurrikerrespetatzeko denon ongizaterako, lan handia baitago hau dena prestatzen. Baina batez ere musikaz gozatzeko.

Besterik gehitu nahi duzu?

Eskerrak eman nahiko nizkizueke jaialdi hau posible egingen duzuen guztiei, bihotz-bihotzez!

Ikastolaren 50 urteko historiaren dokumentala aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Ospakizun ikasturtea da aurten goa Baztan Ikastolarentzat. Hamaika ekitalditan sumatu da 50. urteurrenari egindako keinua eta oraindik ere badute sorpresarik. Berriki jakinarazi dutenez, ikastolako guraso elkarteak dokumental bat sortu du eta ikasturteko azken txanpan ekitaldi gehiago ere izanen dituzte.

Gurasoek egindako dokumentalean Baztan Ikastolaren ibilbidea laburtu dute. Testuaz eta aurkezpenaz Goizalde Urdanpilleta arduratu da, eta grabaketa eta edizioa Iñaki Atxak egin du. Horrez gain, sorrera hartan irakasle, guraso eta ikasle izan zirenen lekukotzak, Ikastolak 25 urte bete zitueneko ospakizun ekitaldiak eta egun Ikastolarekin harreman zuzena dutenak ekarri nahi izan dituzte.

Dokumentalaren aurkezpena ekainaren 5ean eta 6an egingen dute Iruritako Gizarte Bilgunean. Guztira lau emanaldi aurreikusi dituzte, bi egunez, 17:00etan eta 19:00etan zehazki. Edukiera mugatua izanen da eta izena emateko aitzinetik 948 45 24 48 telefonora deitu edo baztan@baztanikastola.com helbidera idatzi behar da.



JASOTZAILEAK
Proiektuak, zaharberriak,
instalazioak eta mantentze-lanak




ASCENSORES ARGA
IGOGAILUAK

- Bizilagun komunitateetan igogailuak.
- Baserri barneko jasogailuak.
- Menpekotasuna dutenendako baliabideak.
- Elbarritasun fisikoa dutenendako baliabideak.

znorte@ascensoresarga.com
www.argaascensores.com

T. 643 93 79 22
Parrokia 15 behea
DONEZTEBE



Eraikuntza
Taldea



Informazioa:
638 68 63 82
843 99 05 43



Arlo teknikoak
Zaharberriak arkitektonikoak
Eraikin jasangarriak
Finantziario pertsonalizatua
Partekatutako proiektuak



IRUÑEA
Mutiloa-Behetiko ind.
D kalea, 13. nabea

DONEZTEBE
Parrokia karrika,
15 behea 2

DONOSTIA
Askatasunaren Hiribidea, 17,
2.solairua



Garbiñe Elizegi lekaroztarraren hitzetan, Aroztegiko proiektua «gelditzen ahal da eta gelditu behar da».

«Zitazioak jendea izutzeko dira baina ez gara tranpan eroriko»

GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE AROZTAK HERRI EKIMENeko KIDEA

Aroztegiko proiektua geldiarazteko borrokan buru-belarri dabil Elizegi. Proiektuak «ondorio latzak» izanen lituzkeela sinetsita dago eta argi du «antolatzea eta mobilizatzea» dela geldiarazteko bidea

G. PIKABEA | LEKAROZ

Bi hilabete pasatu dira Aroztegi obrak hasi zituztenetik eta geroztik egindako bidea ez da alferrikakoa izan, tartean obrak geldiaraztea lortu baitute. Proiektuaren kontrako mugimendu handia sortu da, bai Baztanen, bai Baztandik kanpo, eta egin dituzten mobilizazio jendetsuak dira horren erakusle. Baina ez da hori izan guztia, kanpaldian parte hartu

zuten hamar lagunek polizia-
ren aitzinean deklaratzeko
Guardia Zibilaren zitazioa har-
tu baitute. Bortxa delitua le-
poratu diete.

Orain arte egindako bidez zein balorazio eginen zenuke?

Arras balorazio positiboa egin dugu. Bide guztian babes handia izan dugu eta helburua lortu dugu, obrak gelditzea. Aldi berean, herritarren artean mugimendu indartsua sortu

edo berpiztu da eta proiektu hau geldiarazteko prest dagoen jende aunitz ikusi dugu, hasieratik ikusi genuen bezala, arazo handia sortuko lukeelako. Lekarozen ondorio latzak izanen lituzke, baina baita Baztanen ere, antolaketaren, hizkuntzaren eta ingurumenaren aldetik proiektu hau ez da inondik inora defendatzen ahal. Alde horretatik pozgarria izan da jendea nola animatu den

ikustea, bai kanpaldian, baita kanpotik laguntzeko ere, edo manifestazioan parte hartuta. Baztandik eta eskualdetik kanpo, Euskal Herri osotik eman digute babesa eta hori guretzat arras positiboa da, indarra ematen digu.

Maiatzaren 15eko manifestazioa jendetsua izan zen: 2.500 lagunetik goiti. Zein da Arozta herri ekimenaren balorazioa?

Arras positiboa izan zen. Adin guztietako jendea animatu zen, bai Lekaroztik, bai Baztango bertze herrietatik, baita kanpotik ere. Nafarroa eta Euskal Herri mailan ere atxikimenduak izan ditugu. Nabarmen gelditu da jendea ez dagoela proiektu hau onartzeko prest. Hortaz, mobilizatzen segitu behar dugu, Nafarroako Gobernuari geldiarazteko exijitu behar diogu.

Elkartasun mezu aunitz hartzen ari zarete, Baztanen eta Baztandik kanpo Euskal Herri mailan... Hori ere inportantea izanen da...

Bai arras inportantea. Gainera, hau ez da gure borroka bakarrik. Herri bati eraso egiten diotenean, guztiok inplikatuak gaudete eta guztion ardura da defendatzea. Kasu honetan, Lekaroz tokatu zaio, baina bertze hainbat eraso daude bai Nafarroan bai Euskal Herrian, eta horien kontra geure burua defendatu behar dugu, gure hitza errespetatu dezaten eskatu. **Kanpaldia utzi zenutenetik zein martxa izan du Arozta herri ekimenak?**

Kanpaldia utzi ondotik gure helburua manifestazioa arrakastatsua izatea izan zen eta lortu genuen. Baina argi dugu itzuliko direla, ez dutela hain erraz etsiko, ez badu Nafarroako Gobernuak bere aldetik gelditzen. Gure aldetik etorkizuneko estrategia bat landuko dugu eta orain arte egin dugun bezala, batzarrak egiten segituko dugu, eta egoeraren arabera, erabakiak hartu.

Hamar kidek epaitegitik zitazioa hartu zenuten. Espero zenuten?

Ez ginen harritu. Enpresa honek bere ibilbide osoan hori egin du: ordezkari politikoak, pren-

tsurrekoan parte hartu duten herritarrak, kanpaldian protesta egin dutenak... Edozein gauzagatik bide hori aukeratu du. Beraien sosa eta kontaktuak jazarpen judizialak egiteko erabiltzen dituzte. Hau bertze adibide bat baino ez da, jendea izutzeko eta gibelerat egiteko. Baina gu ez gara orain arte gelditu eta argi dugu salaketa honengatik ez garea geldituko. Ez gara tranpa horietan erriko. Hamar lagunek zitazioa hari badute ere, hau herri oso baten kontrako eraso da eta herri gisa erantzunen dugu.

Aroztegiko kontu honek lehen ere salaketak ekarri dizkizu. Guttienez hiru aldiz epaitegietan ibili zara...

Bai, hiru aldiz behinik behin bai, eta hiruretan alde batera gelditu da. Herritarren borondatea baldintzatu nahi dute. Beraien mezua 'ez baduzu guzuekin bat egiten, hau gertatuko zaizu' da. Batzuetan lortzen dute, baina zorionez, ia gehienak ohartu garazein den beraien jokoa eta ez du beraiek nahi duen eraginik izan.

Aroztegiko proiektua geldiarazteko borroka aspaldikoa da. Bere garaian geldiarazi zen, baita orain ere. Baina oraindik ez da bukatu... Ez, ez. Soluzioa Nafarroako Gobernuak udalez gairadiko plana bertan behera uztea izanen litzateke. Enpresa pribatu bati herritarren gainetik pasatzeko ahalmena ematea, herritarren lurrak eta lur komunalak bereganatzeko ahalmena ematea, ez da inondik inora onargarria. Hori lehenbailehen konpondu behar dugu eta hori konpontzeko Nafarroako Gobernuak egin behar du egin beharrekoa. Kontua da, ordea, orain arte isiltasuna bertzerik ez dugula ikusi eta horrek nabarmen utzi du beraiek ere argudio guti dituztela proiektu hau defendatzeko.

Gobernuak zein interes izan dezake?

Sistema ustel batean gaude, eta sistema ustel horrek politikari ustelak eskatzen ditu. Horren barnean saretze dinamika batzuk daude, *bezeroke-*

ria dinamika batzuk, faborea faborearen truke egiten dutena. Gisa honetara, bakar batzuk diru publikoarekin aberastea lortzen dute. Hori da guk salatzen eta onartzen ez duguna, eta horregatik ditugu guardia zibilak gibeletik, eta horregatik hartzen ditugu zitazioak epaitegietatik. Bitartean, hau egiten dutenak lasai aski beraien etxetan daude, beraien kotxe eta txalet eleganteekin. Hori onartzen ez dugulako gaude gauden egoeran. Interesak hor daude. Gobernu honek eta orain arte Nafarroan izan diren gobernuek kapitalaren interesak defendatzen dituzte, eta ez herritarrenak.

Oraindik borroka luzea izanen da?

Ez da sekula jakiten ahal, baina espero dut ezetz. Nik uste herritarren erantzunen arabera izanen dela. Guk azken hitza eta benetako boterea herriak duela sinesten dugu, eta hori erabiltzen jakin behar dugu. Horretarako antolatuta eta mobilizatu beharra dago.

Borrokarekin segitzeko konpromisoa berretsi du Aroztak

«Ez gaituzte isilduko eta ez gaituzte geldituko». Mezua garbi utzi du Aroztak herri ekimenak bere azken oharrean. Batetik, baikor mintzatu da manifestazioak izandako erantzunarekin, «manifestazioaren arrakastak gure borrokaren zilegitasuna eta indarra berresten duela» uste baitu. «Baztanen egin den manifestaziorik jendetsuena izan zen» eta hala, «nabarmen gelditu da, berriz ere, herri honek ez duela proiektu hau nahi eta prest dagoela gelditzeko lanean segitzeko».

Aroztak-eko kideek esker oneko hitzak ere izan dituzte oharrean eta «hori posible egin duten herritar guztiak eskertu» nahi izan dituzte. Sinetsita daude, «bertze bide guztiak agortu diren momentu honetan, karrikak, oihanak eta belaiak hartzea da bide baka-

rra, Palacio de Arozteguia S.L. eta kudeatzaile lanetan dabil-tzan ordezkari politikoko guztiak UGEPa bertan behera uztera behartzeko». Gisa berean, «herria mintzatu» dela eta «herritarren nahia betetzea gobernuari dagokiola» gaineratu dute.

Jazarpenarekin kritiko

Baina jazarpen judiziala eta poliziala ere salatu dituzte: «Aroztegiko egitasmoaren aurka lanean aritutako hamar kide polizia etxean deklaratzera deituak izan dira». Bertzeak bertze, «gure ingurua xehatu, herri lurrak zein bertako nekazarien lurrak bere-

«NABARMEN GELDITU DA HERRI HONEK EZ DUELA PROIEKTU HAU NAHI»

ganatu eta gure bizimodua suntsitu nahi duten horiei, kalte psikologikoak eragin zaizkiela leporatu» diete. Salaketa horiek «gezurrez betetako txosten polizial batean oinarrituak» direla diote Aroztak-ekoek, eta «gure duintasunaren eta etorkizunaren alde borroka hau kriminalizatu nahi dutela» kritikatu dute. Baina «argi» utzi dute «ez gaituztela isilduko eta ez gaituztela geldituko». Hori horrela, «errepresioarekin gibelerat pausoa eman behar genuela uste zuten horiei gure borrokarekin segituko dugula» jakinarazi nahi izan diete, «Aroztegiko UGEPa bertan behera gelditu arte».

Bertzetik, ondoko asteetan Euskal Herrian barna ibiliko direla ere adierazi dute, «gure borrokaren berri ematen eta gure sareak sendotzen».

Hori da proiektua geldiarazteko bidea?

Bai, dudarik gabe.

Zer da gehien kezkatzen zaituena?

Egiten ari diren sarraskiak eta proiektuarekin aitzinera egiten badute, nire herriaren gainean izanen lukeen eraginak kezkatzen nau. Nire herria desagertuko litzateke, eta ez hori bakarrik. Sozialki eta ekonomikoki Baztan mailan kalte handia izanen luke eta horrek ez du gibelera bueltarik. Hori da gehien kezkatzen nauena.

Lekaroztarra izanda, modu berezian bizi duzu Aroztegiko afera?

Bai, normala den bezala, nire herria izanda, hurbilagotik bizi dut. Baina horrek ez du erran nahi Baztanen edo inguruko bertze herri batean baldin balitz ez nukeenik modu berean defendatuko. Zorionez, jende aunitzek horrela sentitu du eta kanpaldian ikusi genuen. Inguruko jendea hurbildu zen eta beraien etxea balitz bezala defendatu zuten, azken batean, denon etxea baita.

Zein giro sumatzen duzu herrian?

Gai honekin nekea sumatzen da. Urte aunitz dira, eta horrelako proiektu eta promotoreek herria zatitzea dute helburu. Lekarozten ere saiatu dira, baina ez dute lortu. Herritarrak arras haserre ikusten ditut. Badaude beraien lurrak galdu dituztenak, gutietsiak eta zantatuak sentitu dira, eta herri bezala ez digutela kasurik egin ikusi dugu. Horrek frustrazio handia eragiten du. Alde horretatik, Lekarozten egoera ez da erraza, baina bertzetik, herri bezala erantzun dugu eta horrek ilusioa sortzen du. Horri esker kohesio bat sortu da herrian.

Zein mezu luzatuko zenuke?

Proiektua gelditzen ahal dela eta gelditu behar dela, eta denok proiektua geldiarazteko indarra egin behar dugula. Gure etorkizunaren eta gure bizitzaren aldeko borroka da, eta ez dugu planteatzen proiektua ez geldiarazteko aukera. Aitzinera segitu behar dugu, erraten den bezala, azken hatsera arte.



Antolatzaileen erranetan, 2.500 lagun inguruk parte hartu zuten maiatzaren 15ean Aroztek herri-ekimenak deitutako manifestazioan. JM ONDIKOL

Jendetza bildu da Aroztegiko lanen kontra

«Gure lurrak, hizkuntza, kultura eta bizimodua» defendatzeko lanean segituko dutela adierazi zuten

TTIPI-TTAPA

«Aroztegiko lanen kontrako mugimendua, herrien etorkizunaren aldeko borroka dugula» iritzita, maiatzaren 15ean jendetza bildu zen Elizondon egin zuten manifestazioan.

Antolatzaileen erranetan, 2.500 pertsona inguruk bat egin zuten «herria suntsitu eta bailara osoaren bizimodua baldintzatuko lukeen proiektu txikitzailearen» kontra Aroztek herri-ekimenak egindako deialdiarekin.

Nafarroako Gobernuari «herriarren interesak defendatzeko» eskatu zioten: «udalaz gaidiko plan sektoriala gelditzea erabaki politiko bat da. Baztanen, Nafarroan, Euskal Herrian eta munduan agortua den eredu baten babesle bilakatzen dira isiltzen direnak. Erabaki politiko makurrak zuzentzeko ahalke eta beldu-

rei izkin egin, eta ausardia jokatzeko exigitzen diogu gobernuari».

Bitartean, «gure hizkuntza, gure kultura eta gure bizimodua defendatzeko» lanean segituko dutela adierazi zuten: «Sinestarazi nahi digute horrelako proiektuen kontra ez dagoela deus egiterik, borroka ez duela merezi. Ongi dakigu hori gezurra dela. Baztanetik hasita, irabazitako borroka andana ditugu hondar aldi honetan: Munoako harrobia, Pikotako harrobia, Erdizeko meategia, Kisuako urbanizazioa. Atzendu gabe Euskal Herria dela Europa mailan eremu ez nuklear bakarrenetakoa, Lemoizko borrokarri esker».

Akta sinatuz, martxoaren 18an hasi zituzten luxuzko hotela, 22 hektareako golf zelaila eta 228 etxebizitza turis-



Euskal Herri osoko jendea bildu zen Elizondon. TTIPI-TTAPA



Hamaika mezu zabaldu zituzten Aroztegiari ezetz errateko. TTIPI-TTAPA

tiko egiteko lanak. Geroztik, Aroztegiko eremuetan hasitako lanak gelditu eta, apirilaren 23an, TEX enpresak bere makinakeraman zituen. Orain, auzitegietan aurkeztutako

helegiteak aztertu eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ebazpenak argitaratu bitartean, manifestazioa egin dute proiektua gelditzea eskatzeko.

Montxo ostatua ireki dute berriz ere urte eta erdi beranduago

2020ko urtarriletik itxia egon ondotik, maiatzaren 14an hasi ziren Iban Blanco eta familia

ARANTXA ETA IRAIA

2020ko urtarriletik itxia egon ondotik, Salbatore bestetako ortziraletan, maiatzaren 14an Montxo ostatua ireki zuten berriz ere. Iban Blancok eta familiak hartu dute berriz ostatuaren ardura eta gogo biziz hasi dute etapa berri hau.



Montxo ostatua egokitu dute.

Ordutegi zabalarekin

Astelehenetan asteko pausa izanen dute eta bertze egunean 09:00etatik 21:00etara irekia izanen dute. Jatetxea, berriz, 12:30etik 15:00ak arte irekia izanen da. Asteburuetan

ostatuaren ordutegia 01:00ak arte luzatuko da.

Poztekoa da herrian berriz ere Montxo ostatua zabalik ikustea, zorte on etapa berri honetan!

Bide bazterrak garbitu dituzte Otsondotik herrira

Maiatzaren 17tik 23ra bitarteko astean Otsondo eta Urdazubi arteko errepideko bide-bazterrak garbitu dituzte Mariezkurrena enpresako langileek. Herrirainoko bidea ere garbitu zuten, udara begira gure bazterrak txukuntzeko.

Pentekoste egunean jende andana Dantxarinean

Pentekoste eguneko ohitura aurten ere ezin izan da egin. Ainhoako kaperarat joateko usaia zegoen eta Covid-19a dela eta, aurten ere bertan behera gelditu da tamalez. Halere, mugaren bertze aldean besta izanik, jende andana bildu zen Dantxarinean.

Magia ikuskizunak hasiak dira Trikuharry animalia parkean

ARANTXA ETA IRAIA

Urtean zehar magia ikuskizun anitz izan ditugu herrian eta oraingoan, magoaren etxean, Trikuharry animalia parkean izaten ari dira ikuskizun hauek. Ekainaren 5ean izanen da hurrengo ikuskizuna eta tokia hartzea komeni da. Horretarako Trikuharryren Facebook orrian sartu eta haiekin kontaktuan paratu bertzerik ez da egin behar.



Magia ikuskizuna Trikuharryn.



JATETXEA • ERRETEGIA

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 · Antzanborda · URDAZUBI · Tel.: +34 848 85 00 21



@asadormontxo



Elizalde eta Etxeberrik beraien familiekin ospatu zuten erretreta-hartzea. GANEX



Lehenago eta oraingo lankideen agurra ere hartu zuten. GANEX

Erretreta hartu duten herriko bi langile ohoratu dituzte

Michel Elizalde eta Etienne Etxeberrik herriko kontseiluaren eta herritarren esker ona hartu zuten maiatzaren 23an

TTIPI-TTAPA

Erretreta hartutako bi herriko langile ohoratu zituen Herriko kontseiluak maiatzaren 23an Lur Berri gelan. Michel Elizalde joan den urtean hartu zuten erretreta, baina pan-

demiarengatik orai egin diote agur- ekitaldia. 34 urtez eta 4 urtez sasoiak egin ditu herrian lan, gizon langilea eta artexa.

Etienne Etxeberrik herriko poliziak apirilean hartu zuen bere erretreta. Honek ere 32

urte eman ditu herriko zerbitzari, gizon zintzo eta bere ofizioa ongi eraman du.

Battite Laborde auzapezak, bere kontseiluko lagunekin, ohoreak egin zizkien. Beraien lan denboran herriari ainitz zerbitzu on egin dizkiotelako biak eskertu zituen kontseiluak. Opariak ere izan zituzten: Kontseiluak herriko etxearen modelo tiki bat eta lehenago eta oraingo laneko lagunek, berriz, bidai abat bakoitza bere familiarekin.

Etiennek denak eskertu zituen, gogoratu zuen izan dituela memento neketsuak ere, «ez baitzen beti erraz borrokan aritzea herritarrekin, denak

ezagunak», baina kontent izan da herrian lan egiteagatik, errotik saratarra baita eta «Sara maite eta maitatuko» duelako. Michelek ere denak eskertu zituen, plazer handia izan duela herrian lan egitea bere tresnekin, mendi mazelak garbitu eta laborari ainitz ezagutu. Bistan da bera ere Sarako herritarren zerbitzurako aritu dela eta herria maite duela. Biek aipatu zuten Beñat Etxegarai *Saski* lankidea egun hortan falta zutela eta auzapezak memento hori baliatu zuen *Agur jaunak* kantatzeko Beñaten ohoretan, denek egin duten bezala. Ondotik, jateko eta edateko denentzat izan zen.



GANEX

Selauru-huste arrakastatsua

50 erakusle eta saltzaile inguru elkartu ziren maiatzaren 13an Izarra errugbi taldeak antolatutako selauru hustean. Goizean jende anitz bildu zen eta elkartea «kontent» dago talo eta edari anitz saldu zituztelako. Jendea etxetik ateratzeko, elkar ikusteko eta solastatzeko gogotsu zegoen.

EHZ festibala uztailaren 2tik 4ra iraganen da Irisarrin

TTIPI-TTAPA

Osasun neurri bereziekin bada ere, EHZ festibalaren 25. edizioa uztailaren 2tik 4ra iraganen da. Bertzeak bertze, Ruper Ordorika, Chill Mafia, Potato, Kuartz, Torheit eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsek parte hartuko dute.

Antolatzaileek onartu dutenez, «etxeratze agindu, konfinamendu eta bertzelako neurriekin ez da erraza izan aurtengo festibala irudikatu eta uztail hastapenerat proiektatzea». Halere, ez dute dudarik izan eta urte hastapenetik

hamarnaka laguntzaile lanean aritu dira «testuinguru berezi honetan kulturari eta euskarari arnaspune baten emateko».

Jadaneko jakina da «osasun pase» bat aurkeztu beharko dela sartzean, hots, 48 orenen barnean negatiboa eman duen PCR probaren ziurtagiria edo txertatua izatea. Hori gabe ezin izanen da sartu. Musukoa nahitaezkoa izanen da eta ekimenak xutik ikusten ahalko dira, jatekoak eta edatekoak ere izanen direlarik. Hiru egunetarako 150 sartzeko salgai dira EHZren web atarian 35 eurotan.



Lekuz aldaturik, hautetsien ohiko biltzarra egin dute Herri Urratsen karietarat. JL BESSONART

Herri Urratseko hautetsien biltzarra egin dute Larrekon

Molac legeaz eta beharrezkoa bilakatzen ari den bosgarren kolegioaren eraikitzeaz aritu ziren, bertze gaien artean

JEAN LOUIS BESSONART

Herri Urratsen karietarat aurren iragan behar zen lakuaren inguruko ekitaldi ttipia, ikastolako buraso eta haurrekin piknika gisa, debekatua izan zen. Ikusiz zer eremu zabala daukan aintzirak ulertezina bilakatu da. Paso horretan, halere, ohiko hautetsien biltzarra, lekuz aldaturik, iragan zen Larreko kulturgunean eguerdi inguruan.

Erakaskunzako murgiltze sistema ezeztatua

Gai aunitz hizpide bihurtu dira, bereziki Molac legeak sortu dituen esperantzak baita beharrezkoa bilakatzen ari den bosgarren kolegioaren eraikitzea ere. Dakizuen bezala, 61 diputatuk helegitea deliberatu dute lege honen aurka. Zorigaitzez jakin berri dugu Kontseilu Kontituzionalak ezeztatu duela erakaskunzako murgiltze sistema, eta honek ondorio larriak ekar ditzake. Hitzaldietan parte-hartzaile aunitz izan dira,

horra nahasmahas: Dominique Idiart auzapeza; Seaska eta Herri Urratsetik Peio Jorajuria, Emile Negueloua eta Benat Bidegain; Euskal Elkargoko buru den Jean René Etxegarai; EEK-tik Anton Kurutzarri; hautetsietan Jean-Jacques Lasserre, Max Brisson, Vincent Bru, baita Florence Lasserre ere. Orogen buru seinale ona bidali zuten, denek elgarrekin euskara azkartu nahi dutenez, baina geroa ilunbetara joan ez dadila.

Suspertze-plana

Herriko etxetik elkarteek errezebitu dute gutun bat, non ukaten ahal duten parada 6 hilabetez lan kontratu batean hartzea lan bilaketan ari den presuna bat. Estatuak, bere aldetik, laguntzak eskaintzen ditu %45eraino (%65, 26 urtez azpitik). Dudarik gabe, batzorde batek baliabide hori nahi badu erabili, harremanetan sar dadila Donibaneko Enplegu Gunearekin. Ekimen honek, lan eskaintzen bitartez, lan munduan sartzeko aukera suspertu nahi du. Gaur egun estimagarri litzateke.

Kalakan taldearen emanaldiarekin kultura itzuli da Larrekora

JL BESSONART

Hitz bat gorai patua izan da Mendekoste aste hondarrean Larreko gelan: «Azkenean». Halako atsegin batekin lehen hitza plazaratu dute Maider Cigarroak baita Jamixel Bereauek Kalakan taldearen ize-nean. Denek ongi ulertu dugu kultur guneen idekitzeak askatasun freskura bat sortu duela publikoaren aldetik. Maiderrek ehen partean bere boza miresgarria adierazi du kantu ezagun batzuekin baita bere sorkuntzak abestuz. Apretifa honen ondotik, Kalakan hirukoteak bere profesionaltasuna nabarmen agertu du, ikustaldi zoragarri bat eskainiz eta *Artizar* bere disko berria plazaratuz.

Gure xaramelako kantu zahar anitz oinarrituak dira bere ikuskizunean, dudarik gabe musika eta ahozkatzearen aldetik dimentsio berri bat hartu dutela, betidanik hobekuntzaren eske baitabilta. Parte-hartzaileen kopurua mugatua izanik ere, bi emanaldi egin zituzten eta denak irribarrez atera ziren emanalditik, ongi gozaturik, giro ezin hobe batean.

Gogoratu behar da *Artizar* diskoa salgai dela dagoeneko. Ez huts egin.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irún

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800



Plazaz Plaza txapelketa ariko diren pilotariak Leitzako plazan egin zuten aurkezpenean. JAVIER BERGASA/DIARIO NOTICIAS

Emakume pilotari profesionalen klubak aurkeztu dute

Plazaz Plaza txapelketa antolatu du Ados klubak eta lehen partidak eta finala Leitzan jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Emakumezko eskuzko pilotariak lehen klub profesionala sortu dute: Ados Pilota. Inoiz ez da halakorik izan, baina beharra ikusi dute: txapelketa gehiago jokatu nahi dituzte, lan baldintzak hobetu, eta, guztiaren gainetik, euren buruaren jabe izan nahi dute, inoren menpe egon behar izan gabe. Eta, klubaren izenak dioen bezala, ados jarri dira euren asmoak eta nahiak gauzatzeko. Maiatzaren 24an egin zuten aurkezpena Leitzako plazan.

Plazaz Plaza txapelketa: hasi eta buka Leitzan, Euskal Herri osotik eta Kataluniatik pasatuta

Ados klubak dagoeneko prest du lehen txapelketa ere: Plazaz Plaza izena du, eta binaka jokatu dute. Ekainaren 4an,

ostiralean hasiko da Leitzako Amazabal pilotakekuan eta toki berean bukatuko da, abuztuaren 14an. Euskal Herrian jokatu da ia osorik, baina Katalunian ere ariko dira pilotariak, Bartzelonan. Hamahiru jardunaldi jokatu dituzte, hamazazpi partida guztira.

13 pilotari profesional, tartean Iera Agirre, Naroa Elizalde eta Irantzu Etxebeste

Xehetasun guztiak aurkeztu zituzten maiatzaren 24an Leitzan. Han izan ziren klubeko pilotariak. Batetik, klubeko hamahiru pilotari profesionalak: Maite Ruiz de Larramendi, Iera Agirre leitzarra, Naroa Elizalde zubietarra, Irantzu Etxebeste beratarra, Amaia Aldaregia, Olatz Ruiz de Larramendi, Eneritz Arrieta, Oihana Orbegoza, Naroa Agirre, Ainhoa Ruiz de Infante,

Olatz Arrizabalaga, Amaia Aldai eta Genezane Aldai. Egungo pilotaririk onenak dira, azken urteetan txapelketa nagusietan nabarmendu direnak. Baina klubak pilotari gazteak ere trebatuko ditu. Hain zuzen ere, formazio arloko hiru pilotari ariko dira profesionalekin estreinako txapelketan: Laia Salsamendi, Ane Mendiburu eta Uxue Osés. Haiek ere aurkezpenean izan ziren.

Pilotari profesional ohia prestatzaile eta entrenatzaile

Aipatzekoa da Aritz Altadill palista profesional ohia izanen dutela prestatzaile fisikoa eta esku pilotan profesional handiak izandako Juan Martinez de Irujo, Fernando Goñi, Patxi Eugi eta Peio Martinez de Irujo entrenatzaile.

Ados Pilota klubak elkarlanean aritu nahi du 2019ko ekainean sortutako Emakume Pilotari Elkartearekin. Emakume Master Cup txapelketak eman dien «ikusgarritasuna» onartu dute, «baina eskasko gelditu zaigu, urrunago joan nahi dugu eta beste pilotari batzuei ere lekua egin nahi diegu, baina denak bateragarriak gara», adierazi zuten Leitzako aurkezpenean.

Malerreka-Agoitz erremonter txapelkunak

Maiatzaren 13an eta 15ean akitu zen Malerreka-Agoitz lehen erremonter txapelketa. Finalera Errekako Eneko Maylin II.a eta Erik Otxandorena eta Julen Pikabea eta David Mitxeo ailegatu ziren eta bikote bakoitzak partida bana irabazita (35-26 Agoitzen, 30-35 Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan), bortz tantoren aldeak erabaki zuten txapelketa: Maylin II.a eta Otxandorena.

Launakako azken sokatira txapelak Beti Gazterentzat

Nafarroako launakako sokatira txapelketan bosgarren eta hondarreko jardunaldia jokatuko zuten maiatzaren 15ean Antsoainen. Emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan pisu arinetako bigarren jardunaldia jokatu zuten, emakumeek 235 kilokoan eta gizonezkoek 300 kilokoan eta bietan txapelketa suertatu ziren Beti Gazteko tiralariak. Launaka jokoan zeuden lau txapeletatik hiru lortu ditu Lesakako klubak.

Garikoitz Floresek irabazi du Izpegiko III. Igoera

Garikoitz Flores (Tance Iso-motor Sport) izan zen azkarrena maiatzaren 24an burututako Izpegiko III. Igoeran. Arkaitz Ordoki (Ignauto Motorsport) arras hurbil izan zuen eta haren gibeletik Luis Miguel Alonso (Moncayo Motorsport) hirugarren postuan gelditu zen. Bruno Scherer (Escuderia Lagun Artea) laugarren sailkatua izan zen, baina turismoetan lehenbizikoa. 38 parte-hartzailek osatu dute guztira zirkuitua aurtengo rallyan.



Nafarroako txapelketan ari diren erremontista gehienak Eztegaran. UTZITAKOIA

Eskualdean abiatu da Nafarroako erremonte txapelketa

Beran, Iruritan eta Erratzun jokatu dute asteotan eta ekainaren 11n Donezteben eginen dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Foru Komunitatearen XVI. Erremonte Txapelketako lehen partidak maiatzaren 21ean jokatu zituzten Berako Eztegara pilotalekuan. Denera borts bikote ari dira txapelketa honetan eta Berako jaialdian Xanti Uterga doneztebarra eta Otano nagusitu

ziren, Zeberio II.ari eta Ioni (20-16) eta Eloy Otxandorena doneztebarrari eta Azpirozi (20-11) irabazita. Hirugarren partidari, Otxandorenak eta Azpirozek 20-19 irabazi zieten Zeberio II.ari eta Ioni. Zoritxarrez, saihets hezurra hautsuzuen Otxandorenak jaialdi horretan. Txapelketako bertze

bi bikoteak Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrak eta Barriartek eta Aldabek eta Aimar Saldias oiztarrak osatzen dute.

Final laurdenetako ligaxkan bikoteak hiruak ari dira elkarren kontra eta Berakoaren ondok eskualdeko pilotalekuan izan dira hurrengo bi jaialdiak ere, Iruritan maiatzaren 28an eta Erratzun maiatzaren 29an. Donezteben, berriz, ekainaren 11n jokatu dute. Fase honetako bertze partidak Peraltan, Artaxoan, Lekunberrin, Ezkarozen, Agoitzen eta Altsasun jokatu ditzute. Ondotik finalerdietako ligaxka binaka jokatu dute Burlatan, Lekunberrin, Andosillan, Tafallan, Garesen eta Lizarran eta finala Zubirin. Denera, Nafarroako hamazazpi herritara ailegatuko da erremontea.

Neskek ere erremontean

Erremonte Fundazioko Jaime Agirrek aurkezpenean aipatu zuenez, Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzaz, klubetako erremonte eskola eta ataletan sartzeko aukera eskainiko diete trebatzen hasi nahi duten neskei. Horretarako, saski ttikiagoak eta arinagoak erabiliko dituzte.

Bidasoaldeko Ipar Martxa Maratoia ekainaren 19an Donezteben

TTIPI-TTAPA

Iazko arrakasta errepikatzeko gogoz, aurten ere ipar martxa maratoia antolatu dute Corriendoporelmuendo enpresak eta Ttuku Ttuku ipar martxa taldeak, Doneztebeko Erreka kirol elkartearekin eta Donezteboko Udalarekin elkarlanean. Ekainaren 19an izanen da bigarren hitzordu hori, Doneztebe eta Sunbilla lotzen dituen bide berdean barrena. Banaka eta erreleboka parte hartzen ahal izanen da.

Maratoiak 42,195 kilometro izanen ditu eta maratoi erdiak 21,097 kilometro. Maratoia banaka egin behar dutenak izanen dira proban aterako diren lehenbiziokak, 07:30ean. Ordu erdi beranduago, maratoia erreleboka egin behar dutenak aterako dira. Maratoi erdia banaka egin behar dutenak 09:00etan aterako dira eta 09:30ean erreleboka egin nahi dutenak. Horrez gain, borts kilometroko proba herrikoia ere izanen da.



JOSE MARI TELLETXEA

Beti Gazte futbol taldea finalerdietan

Final-laurdenetako koska nekez gaudituta (Aretxabaletan 2-0 galdu ondok, 3-0 irabazi zuten Lesakan, argazkian), hirugarren mailarako igotzeko faseko finalerdia jokatzen ari da Beti Gazte futbol taldea Añorgaren kontra. Asteburu honetan itzulerakoa jokatu dute Mastegin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jagoba Arrasate Donezteben

Doneztebe Futbol Taldeak ezusteko bisita izan zuen maiatzaren 18ko entrenamenduan: Jagoba Arrasate Osasunako futbol talde nagusiko entrenatzailea izan zen zelaian. Futbol Taldeko kideek aipatu dutenez, «aholku ezin hobek eman zizkigun ligako azken txanparako».

EKAINAK 3 - 17

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

IGANTZI Udaberriko Bestak

Ekitaldiei buruzko xehetasunak 20. orrialdean.
Ekaineko asteburuetan.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

Iker Karreraren dokumentala eta liburuaren aurkezpena

Zineman, ekainaren 4an, 19:30ean. Edukiera mugatua: 70 lagun. Gonbidapenak Ostiz dendan.

LEITZA

'Sagardoa bidegile'

Herri Aretoan, ekainaren 11n, 19:00etan, dokumentala.

Aurrerako dantzari tikiak

Herri Aretoan, ekainaren 18an. Bi emanaldi: 19:00etan eta 21:00etan. Gonbidapenak Maimurren eskuragarri.

LESAKA

'Mendian Hil Hirian Hil'

Harriondoan, ekainaren 20an, 19:30ean, dokumentala.

IRURITA

'Baztan Ikastolak 50 urte'

Gizarte Bilgunean, ekainaren 5-6an, 17:00etan eta 19:00etan.

ERAKUSKETAK

LEITZA

Leitzako ingurutxoaren argazki erakusketa

Herri Aretoan, ekainaren 4an eta 5ean.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango artisauak eta Baztango zaporeak

Plazan, ekainaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, 10:00etatik 14:00etara.

LEITZA

Azoka ibiltaria

Plazan, ekainaren 6an.

SOLASALDIAK

ARANTZA

15-17 urte bitarteko gazteentzako filosofia

Baskulan, ekainaren 10ean, 17an eta 24an, 17:30ean.

Izen-ematea: ekainaren 4a baino lehen 948 63 50 36 edo 634 22 36 59 telefonora deituz.

LEITZA

Ingurutxoari buruzko hitzaldia eta mahai ingurua

Herri Aretoan, ekainaren 5ean, 18:30ean.

KIROLA

DONEZTEBE

Malerrekari itzulia bizikletan

Ekainaren 5ean, 08:30ean kiroldegitik abiatuta.

BERA

Ibardingo Igoera

Ekainaren 5ean, 13:30ean hasita.

Bortzirietako klubaren arteko kenpo kai txapelketa

Toki Ona kiroldegian, ekainaren 5ean.

SARA

Zaldi rallya

Ekainaren 13an.

TXAPELKETAK

LESAKA

Xake, mus eta pintxazo txapelketako finalaurrekoak eta finalak

Behoko plazan, ekainaren 5ean, 11:30ean.

OSPAKIZUNAK

IGANTZI

Udaberriko Bestak

Ekaineko asteburuetan.

LESAKA

Bertso Eguna

Ekainaren 13an.

ARIZKUN

Arizkun rock

Ekainaren 19an.

KONTZERTUAK

LESAKA

Hurih taldea

Bereau hotelean, ekainaren 20an, 19:00etan.

IKASTAROA

ZUBIETA

Oinarrizko gaitasun digitalak ikastaroa

Eskolan, ekainaren 14tik 18ra, 09:00etatik 14:00etara.

TAILERRAK

URDAZUBI

Udalekuak

Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrentzako.

Uztailaren 5etik 30era.

Nire aukera

«Glutenik gabeko postreen eskaintza eskasagatik abiatu dut proiektu hau»

NEREA AIZPURU ETXEBERRIA ELIZONDOKO GAZTEA



Pandemiak eragindako egoera garrantza goxatzeko helburuz, proiektu bat abiatu berri du Nerea Aizpuru Etxeberría (Elizondo, 1997). Glutenarekiko eta laktosarekiko intolerantzia dutenengan pentsatuz sortu du La Glutona txokoa, haiek ere gozoez gozatzeko aukera izan dezaten.

Gozoak gozozale guztientzat Zeliakoa da Nerea Aizpuru. Aspaldian antzeman zioten glutenarekiko intolerantzia eta ongi ezagutzen ditu horrek eragindako mugak: «haurra nintzelarik inguruko dendentan ez zegoen egun dagoen aukera eta, ondorioz, maiz Iruñera joan behar izaten genuen behar nituen produktuen bila».

Gaur-gaurkoz, «zeliakoon-gan gero eta gehiago pentsatzen dela eta produktu aunitz eta marka aunitzeta-koak daudela» uste duen arren, gozogintzan hutsuneak ikusten ditu: «intolerantziadunen gero eta eskakizun handiagoa dago eta glutenik gabeko gozogintzan, inguruan behitzat, etxean egindako postreetan ez dago aukerarik. Industrialak badaude baina ez da gauza bera».

Horrekin batera, «jende aunitzi laktosak onik egiten

«JENDEAREN NAHIETARA EGOKITZEKO PREST NAGO»

ez diola» ikusita, horiei ere erreparatzea erabaki zuen: «batzuek zein bertzeek aukerarik behintzat ez dezaten faltan izan».

Etxea ikasgela, sukaldea praktiketako txoko Proiektua abiatzerako orduan, bere esperientzia ez ezik, gozogintzarako duen interesa lagun izan du Aizpuru: «ttikitan, amak etxean postreak egiten zituenean jakin-mina izaten nuen eta haren bueltan ibiltzen nintzen. Gero bakarrik hasi nintzen, eta Batxillergoa egin ondotik betiko galdera ailegatu zen 'eta orain zer?'. Gustuko zuen horri heltzea erabaki zuen: «gozogintzaren bidetik jo nuen. Han eta hemen begira aritu ondotik, gozogintzan espezializatutako ikasketak on-line harrapatu nituen eta azkenean horixe egitea erabaki nuen. Lau urtez ikasten aritu nintzen». Etxea ikasgela eta sukaldea praktiketako txoko bihurtuta, «gustura aski» ibili zen Aizpuru: «bitxia dirudien arren aski emankor- rarak izan ziren ikasketak eta bide hori egiazki gustuko nuela ohartu nintzen».

Jendearen nahietara egokitzeko prest

Oraindik ere ikasten eta trebatzen segitzen du elizondo-arrak, bide hori inoiz ez dela akitzen sinetsita: «ahal dudan guztietan han eta hemen ikusten ditudan errezetak hartu, neure ukitua eman eta probatzen aritzen naiz». Etsi gabe, pazientzi- az eta goxotasunez egiten du lan: «ez bada ateratzen, hurrengoan berriz saiatzen

«GERO ETA GEHIAGO ERREPARATZEN ZAIE INTOLERANTZIEI BAINA...»

naiz. Horrelaxe aritzen naiz, lortu arte».

«Norberak nahi duen hori nahi duen modura egiteko prestutasunak» egiten du bereizgarri Aizpuruena: «izan laktosarik, glutenik edo azukrerik gabe... edozertara egokitzen ditut jendearen eskaerak eta, noski, bertzelakoetan espezializatu nahi dudana arren, glutendunak eta laktosadun postreak ere egiten ditut».

«Laktosarik eta glutenik gabeko cookiak, azukrerik gabek, magdalenak, bizko- txoak, azenario tarta, euskal pastelak, browniak, urtebe- tetzetarako tarta pertsona- lizatuak...» eskaini ditu: «esne-gain, krema, txokola- tez... beteak». Hala ere, probatu eta eskatu ahala, gehi- go eskaintzeko asmoa ere baduela jakinarazi du: «gero- ra eskaintza zabalduko dut, pixkanaka hasi naiz...».

Kontent dago jendeak izan duen erantzunarekin: «beregaitza galdetu zidaten ea non nagoen eta eskaerak egiten hasi zitzaizkidan...». Eta babes hori sustenguan izan du lehenbiziko urratsean: «ez nuen espero eta aitzinera egiteko gogotsu egoten lagundu dit...».

Gozotegi bat irekitzea amets

Etiketari ari da, eta formatu txikian ekin du bidea: «Mal- korran lan egiteko zortea izan dut urte eta erdi eta arront gustura aritu naiz, aunitz ikasi dut. Azken batean pan- demiak eragindako egoera- ren ondorioz lanik gabe gel- ditu nintzen eta aspaldian nuen ideia horri heltzeko momentua zela ikusi nuen».

Gozotegiko funtzionamen- dua ikusteak «aunitz ikuste- ko eta ikasteko» aukera eman dio, eta nork daki... «eran- tzunaren arabera, epe luzea- goan halako proiektu han- diagoren bat etorriko da... Denborak erranen du».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.

LESKA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, 45 m² dituen apartamendua salgai edo errentan emateko. Mobleztatua eta hagitz egoera onean. ☎628 04 20 47 / 647 44 25 09.

IRUÑA. Mendebaldea auzoan, Benjamin Tuterakoaren kalean, pisua salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta biltegia. Garajeko plaza barne. ☎628 58 10 31 / 646 67 44 06.

LEITZA. Amazabal kalean pisua salgai, igogailuarekin. Sukaldia, egongela, 3 logela eta komuna. Ganbaran 8m²ko trasteleku. ☎660 86 95 01 / 636 85 05 70.

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Zazpigarutzen pisua errentan emateko, 2 logela, komun 1, sukaldia, eta egongela ederrarekin. Guztiz mobleztatua. ☎606 50 00 79.

IRUÑA. Arrosadia auzoan bi logela errentan, unibertitateko ikasleendako aproposa, Nafarroako Unibertsitate Publikotik 5 minutura baitago. Guztiz mobleztatua. ☎676 00 93 29.

LANA

ESKARIAK

Adinduak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. ☎677 36 26 26. 44 urteko pertsona bat adinekoak edo haurrak zaintzeko lan bila. Orduka, asteburuetan edo interna ariko litzateke. ☎632 75 93 48.

32 urteko neska euskalduna lan bila Baztan edo Malerreka aldean. Erdi Mailako teknikaria, erizaintzako laguntzaile titulua duena. Adinekoak zaintzen, saltzaile, edota etxeak garbitzen lanean aritzeko prest. Kotxe propioarekin. Lanerako prestutasuna. Esperientzia erizain laguntzaile lanetan. ☎649 90 13 95.

ESKAINTZAK

BAZTAN-BAIGORRI aldean oihaneko lanetan eta zerratzan aritzeko langile bila ari dira. Ahal bada orain hasteko eta bederen negura arte aritzeko, gehiago luzatzeko aukerarekin. ☎0033 681 92 83 09.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan, harrategian zerbitzatzeko langilea behar dute egun osoz lan egiteko. Frantsesa jakin behar da. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

Denda batean lanean aritzeko pertsona bat behar dute, lanaldi osoan

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargari bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik


edo erdian. Bidali curriculum: sustrai-belardenda@hotmail.com.

ETXALAR. Baserri batean mutil bat behar dute lan egiteko. ☎669 33 61 88 / 659 14 83 53.

Larhongo benta batean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar dute, lanaldi osoan aritzeko, orain hasi eta urria arte. ☎607 56 60 22.

ANIMALIAK


SALGAI



Piriniotar arrazako **txekor/bigazte** saltzeko. Saneamenduak eginak. ☎690 98 61 18.

OPARITZEKO

Katakumeak opari. Ama ehiztari bikaina. Nolako zura... ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.



ITUREN. Katakumeak opari. Ama ehiztari bikaina. ☎683 27 31 65.



744 484 361

ttipi-ttapa

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,20/7,50
- 8-10 kilokoak: 6,40/6,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 62 €

Zerri gizona 1,518€

Zerramak 0,810€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT KANGOO FURGON 1.5 dci 90 CV - 50.200 km - 7.600 euro + BEZ

RENAULT CLIO IV 1.5 dci 90 CV 65.600 km - 8.950 euro

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

MOTORRAK


SALGAI



BMW 650 GS motorra salgai. 2003koa. 27.000Km. Transmisioa aldatua. Prezioa: 3.100 euro. Deitu arratsalde. ☎636 99 66 28.


DENETARIK

GALDU-AURKITUAK



ETXALAR. Bi urteko Border Collie zakurra desagertua. ☎661 12 59 08

SALGAI



Irokoko leihoak saltzeko, *oscilobatiente* sistemarekin. Ateak 3 unitate (218x134), leihoak 7 unitate 2 orrikoak (121x113), leihoak 3 unitate orri bakarrekoak (120x62). Goma bikoitza. 1.600 euro. ☎636 70 12 04

BERTZELAKOAK

Euskara ikastearen truk artzain lanean aritzeko prest. Uztailean, abuztuan edo irailean. Baserriko lanetan ikasteko prest. ☎630 58 38 34.


URTEBETETZEAK



Beñat Terreros Alzugarai lesakarrak 2 urte beteko ditu ekainaren 11n. Zorionak eta muxu aunitz atabixaren partetik.



Helenek 12 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak ama, aita, amaxi eta bereziki Bidearen partetik. Muxu haundi bat!



Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 7 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik, eta bereziki Iraia ahizparen partetik.



Igantziako **Neia Migelena Mariezkurrenak** 8 urte beteko ditu ekainaren 3an. Aspaldi esperoan zauden zure urtebetetze-egun polit hori gozatu dezazun espero dugu Eratsungo eta Igantziako familia guziak. Muxu pila zuretzat!!!!



Adur Olano Loiarte leitzarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 9an. Zorionak Aner, Aiur eta Joarren partetik. Prestatu bizkotxo goxo-goxo bat.



Aunitz urtez **Ekaitz!** Urteak joan, urteak etorri zarena izaten eta irribarez bizitzen segitzea opa dizugu. Oraingo honetan postrea zure etxean janen dugu, ezta?

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko dugu webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekea.
- (4) [ERRAN.EUSEN](http://erran.eus/en) bitartez.

KONTATU KONTUAK



Nafarroa Berriz Altza ekimenarekin bat egin dute Bortzirietan. Nafarroaren eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza aldarrikatzeko helburuarekin Nafarroa Berriz Altza herri ekimena sortu dute eta herriz herri mugimendua aurkezten ari dira. Maiatzaren 22an, erraterako, Lesakan egin zuten Bortzirietako aurkezpena, eta bortz herrietako hainbat lagunekin argazkia atera zuten Zabaleta dorretxean.



Ezagutu dezagun Lesaka! Joan den hilabetean Ezagutu dezagun Lesaka lehiaketako sariak banatu zituen Beti Gazte elkarteak. Parte hartu zuten ikastolako eta eskolako Lehen Hezkuntzako 44 gaztetxoek herriaren historiari buruzko 30 galderei erantzun bidenabar, ongi pasatzeko tarteak izan zuten lehiaketan, baita sari banaketa egunean ere, Harriondoa kultur etxetik Biskantxeneko plazara soinulariek lagunduta joan baitziren. Parte-hartzaile guzientzako opariak izan ziren eta galdera gehien erantzun zutenek sariak ere jaso zituzten.




Berako helduen abesbatza Aspacekoei kantari. Berako Aspaceren egoitzan dauden lagunak aski tarte atsegina pasatu ahal izan zuten maiatzaren 25ean, Berako helduen abesbatzak kontzertua eskaini baitziren Maddi egotetxearen atarian.

OROIGARRIA

**Jose Javier
AYERDI ARRIBILLAGA**

Leitza, 1966-2021

Ez da inoiz itzaliko
Zure irrifarren oihartzuna.
Ez da inoiz itzaliko
Zuganako maitasuna.
Zurekin bizitakoak
Oroitzen ditugu irrian.
Beti egonen zara zu
Guztion bihotzean.



ZURE KINTOAK

OROIGARRIA

**M^a Cruz
BARAIBAR EZKURDIA**

Lontxo Lasarteren alarguna

Leitzan, 2021eko maiatzaren 6an 88 urterekin

Esku zailduak, buru argia
belaunerainoko gona.
Barruan asko egina eta
barran gubxitan egona.
Normahiri ostatu eman diozu
ta denei otordu ona.
Herriarena ere bazara
gure ama ta amona.
Zoaz zerura, irrifartsu zain
izango duzu attuna.
Behean Txoko bat gordeko zaizu
erdi-erdian dagona.



BETI MAITEKO ZAITUEN ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Aitor
DANBORIENA ALZUGUREN**

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
V. urteurrena

Beti irribarrea zenuen lagun-min
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Maria Dolores
GARATE MUTUBERRIA**

Leitzan hil zen, 2021eko maiatzaren 6an 82 urterekin.

Itzali zaigu
Loratetik lorerik ederrena
Hamaika hariz
Bizitza josi zuena.

Eten da haria
Aspaldian urratzen hasia
Baina zuk zaindutako loreek
Jarraituko dute loratzen
Gure bizia.



ZURE ALARGUNA JUSTO MIHURA ETA SENDIA

OROIGARRIA

**Jose Javier
AYERDI ARRIBILLAGA**

Une latz hauetan
bat egiten dugu familiaren saminarekin.



OROIGARRIA

**Txelo
MITXELENA IRAZOKI**



LESAKAKO
UDALA




**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorziketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidaso.com

Baita **BERTIZARANA**, **BORTZIRIAK**, **URDAZUBI** ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN** | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

SORTZEAK


- **Mara Perotxena Elgorriaga**, Lesakakoa, maiatzaren 10ean.

EZKONTZAK

- **Jon Zelaiaeta Danboriena** eta **Ekiñe Telletxea Goikoetxea** Berakoa eta Irungoa, maiatzaren 15ean Igantzin.

HILBERRIAK

- **Pantxo Arretxea Manterola**, Sunbillakoa, maiatzaren 13an, 83 urte zituela.
- **M^a Teresa Gaztelu Ibarra**, Anizkoa, maiatzaren 14an.
- **Maria Agerre Vergier**, Erratzukoa, maiatzaren 14an, 88 urte zituela.
- **Catherin Velasco Lopez**, Elizondokoa, maiatzaren 14an, 11 urte zituela.
- **Pilar Garziarena Labaien**, Leitzakoa, maiatzaren 15ean.
- **Eustakio Zubieta Lujanbio**, Goizuetakoa, maiatzaren 15ean, 81 urte zituela.
- **Juanita Oteiza Maisterrena**, Elizondokoa, maiatzaren 16an, 95 urte zituela.
- **Txelo Mitxelena Irazoki**, Lesakakoa, maiatzaren 21ean, 79 urte zituela.
- **Maite Iparragirre Iparragirre**, Etxalarkoa, maiatzaren 22an, 45 urte zituela.
- **Jesus Mari Martinez Urkizu**, Leitzakoa, maiatzaren 22an, 86 urte zituela.
- **Jesus Migeltorena Andiarena**, Lesakakoa, maiatzaren 22an, 91 urte zituela.
- **Jose Javier Aierdi Arribillaga**, Leitzakoa, maiatzaren 22an, 55 urte zituela.



948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
ADU, A TU LADO



ESKELAK JARTZEKO edo **OROIGARRIAK EGITEKO:**
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



BERRIA

WEB eta MULTIMEDIA

MULTIMEDIA

Bideoak, animazioak, gif-ak...
informazioa modu erakargarrian.

- WhatsAppez partekatzeko kanpainak (bideoak eta mikrowebak)



WEB ORRIAK

Enpresa, elkarre eta erakundeentzako
web orriak gailu guztietara egokituak.

- Landetxeak
- Komertzioak
- Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mوبiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktua formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com


**ESKATU
AURRE
KONTUA**

PLAZAN BAZAN



IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren hartzaroan landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Deus ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?




INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




PAREAK BAI!



Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.

ITZALA

Margotu erlea eta arrosa-landarea eta aurkitu itzal zuzena.



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

782 zenbakiko
irabazleak >



- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Izaskun Etxeberria Bizente | IRURITA
- Buatxabal - Kamiseta bat
Manolo Ibarra Elizondo | NARBARTE
- La Rhune - Sarrera bat
Maixus Antzizar Iriarte | LESAKA
- Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat
Fermin Iraizoz Urdaniz | IRUÑEA
- BKZ Abentura - Sarrera bat
Iruñe Alkorta Rodriguez | LEITZA
- Martiko - Lote bat
Mertxe San Bizente Gonzalez | ELBETE
- Ikaselkar - Bi liburu
M^a Teresa Graner Ezeizabarrena | ARANTZA
- Elkar - Bi liburu
M^a Lourdes Elizalde Mitxelena | ZUBIETA

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA

Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak

IRRISARRI LAND

www.irrisarriand.com



Sarrera bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



Bi sarrera

MU SI KA



- Baltik
Iñaki Palacios
eta The Gael's




- Under Alt Nøgen

[baga-biga](http://www.baga-biga.eus)

www.baga-biga.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ikaselkar.eus



www.galaxypark.eus